



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko azaroaren 26a

64 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua (2. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko azaroaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege Proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarraren Erregelamenduko 108 eta 125 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege Proiektua premiazko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena. Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuak Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi laneguneko epea irekiko da, 1996ko abenduaren 12ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1996ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege Proiektua

Nafarroak ahalmena du bere zerga araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko, bertako foru araubidean oinarrituta. Ahalmen hori historian zehar erabili du Foru Komunitateak eta gaur egun indarra duen ordenamendu juridikoan, berriz,

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 45. artikuluan jasoa dago.

Sozietateen gaineko Zergaren helburua entitate juridikoek lortutako mozkinak zergapetzea da. Horrela, Sozietateen gaineko Zerga Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren osagarria da, errentaren gaineko zerga sistema baten eremuan. Gainera, atzerriko inbertitzaileek lurralde espainiarrean dauzkaten sozietateen bitartez lortutako kapital-errenten iturrian atxikipen eginkizuna ere badu.

Bi helburu horiek, Konstituzioaren 31. artikuluan ezarritako nahikotasun eta justizia printzipioei jarraitzen dietenak, behin eta berriz agertzen dira Sozietateen gaineko Zergan. Foru Lege honek ez ditu aldatzen helburu horiek, beraz, ez du ondoriorik Sozietateen gaineko Zergaren egiturari, nahiz eta nolabaiteko garrantzia duten aldaketa batzuk badauden.

Honako hauek dira Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko arrazoiak:

– Merkataritzako legeriaren hein bateko aldaketa.

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aldaketa, maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen bidez egina.

– Ekonomia nazioarteko bihurtzea eta bizi duen globalizazioa, horrek ekarri baitu eskuhartze ekonomikorako tresna klasikoek espero zen emaitza ez izatea.

– Sozietateen gaineko Zergan gaur egun arauen sakabanaketa handia izatea.

Lehenengo arrazoiari dagokionez, ikus daiteke Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarria kontabilitateko emaitzatik abiatuta ezartzea zerga eremua merkataritzako arlo erreformatuari egokitzetez dela, eta, horrekin batera, kontabilitate legeen gailentasuna erakusten du enpresako jardueraren emaitza zehazterakoan. Kontabilitateko emaitza Zergaren zerga-oinarria kalkulatzeko fun-

tsezko elementua da, egin behar diren zerga motako zuzenketa puntualak kontuan harturik.

Bigarren arrazoiari dagokionez, jada adierazi dugu Sozietateen gaineko Zerga Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aurrekaria dela.

Hain zuzen ere, Sozietateen gaineko Zergak berekin dakar, Foru Legeak ere jasotzen duen ikusmolde honen arabera, pertsona fisikoek entitate juridikoetan duten partaidetzaren bidez lortutako kapital-errenten iturrian atxikipena egitea. Zentzu horretan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpe egonik kapital-errenta guztiak, argi ageri da bi zerga figura horien arteko harreman estua eta, beraz, horietako bat aldatzeko bestearengan ere ondorioak dituela.

Hirugarren arrazoiari dagokionez, Europako Batasunaren prozesuan sartzeak behartu eta era berean bultzatu egiten du egituraren beharrezkoak diren erreformak egitera, horien bidez susta daitezkeen jarduera produktiboa eta ekonomia erreala garatzeko beharrezkoak diren egonkortasun baldintzak eta pizgarri ekonomiko eta sozialerako bideak.

Egoera honetan, Zerga erabat aldatzeko asmorik ez izan arren, denborak, gizarte eta ekonomi aldatetarako eta gure inguruko nazioarteko sortzen dituzten beharretara egokitu da.

Laugarren arrazoiari dagokionez, gogoratu behar da, Foru Lege honen aurretik araubide orokorraz gain Sozietateen gaineko Zergako zenbait araubide berezi zeudela, eta horrek arauen sakanaketa haundia eta interpretazioak egitean ziurtasun ezak sortzen zituela.

Sozietateen gaineko Zergaren araubide berezi guztiak legezko testu bakar batean biltzea ere Sozietateen gaineko Zerga aldatzearen helburuetako bat da eta asmo hori ongi bete dago Foru Lege honetan. Testu bakar horretatik kanpo gelditzen dira sozietate kooperatiboen eta irabazi asmorik gabeko zenbait entitateen araubide bereziak, beste ezaugarri batzuk dituztelako.

Foru Lege honek 157 artikulua dauka, hamar Titulu, hamar Xedapen Gehigarri, hogeita bi Xedapen Iragankor, Xedapen Indargabetzaile bat eta bi Azken Xedapen.

Foru Legeak pertsona juridikoek lortutako errentaren zerga-ordainketa arautzen du, horretatik salbuetsiz sozietate zibilak, hots, zergak errenten esleipeneko araubidearen arabera eta 11. artikuluko b) letran aurreikusitako fondoek bidez ordaintzen dituztenak, 10. artikuluan aurreikusitaren arabera. Hala ere, sozietate kooperatiboek zerga-ordainketa, zeinen zerga araubidea ekaina-

ren 21eko 9/1994 Foru Legeak arautzen baitu, bai eta fundazioen eta babes jardueren zerga araubideari buruzko uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako ezaugarriak dituzten fundazioen zerga-ordainketa ere, kanpoan gelditzen dira.

I. Titulua, "Zergaren araubide juridikoa, izaera, arautegia eta aplikazio eremua", sei artikuluz osatua dago, eta lehenengo biek Zergaren araubide juridikoa eta izaera zehazten dute.

I. Titulu honen gainerako artikuluek Sozietateen gaineko Zergaren aplikazioaren helburua eta eremua zehazten dituzte, 1990eko uztailaren 31n Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak sinatutako Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoari jarraituz (horren 17, 18 eta 19. artikuluek).

II. Titulua, "Zerga-gaia", lau artikuluz osatua dago (7.etik 10.era), eta ezartzen du subjektu pasiboak errenta lortzeak osatzen duela zerga-gaia, horren iturri edo jatorria edozein delarik. Horretarako, zergagaian sartuko dira bai errenten esleipena, bai eta subjektu pasiboari zerga garrantasunaren araubidean dauden entitateen likidazio-oinarriak egozteak.

Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen testu batekina onesten duen ekainaren 13ko 153/1986 Foru Dekretuaren 3. artikuluek egiten bazuen ere, Foru Lege honen 7. artikuluek ez du sozietateak lortutako errenta zenbait osagaitan sailkatzen (era guztietako ustiapen ekonomikoek etekinak eta jarduera profesional edo artistikoetatik sortutakoak; aurreko jardueren lotua ez dagoen edozein ondare elementutatik sortutakoak eta aipatu Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz zehaztutako ondare gehikuntzak). Honako hauek dira horren arrazoiak:

- Sozietateen gaineko Zergaren izaera sintetikoa.

- Zerga-oinarria kontabilitateko emaitzaren arabera zehaztea.

- Errenten sailkapenaren eraginkortasun urria, atxikitzearen betebeharrera mugatzen dena.

- Lortzen den sinplifikazio eta argitzapen garrantzitsua Foru Legeak, besteak beste, dirusarreraren eta gastuen aldi baterako egozketa eta kontabilitate inskripzioa aipatzen dituenean.

III. Tituluan zabaldu egiten da izaera subjektiboko salbuespena, sektore publikoari dagozkion entitateei dagokienez.

Horiei dagokienez, entitate salbuetsizat jotzen dira beren forma juridikoarengatik merkatuarendako ondasun eta zerbitzuak ematen ez dituztenak. Merkatuarendako ondasun eta zerbitzuak ematen

dituztenek, berriz, ez dute salbuespenik izanen, jarduera berdinak edo antzekoak egiten dituzten enpresa pribatuekin dagoen lehian bihurturak saihestearren.

Salbuespenaren kontzeptua ez da aldatu gaur egun indarra duenarekin alderatuta, baina aipatu entitateen zerga araubidean funtsezko aldaketa egin da, zeren, alde batetik, kendu egin da gutxieneko zerga-ordainketa eta, bestetik, entitate horiek banatutako dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkaria egin ahalko da.

IV. Tituluan adierazten da zuzeneko zenbatespenaren araubidean zerga-oinarria zehaztuko dela Merkataritza Kodean, Sozietate Anonimoen Legean eta horren garapenerako ematen diren xedapenetan aurreikusitako arauak aplikatuz lortutako kontabilitate emaitzatik abiatuta, beharrezkoa bada kontabilitate printzipioen eta Foru Lege honetan eta garatzen duten gainerako arauetan ezarritako zerga xedapen berariazkoen arteko diferentziak sortzen dituen doikuntzak eginda. Zerga-oinarria kalkulatzeko ikuspegi honek berritasun nabaria dakarkio gaur egun indarra duen egoerari, eta bi hobekuntza garrantzitsu sortuko dituela uste da:

- Zerga arauen bikoiztasuna saihestiko du kontabilitateko dagokienez, eta horrek legeriaren testua zertxobait laburragoa eta ulerterragoa izatea ekarriko du.

- Zerga-oinarriaren eraketa zehaztuko du magnitude baten gainean, zein baita kontabilitateko emaitza, Zerga honetako subjektu pasiboek ederki ezagutuko dutena.

Ibilgetu ezmaterialaren amortizazioaren ondorio diren balio zuzenketei dagokienez, berritasuna da merkataritzako fondoaren, marken eta intsuldaketa eskubideen amortizazioa hainbana egina, urteko muga gehienez ere zenbatekoaren hamarrena izanik, hau da, hamar urteko denboraldia.

Kapital-irabaziei dagokienez, Foru Lege honen 27. artikulua zenbait neurri sartzen ditu era iraunkorrean, zergapetzetik kanpo utzi ahal izateko inflazioaren ondorio diren errentak.

Titulu honen VIII. Kapituluaren aipatu behar da salbuespena ezarriko dela ibilgetu ezmaterialen kostubidezko eskualdaketan lortutako aparteko mozkinen berrinbertsioagatik, bai eta zergapetzearen atzeratzea baloreen eskualdaketa kasuetan.

X. Kapituluaren azaltzen denez, likidazio-oinarria izanen da zerga-oinarriaren likidazio-oinarri negatiboetako inbertsiorako erreserba bereziari dagozkien murrizketak egitearen ondoko emaitza.

Gaur egun indarra duen araubidearekin alderatuta azpimarra daitezkeen berritasunak dira, bai murrizketa epea zazpi urtetara luzatzea likidazio-oinarri negatiboetan, bai eta Zergari buruzko Foru Legearen testuan aipatu erreserba sartzea, zein azaroaren 15eko 12/1993 foru Legean ezarritakoarekin lotzen baita.

Karga tasei dagokienez, gaur egun indarra duen egoerarekin alderatuta, oraingoan tasa orokorrak portzentaian 2,5 puntuko murrizketa izanen du eta % 32,5ean geratuko da. % 26ko tasa, berriz, % 25era pasako da eta zenbait entitateri aplikatuko zaio.

VI. Tituluko II. Kapituluaren, hobariei buruzkoan, entitate berrietan eragina izanen duen zerga pizgarri garrantzitsu bat agertzen da. Jarduera hasi eta zazpi urteko epearen barnean ixten diren elkarren segidako zergaldien errentari dagokion kuota osoaren 100eko 50eko hoberia ezarri da, gehienezko muga lau zergaldikoa izanik, epe horretan likidazio-oinarri positiboak lortzen diren lehenbiziko alditik hasita.

Dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen barne ezarpen bikoitza saihesteko kenkariari dagokienez, honako aldaketa hauek aipatu behar dira:

- Kenkaria kalkulatu da dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbateko osoaren gainean.

- Kenkari hori aplikatuko da bai dibidendua banatzen denean, bai akzioak eskualdatzen direnean. Ikuspegi hori justifikatua dago, zeren eta entitate eskualdatzaileak lortutako gainbalioa bat baitator entitate partaidetuak sortutako mozkin banatugabeekin.

- Espreski ezarri da sistemaren aplikagarritasuna, barne ezarpen bikoitza saihestearren sozietateen likidazio kasuetan, bai eta akzio propioak amortiziorako eskuratzean, bazkideak bereiztean, likidazio gabeko desegitea gertatzen denean bategite edo zatitze osoko eragiketetan, bai eta eskubideak bazkideei ematearen ondorio den "zerga errenten" kasuan.

Lurralde espainiarrean egoitza ez duen sozietate batek ordaindutako dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen gainean nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariari dagokienez, Lege honek jarraipena ematen dio azaroaren 29ko 25/1994 Foru Legearen ildoari, alegia, zenbait Zergaren aldaketa partzialari eta zergen arloko beste neurri batzuei buruzko Legearenari. Bi aldaketa egin dira.

Lehenengoan, dibidenduak banatzen dituen sozietatearen partaidetzako portzentaia % 25etik % 5era murriztu da.

Bigarrean, kuotaren urritasunagatik kendu ez diren kopuruei buruzkoan, 5 urtetik 7ra luzatu da horren kenkaria egiteko epea.

Arlo honetan beste kenkari bat ezarri da ezarpen bikoitza saihestearren atzerriko jatorria duten dibidendu eta gainbalioen gainean.

Kenkari honen eta aurreko artikulukoaren arteko desberdintasuna da "salbuespen metodoa" izenekoaren ondorioak sartzen direla, baldintza batzuk betez gero beti ere. Baldintza horien artean aipatu behar da entitate partaidetuaren egoitzari dagokion herrialdearekin Espainiak hitzarmena izan behar duela, nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko helburuz egina. Hitzarmen horrek informazioaren trukeko klausula bat eduki behar du, eta entitate partaidetuak egindako jarduera izaera enpresarialekoa izanen da.

Salbuespenaren metodoak aukera ematen die enpresei nazioarteko merkatuetan baldintza berdinetan lehiatzeko, zergen ondorioetarako, eta era berean dibidenduak aberriratzeko dauden oztopo fiskalak kentzen ditu.

Foru Lege honek, zenbait jarduera sustatzeko asmoz, zerga pizgarri batzuk arautzen ditu, besteak beste: aktibo finko material berrietan egiten diren inbertsioak, ikerketa eta garapena, esportazioak egitera bideratutako kanpoko inbertsioak, lanbide heziketa, interes kulturalako ondasunak eta enplegua sortzea.

VII. Tituluan, Zergaren kudeaketari buruzkoan agertzen da, besteak beste, atxikipenak eta konturako dirusarrerak egiteko betebeharra, alde batera utziz erabat salbuetsitako entitateek lortzen dituzten errentak, bai eta barneko ezarpen bikoitzagatik 100eko 100aren kenkari eskubidea ematen duten dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak ere.

X. Tituluan, "Zerga araubide bereziak" izenekoan, Sozietateei buruzko Zergaren arloko zerga araubide berezi guztiak agertzen dira, horretatik salbuetsiz uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako baldintza eta ezaugarriak dauzkaten entitateen eta sozietate kooperatiboen fiskalitatea. Aipatu Legeak fundazioen eta babes jardueren zerga araubidea arautzen du.

Honako hauek dira arau berriaren arlo aipagarriak:

– Sozietate gardenek beste edozein sozietatek bezala ordainduko dute Sozietateen gaineko Zerga.

Horrek ez du eragozten bazkideei zerga-oinarria eta zerga zorraren gainerako elementuak egozte.

– Profesionalen sozietate gardenak artista eta kirolarien sozietateak bezala eraikitzen dira. Nahitaezkoa da dirusarreraren 100eko 75a baino gehiago jarduera profesioetatik sortzea, eta profesionalek -pertsone fisikoek edo beren familiakoek eskubidea izatea mozkinen 100eko 50 baino gehiagoren partaide izateko.

– Desagertu egin da sozietate gardenek eta beste entitate garden batzuetako bazkideek Pertsone Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eskalako gehienezko tasa marjinala ordaintzeko duten betebeharra.

– Enpresen aldi baterako batasunen araubidean 12/1992 Foru Legean aurreikusitakoa sartu da, berritasun batekin, hau da, nazioarteko ezarpen bikoitza salbuespen metodoaren bitartez tratatu ahal izatea, baimena izanik gainera aldi baterako batasunak izaten dituen galerak egozteko.

– Sozietate taldeen zerga-ordainketari dagokionez, handitu egin da partaidetza gradua, bertan sartzeko aukera ematen zaie erantzukizun mugatuko sozietateei eta akzioengatik komanditarioei, eta kendu egin da aitorpen finkatuaren araubidearen kontzesiorako administrazio espedientea, nahiz eta hori aplikatuko den taldea osatzen duten sozietateek formalki horrela erabakitzen dutenean eta Administrazioari jakinarazten diotenean.

– Bategiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen eta baloreen trukeen araubide berezian kasu berri bat erantsi zaio gerorapen araubideari, alegia, diruzkoak ez diren ekarpenak, zeinen ondorio izanen baita ekarpena jasotzen duen entitatean partaidetza bat izatea, gutxienez 100eko 5koa.

– Egoitzik gabeko sozietateen berezko fondotako balore adierazgarrien ukantza duen entitateei dagokien araubidea berritasun garrantzitsua da, egoitza espainiar lurraldean ez duten eta atzerrian enpresa jarduerak garatzen dituzten entitateen berezko fondoetan partaidetzak edukitzeko helburua duten entitateei begira. Araubide horretan, labur esanda, egoitza duen entitateari salbuespena egiten zaio, partaidetzen mozkinen banaketatik edo partaidetza horien eskualdaketatik sortzen diren errenten gainean.

Salbuespen metodo honen bitartez, enpresak baldintza berdinetan lehia daitezke atzerriko lurralde berean dauden beste batzuekin, zeren eta zerga karga beraren menpean baitaude eta mozkinak aberriratzeko oztopo fiskalak kendu egin baitira.

Azkenik, araubide berezi bat ezarri da zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentro izena

dutenentzat, beti ere zenbait baldintza betetzen badituzte berezko fondoan, langile enplegatuen eta eragiketen kopuruaren gainean. Araubide horren funtsezko espezialitatea da zerga-oinarria metodo berezi baten bitartez zehazteko aukera izan dela.

I. TITULUA

Zergaren araubide juridikoa, izaera, arautegia eta aplikazio eremua

I. KAPITULUA

Araubide juridikoa eta izaera

1. artikulua. Araubide juridikoa.

Foru Komunitateak Sozietateen gaineko Zerga exijituko du, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikulua aipatzen duen Ekonomi Hitzarmeneko arauari, Foru Lege honi, horren garapenerako emanen diren erregelamenduzko arauari eta aplikagarri izanen diren gainerakoei jarraikiz.

2. artikulua. Zergaren izaera.

Sozietateen gaineko Zerga zuzeneko eta izaera pertsonalekoa da, pertsona juridikoen eta bes-telako entitateen errenta Foru Lege honetan ezar-tzen denaren arabera zergapetzen duena.

II. KAPITULUA

Arautegia eta aplikazio eremua

3. artikulua. Aplikatu den arautegia.

1. Foru Lege honetan araututako Zerga hona-ko hauei aplikatu zaie:

a) Zergak Foru Komunitatean soilik ordaintzen dituzten entitateei, hurrengo artikuluen 1. zenbakian aipatzen diren irizpideei jarraikiz.

b) Zergak Administrazio batean baino gehiagotan batera ordaindu arren zerga egoitza Nafarroan duten entitateei, baldin eta araubide amankomune-ko lurraldean beren eragiketa guztien ehuneko hirurogeita hamabosta edo gehiago egiten ez badute, 4. artikulutik 6.era ezartzen diren lotura puntuen arabera.

2. Foru Lege honen ondorioetarako, zerga egoitza gisa joko da Ekonomi Hitzarmenaren 7.2. artikuluan horrela adierazia dagoena.

4. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru Komunitateari dagokio Sozietateen gaineko Zerga honako subjektu pasibo hauei ordainaraztea:

a) Zerga egoitza Nafarroan izanik aurreko ekitaldiko eragiketen kopuru osoa hirurehun milioi pezetatik gorakoa izan ez dutenak.

b) Soil-soilik nafar lurraldean jarduten dutenak eta, gainera, aurreko ekitaldiko eragiketen kopuru osoa hirurehun milioi pezetatik gorakoa izan dutenak, edozein dela ere beren zerga egoitzaren tokia.

2. Lurralde batean baino gehiagotan jarduten duten subjektu pasiboak, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen kopuru osoa hirurehun milioi pezetatik gorakoa izan badute, lurralde bakoitzeko Administrazioan ordainduko dituzte zergak, edozein dela ere beren zerga egoitzaren tokia. Zerga-ordainketa eginen da ekitaldiaren barnean lurralde bakoitzean egindako eragiketen kopuruaren araber- eta hori zehaztuko da 5 eta 6. artikuluetan ezartzen diren lotura puntuei jarraikiz.

3. Aurreko zenbakietan xedaturikoa gorabehe- ra, Estatuko Administrazioari soilik ordainduko dizkiote zergak, nahiz eta nafar lurraldean jardun, Estatuko Banka Ofizialak, Estatuko monopolioen sozietate kontzesionarioek eta atzerriko entitate-ek.

4. 1 eta 2 zenbakietan ezarritakoaren ondorio- etarako, jardueraren hasiera kasuan, hirurehun milioi pezetako zifraren zenbaketa egin ahal izate-ko, hasierako ekitaldian egindako eragiketen kopurua hartuko da kontuan.

Ekitaldi hori urte batekoa baino laburragoa izan- nen balitz, arestian aipatu zifraren zenbaketa egi- teko, egin diren eragiketak urtebetera luzatuko liriteke.

Aurreko lerroaldeetan aipatzen diren eragike- ten kopurua eta non egin diren ezagutu arte, horrelakotzat hartuko dira, ondorio guztietarako, subjektu pasiboari hala iruditzen zaizkionak jar- dueraren hasiera ekitaldian zehar egin asmo dituen eragiketen arabera.

5. Eragiketen kopurutzat kontraprestazioen zenbateko osoa joko da, Balio Erantsiaren gaine- ko Zerga eta baliokidetasun errekarua, hala bada, izan ezik, subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun emate eta zerbitzu prestazioe- tan lortua.

5. artikulua. Lurralde batean edo bestean egindako eragiketak.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ondorioetara- ko, subjektu pasiboak bere eragiketak lurralde batean edo bestean egiten dituela ulertuko da horietan ondasun emateak edo zerbitzu prestazio-

ak egiten dituenean, hurrengo artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

Ondasun emate eta zerbitzu prestaziotzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen legerian horrela azaldutako eragiketak.

6. artikulua. Eragiketak non egiten diren.

Honako eragiketa hauei buruz esanen da Nafarroan eginak direla:

A) Ondasun emateak.

1goa. Ondasun higigarri korporal fabrikatuen edo eraldatuen emateak, emate hori egiten duenak berak eginak, subjektu pasiboaren fabrikazio edo eraldaketa zentroak nafar lurraldean daudenean.

Subjektu pasibo berak fabrikazio edo eraldaketa zentroak nafar lurraldean eta amankomunean dauzkanean, baldin eta emandako ondasunen fabrikazio edo eraldaketaren azken prozesua Nafarroan egiten bada.

2garrena. Industri elementuak emateaz gain horiek Nafarroatik kanpo instalatzen badira, nafar lurraldean eginak direla ulertuko da, baldin eta prestaketa eta fabrikazio lanak lurralde horretan egiten badira eta instalazio edo muntaketaren kostua kontraprestazio osoaren 100eko 15etik gorakoa ez bada.

Horrekin loturik, ez dira nafar lurraldean egintzat joko lurralde horretan instalatzen diren industri elementuen emateak, baldin eta elementu horien prestaketa eta fabrikazioa lurralde amankomunean egiten bada eta instalazio edo muntaketaren kostua kontraprestazio osoaren 100eko 15etik gorakoa ez bada.

3garrena. Energia elektrikoaren ekoizleek egindako emateak, energia horren zentro sortzaileak nafar lurraldean daudenean.

4garrena. Ondasun higigarri korporalen gaineko emateak, eskuratzailari eman beharrekoak nafar lurraldetik irtetzen direnean. Ondasunak eskuratzailari eman ahal izateko garraiatu egin behar direnean, emate horiek bidalketa edo garraioa hasterakoan dauden tokian egin direla ulertuko da.

5garrena. Ondasun higiezinen emateak, horien gaineko eskubide errealak barne, ondasunak nafar lurraldean daudenean.

B) Zerbitzu prestazioak.

1goa. Zerbitzu prestazioak Nafarroan egintzat joko dira lurralde horretatik abiatuta egiten direnean.

2garrena. Aurreko atalean xedatutakotik kanpo geldituko dira ondasun higiezinekin harreman

zuzena duten prestazioak, ondasun horiek Nafarroan ez daudenean.

c) Aurreko A) eta B) letretan xedatutakoa gora-behera, Nafarroan egintzat joko dira ondoren zehazten diren eragiketak, horiek egiten dituen subjektu pasiboak bere zerga egoitza nafar lurraldean daukanean:

1goa. Nekazaritza, oihan, abeltzaintza edo arrantzako ustiatzaileek eta arrantzuntzien armadoreek egindako emateak, alegia, beren landa, ustiapen edo harrapaketatik zuzenean heldu diren eta eraldaketa prozesurik jasan ez duten produktu naturalen emateak.

2garrena. Garraio zerbitzuak, baita etxe aldaketa egitekoak, atolian eramatekoak eta garabiarenak ere.

3garrena. Garraio bideen errentamenduak.

D) Artikulu honetan ezarritako irizpideen arabera atzerrian egintzat jotzen diren eragiketak Administrazio bati ala besteari esleituko zaizkio, dagokion bezala, gainerako eragiketen proportzio berean.

E) Aurreko artikuluan aurreikusitako eragiketak egiten ez dituzten entitateek Nafarroan ordainduko dituzte zergak, beren zerga egoitza nafar lurraldean daukatenean.

II. TITULUA **Zergagaia**

7. artikulua. Zergagaia.

1. Zergagaia subjektu pasiboak errenta lortzea izanen da, horren iturri edo jatorria edozein dela.

2. Aurreko zenbakian sartutako kasu gisa hartuko dira:

a) 10. artikulua aipatzen duen errenten esleipena.

b) Subjektu pasiboari egoztega Foru Lege honen X. Tituluaren II. Kapituluaren arautzen den zerga gardentasuneko araubidearen menpeko entitateen likidazio-oinarriak.

c) Nazioarteko zerga gardentasuneko araubidean egoiliarak ez diren entitateek lortutako errenta positiboak zerga-oinarriaren barruan sartzeko inguruabar eragileak betetzea. Aipatu araubidea Foru Lege honen X. Tituluko III. Kapituluaren arautua dago.

8. artikulua. Errenten zenbatespena.

Zerbitzu prestazioak eta ondasun eta eskubideen lagapenak, beren mota ezberdinetan, merkatuan duten balio normalaren arabera ordain-

duak direla uste izanen da, baldin eta subjektu pasiboak beste balorazio bat frogatuko duten ekintzak egiaztatzen ez baditu.

9. artikulua. Kontabilizatu edo aitortu ez diren ondasun eta eskubideen kasuetan errentak lortzearen ustezkotasuna.

1. Subjektu pasiboak aitortu gabeko errentak honako kasu hauetan lortzen dituela uste izanen da:

a) Ondare elementuak, zeinen titulartasuna subjektu pasiboarena baita, eta bere kontabilitate liburuetan erregistratuta ez baitaude, edo erregistratuta egon arren eskuratzekoan zuten balioa baino txikiagoa agertzen ez baitira.

Ondare elementuen titulartasuna subjektu pasiboari dagokiola uste izanen da, horien jabe denean.

b) Existitzen ez diren zorrak subjektu pasiboaren kontabilitate liburuetan erregistratu direnean.

2. Aurreko zenbakiko a) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako, aitortu gabeko errentaren zenbatekoa kontabilitateko liburuetan erregistratu gabe dauden ondasun edo eskubideen eskuraketaren balioa dela ulertuko da.

Ondare elementuak eskuratze balioarekin baino txikiagoa den batekin erregistratuak daudenean, kontuan hartuko da bien arteko aldea.

Ondare elementuaren eskuratzea finantzatu ahal izateko kontabilizatu gabeko zorrak egin direla frogatzen denean, aitortu gabeko errentaren zenbatekoa izanen da eskuratze balioari zor horien zenbatekoa kenduta ateratzen den emaitza, zenbateko garbia ezin izanen delarik negatiboa izan.

Eskuraketaren balioaren zenbatekoa horren ziurtagirien bidez frogatuko da, eta horrela ezin izanen balitz, legez ezarritako balorazio erregelak aplikatuz.

3. Aitortu gabeko errentaren zenbatekoa, preskribatu gabeko zergaldi antzinakoenari egotziko zaio, subjektu pasiboak beste bati edo beste batzuei dagokiela frogatzen ez badu.

2 zenbakiaren azken aurreko lerroaldeak aipatzen dituen kasuetan, zorrak ordaintzen diren zergaldian eginen da egozketa.

4. Aurreko 1 zenbakiko a) letran aipatu diren ondare elementuen balioa, behin zerga-oinarrian sartutakoan, zergaren ondorio guztietarako izanen da baliogarria.

10. artikulua. Errenten esleipena.

1. Sozietate zibilei dagozkien errentak, nortasun juridikoa izan ala ez, bai eta jaraunspen banatugabeei, ondasunen komunitateei eta nortasun juridikorik ez izan arren zerga egozketa jasan dezaketen unitate ekonomikoak edo ondare bereizkiak diren gainerako entitateei dagozkienak ere, bazkide, jaraunse, komunero edo partaideei, hurrenez hurren, zehaztu eta esleitu zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1882 Foru Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Errenten esleipenerako araubidea ez zaie aplikatuko Sozietateen gaineko Zerga ordainduko duten transformaziorako nekazaritza sozietateei.

III. TITULUA Subjektu pasiboa

11. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Zergaren subjektu pasiboak honako hauek dira:

a) Pertsona juridikoak, aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera zergak errenten esleipenaren araubidean ordaintzen dituzten sozietate zibilak izan ezik.

b) Honako fondo hauek:

a') Inbertsio fondoak, abenduaren 26ko 46/1984 Legeak, Talde Inbertsioko Erakundeei buruzkoak arautzen dituenak.

b') Kapital-arriskuko fondoak, martxoaren 14ko 1/1986 Errege Dekretu-Legeak, Administrazio, Finantza, Zerga eta Lanari buruzko Presazko Neurrien gainekoak arautzen dituenak.

c') Pentsio fondoak, ekainaren 8ko 8/1987 Legeak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzkoak arautzen dituenak.

d') Hipoteka merkatuaren arautze fondoak, martxoaren 25eko 2/1981 Legeak, Hipoteka Merkatuaren Arautzeari buruzkoak aipatzen dituenak.

e') Hipoteka titulazioko fondoak, uztailaren 7ko 19/1992 Legeak, Higiezin Inbertsioetarako Sozietate eta Fondoei eta Hipoteka Titulazioko Fondoei buruzkoak arautzen dituenak.

f') Aktiboaren titulazio fondoak, apirilaren 14ko 3/1994 Legeak, kredituen arloko espainiar legeria Banku Koordinaziorako Bigarren Zuzentarauari eta finantza sistemari dagozkion beste aldarazpei egokitzeari buruzkoak, bosgarren xedapen gehigarriaren 2.ean aipatzen dituenak.

c) Enpresen aldi baterako batasunak, maiztaren 26ko 18/1982 Legeak, Enpresen Aldi baterako Elkarte eta Batasunen eta Eskualdeko Industri Garapenerako Sozietateen zerga araubideari buruzkoak arautzen dituenak.

d) Zergak Foru Lege honen X. Tituluaren VIII. Kapituluaren erregulatzen den araubidearen arabera ordaintzen dituzten sozietate taldeak.

2. Subjektu pasiboak, lortzen duten errentaren osotasunaren zioz zergapetuak izanen dira, non sortu den berdin dela eta ordaintzailearen egoitza edozein dela.

3. Foru Lege honen testuaren barnean, Zerga honetako subjektu pasiboak izen horretxekin aipatuko dira edo, berdin, sozietate edo entitate hitzekin.

12. artikulua. Salbuespenak.

Zergatik salbuetsita egonen dira:

a) Lurraldeko Administrazio Publikoak, bai eta izaera beretsuko erakunde autonomo edo entitate autonomoak eta aipatu Administrazio Publikoetako lotutako edo horien menpeko ente publikoak ere, sozietate publikoak izan ezik.

b) Gizarte Segurantzza kudeatzeko ardura duten entitate publikoak.

IV. TITULUA **Zerga-oinarria**

I. KAPITULUA **Kontzeptua eta zehaztapena**

13. artikulua. Zerga-oinarriaren kontzeptua eta zehaztapena.

1. Zerga-oinarria zergaldiko errentaren zenbatekoaz osatua egonen da.

2. Zerga-oinarria zenbatespen zuzeneko araubidearen arabera zehaztuko da eta, subsidiarioki, zeharkako zenbatespenekoaren arabera.

3. Zenbatespen zuzeneko araubidean zerga-oinarria kalkulatu da kontabilitateko emaitza Foru Lege honetan ezartzen diren manuak ezarritako dituz.

Kontabilitateko emaitza zehazteko, Zerga Administrazioak Merkataritza Kodean, zehaztutako horri buruzko gainerako legeetan eta arau horiek garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritako arauak aplikatuko ditu.

Doikuntzak izanen dira kontabilitate printzipioen eta Foru Lege honetan zein hori garatzen duten gainerako arauetan ezarritako zerga xedapen berariazkoen arteko diferentziaren arabera.

II. KAPITULUA **Amortizazioak**

14. artikulua. Ibilgetu materialaren amortizazioa.

1. Kengarriak izanen dira jarduerari lotutako elementu ezberdinek funtzionamendu, erabilera, probetxu ateratze edo zaharkitzeagatik izaten duten balio galera eraginkorrari dagozkion kopuruak, ibilgetu materialaren amortizazio kontzeptuaren arabera.

2. Ibilgetu materialaren balio galera honakoetan joko da eraginkortzat:

a) Ofizialki onetsitako amortizazio taulatan ezartzen diren amortizazio linealaren koefizienteak aplikatzearen emaitza denean.

b) Elementu haien gainean egiten denean eta amortizazio degresiboaren metodoak aplikatu ahal izateko erregelamenduz ezartzen diren erregelari jarraikiz.

c) Subjektu pasiboak aurkeztu eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak onartutako planarekin bat datorrenean.

d) Subjektu pasiboak horren zenbatekoa justifikatzen duenean.

3. Amortizazioaren aplikazioa hasiko da kasu bakoitzari dagokion aktiboa funtzionamenduan jartzen den unetik aurrera.

4. Zerga ondorioetarako, elementu amortizagarri baten bizi erabilgarria izanen da denboraldi bat zeinetan, hartu den amortizazio irizpidearen arabera, horren balioa guztiz berdindua geratuko baita, hondarrekota, baldin bada, alde batera utzia.

Elementu bat ofizialki onartutako amortizazio taulak aplikatuz amortizatzen denean, horietan agertzen den amortizaziorako gehienezko denboraldia joko da bizi erabilgarritzat.

5. Elementu berberarentzat ezin izanen dira amortizaziorako sistema ezberdinak aplikatu, ez aldi berean ez hurrenez hurren.

6. Erregelamendu bidez amortizazio arloko garapen xedapenak emanen dira, amortizazio taulak onetsiko dira, bai eta aurreko 2 zenbakiko c) letrak aipatzen duen plana ebazteko prozedura ere.

15. artikulua. Ibilgetu ezmaterialaren amortizazioa.

1. Kengarriak izanen dira merkataritza fondoa, markak eta intsuldaketa eskubideak amortizatze-ko dotazioak, urteko muga gehienez ere horren

zenbatekoaren hamarrena izanik, honako baldintza hauek betetzen badira beti ere:

a) Zerbaiten kostubidez egindako eskuraketaren ondoriozkoak izatea.

b) Entitate eskuratzailerak ez du egon behar, eskualdaketa egin zuen pertsona edo erakundeari dagokionez, 28. artikulua ezartzen dituen kasuetariko batean edo bestean. Baldintza hori ez da aplikatuko pertsona edo entitate eskualdatzailerak elementua eskuratzeko ordaindu zuen prezioari dagokionez, horrek pertsona edo entitate lokabengandik eskuratu badu.

2. Aurreko zenbakian aurreikusia dagoen urteko gehienezko muga ez da aterako intsuldaketa eskubideen kasuetan hamar urtetik beherako iraupeneko kontratuak aplikatzeagatik, orduan urteko gehienezko muga iraupen horren arabera kalkulatu bailitzateke.

3. Ibilgetu ezmaterialaren gainerako elementuak, aurreko 1. zenbakian ezarritako baldintzak betez gero, hamarrenen bidez amortizatuko dira egiazko amaitze datarik ez badute. Kontrako kasuan, elementu horien onura aldia hartuko litzateke kontuan.

4. Amortizazioa hasiko da aktiboa errentak sortzen hasten den unean.

16. artikulua. Amortizazio askatasuna.

1. Era askean honakoak amortiza daitezke:

a) Ibilgetu material eta ezmaterialaren elementuak, eraikinak izan ezik, elementu horiek ikerketa eta garapenerako jardueri lotuak badaude.

Eraikinak zati berdinetan amortiza daitezke hamar urteko epean, ikerketa eta garapenerako jardueri lotuta dauden zatian.

b) Ibilgetu ezmaterial modura aktibatutako ikerketa eta garapenerako gastuak, amortizazio askatasuna duten elementuen amortizazioak izan ezik.

c) Apirilaren 25eko 15/1986 Legeak araututako Lan Sozietate Anonimoen ibilgetu material eta ezmaterialaren elementuak, elementu horiek beren jarduerak burutzeari lotuta badaude eta elementutzat hartu ziren egunetik lehendabiziko bost urteetan eskuratu badira eta, beti ere, amortizazio askatasuna duten ekitaldietan Erreserbako Fondo Berezian lortutako mozkinen 100eko 25, gutxienez, horretarako erabiltzen badute.

d) Ibilgetu materialaren elementuak, horien balio unitarioa 100.000 pezetatik gorakoa ez bada eta zergaldi bakoitzean gehienez ere 2.000.000 pezetako muga arte.

e) Arauz ezartzen diren elementuak.

2. Amortizazioaren kontabilitate egozketa egiten den ekitaldien zerga oinarria handituko da amortizazio horri dagokion zenbatekoan eta, hala behar denean, ondare elementua eskualdatzen bada, amortizazio eskubideari aplikatutako zenbatekoak kontabilitateari egotzitakoei kendu ondoren aterako den aldea sartuko da eta 36. artikuluan xedatutakoa ez zaie horiei aplikatuko.

III. KAPITULUA

Finantza errentamenduko kontratuak eta erosketa edo berrikuntzaren aukera duen erabilpena lagatzeko kontratuak

17. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak.

1. Artikulu honen ondorioetarako, finantza errentamenduko kontratutzat hartuko dira xede hau soilik dutenak: etorkizuneko erabiltzailearen ezaugarrien arabera helburu horretarako eskuratu diren ondasun higigarri edo higiezinaren erabilpenaren lagapena, hurrengo zenbakiko b) letran aipatzen den kontraprestazio baten, hau da, kuotak periodikoki ordaintzearen truke, beti ere laga diren ondasun horiek erabiltzaileak bakar bakarrik bere ustiategi ekonomikoetan erabiltzen baditu. Finantza errentamenduko kontratuan sartuko da nahitaz erosteko aukera, alegia, erabiltzaileak kontratua bukatu ondoren izanen duena.

Edozer dela kausa, erabiltzaileak ez badu kontratuaren xede den ondasun hori eskuratzen, errentatzaileak beste erabiltzaile bati laga diezaioke eta aurreko lerroaldean ezarri printzipio hori ez da urratutzat joko, ondasun hori beste erabiltzaile horren ezaugarrien arabera eskuratu ez bada ere.

2. Artikulu honetan ezarri den araubidea aurreko 1. zenbakian aipatzen den finantza errentamenduko kontratuei aplikatuko zaie, ondotik ematen diren beharkizun eta baldintzak betetzen badituzte:

a) Gutxienezko iraupena bi urtekoa izanen da, horien xedea ondasun higigarriak badira, eta hamar urtekoa, horien xedea ondasun higiezinak edo establezimendu industrialak badira. Hala ere, arau bidez ezarri ahal izanen dira beste epe batzuk, aurreko horiek baino txikiagoak, alegia.

b) Finantza errentamenduaren kuotak kontratuetan adierazita agertu beharko dira desberdinduz, entitate errentatzaileak ondasunaren kostuaren berreskuratzeari dagokion zatia, erosteko aukeraren balioa baztertuta, eta horrek galdatzen duen finantzazama.

c) Ondasunaren kostuaren berreskuraketari dagokion finantza errentamenduaren kuoten zatiaren urteko zenbatekoak berdin jarraitu behar du, edo bestela kontratu aldian zehar izaera hazkorra izanen du.

3. Dena den, entitate errentatzailearendako zergatik ken litekeen gastutzat joko da:

a) Entitate horrek jasandako finantzazama.

b) Ondasunaren kostuaren berreskuraketari dagozkion finantza errentamenduaren kuotak, kontratuaren xedea aktibo ez-amortizagarriak direnean izan ezik. Baldintza hori eragiketaren xede den ondasunaren zati batean bakarrik gertatzen bada, bakarrik ken daiteke amortiza daitezkeen elementuei dagokien proportzioa, behar den kontratuan bereizita agertu behar duena.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren arabera, ken daitekeen zenbatekoa ez da ondasunaren kostuari aipatu ondasun horri dagokion amortizazio linealaren gehieneko koefizientea halako bi aplikatu ondorengo emaitza baino handiagoa izanen, ofizialki onetsitako amortizazio taulen arabera. Soberakina hurrengo zergaldietan kendu ahal izanen da, aipatu muga horren barnean. Muga hori kalkulatu ahal izateko, ondasuna abian jartzeko unea hartuko da kontutan.

Aurretik errentariak errentatzaileari ondasuna zuzenean edo zeharka eskualdatu badio, lagapen hartzaileak ondasun hori amortizatzen segituko du eskualdaketa gauzatu aurretik zituen baldintza eta balio berberetan.

4. Entitate errentatzaileak, ondasunaren erosketa prezioa edo ondasun horren ekoizpen kostua amortiza ditzake, eragiketa horrek indarra duen epean.

18. artikulua. Erabiltzeko lagatuko ondasunak.

1. Ondasunen erabilera lagatzeko kontratuetan, erosi edo berritzeko aukera dagoenean, kontratu horiek aurreko artikuluan aipatutakoak ez badira, eragiketaren baldintza ekonomikoak direla kausa aukera bat edo beste bat erabiltzeko funtsezko dudarik ez dagoela, entitate lagapen hartzaileak ondasun horiei legezkiekeen amortizazio kuoten zenbatekoa kenduko du, ondasun horiek beren ustiategi ekonomikoei bakarrik atxikita badaude; hori guztia, amortizazio linealeko koefizienteak aplikaturik eta ofizialki onetsitako amortizazio taulen arabera.

Entitate lagapen hartzaileari dagokionez, entitate lagatzaileak ordaindu beharreko kopuruen eta ondasun horren erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren arteko diferentzia, lagapenaren

epearen barnean sartutako zergaldien artean banatu beharreko gastua izanen da.

2. Aukera bat edo bestea erabiltzeko funtsezko dudarik ez dagoela usteko da, bere ekitaldiagatik ordaindu beharreko zenbatekoa, lagapenak irauten duen bitartean ondasunari legezkiekeen amortizazio kuoten baturan ondasunaren erosketa prezio edo ekoizpen kostua murriztetik ateratzen den zenbatekoa baino txikiagoa denean.

3. Aurretik lagapen hartzaileak lagatzaileari ondasuna zuzenean edo zeharka eskualdatu badio, lagapen hartzaileak ondasun hori amortizatzen segituko du eskualdaketa gauzatu aurretik zituen baldintza eta balio berberetan.

4. Artikulu honetan ezarritakoa aplikagarri denetan, entitate lagatzaileak amortizatuko du ondasunaren erosketa prezioa edo ekoizpen kostua eragiketak indarra duen bitartean.

IV. KAPITULUA **Baliogaleragatiko dotazioak,** **arriskuak eta gastuak**

19. artikulua. Zordunek izan ditzaketen kaudimengabetsunak estaltzeko dotazioak.

1. Zordunek izan ditzaketen kaudimengabetsunak eratorritako arriskua estaltzeko dotazioak kengarriak izanen dira, Zergaren sortzapenaren unean egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Betebeharraren mugaegunetik urtebeteko epealdia iragan bada.

b) Zorduna, porrotean, hartzekodunen konkurtuan, ordainketa etenduran, kita eta itzaroteko prozeduran edo antzeko egoeretan dagoela aitortzen bada.

c) Zorduna edo, hori entitatea bada, berorren administratzaile edo ordezkarien artekoen bat, ondasunak altxatzeagatiko delitua dela eta prozesatua badago.

d) Betebeharrak judizio bidez erreklamatuak izatea, edo auzibide edo tartekaritza prozeduraren xede izanik, haien kobrantza ebazpenaren menpe badago.

2. Ez dira kengarriak izanen ondoren aipatuko diren kredituei dagozkien dotazioak, horien izatearen edo zenbatekoaren gaineko tartekaritza prozedura edo auziaren xede ez badira:

a) Zuzenbide publikoko entitateek zor utzitakoak.

b) Zuzenbide publikoko entitateek, kredituek edo elkarrekiko bemesozietateek fidantzan

emanikoei dagozkienak, fidantzan emaniko zenbatekoan.

c) Benetako izaerako edozein bermek aseguratutakoak, bermea bera galtzean edo balioa galitzen duenean izan ezik.

d) Kreditu aseguru edo kaudimen kontratuaren bidez bermatutakoei dagozkienak, bermatutako zenbatekoan.

e) Berriztaketa edo luzamendu berariazkoaren xede izan direnak.

Ez dira kengarriak izanen hartzekodunarekin loturarik duten pertsona edo entitateek izan ditzaketen kaudimengabeziek eratorritako arriskua estaltzeko dotazioak, judizio bidez aitortutako kaudimengabezieta salbu, ezta bezero eta zordunen kaudimengabezien arriskuaren zenbatespen orokorretan oinarritutako dotazioak ere.

3. Espainiako Bankuaren administrazio zaintzaren menpe dauden finantza entitateei dagokienez, horretarako eman diren xedapen bereziak ezarriko dira.

20. artikulua. Baliogalerengatiko dotazioak.

1. Bigarren mailako merkatu antolatuan kotizatzen ez duten entitateen fondo berekien partaidetzaren ezaugarri diren baloreen baliogaleragatiko dotazioaren ziozko kenkariak ez du gaindituko ekitaldiaren hasierako eta itxierako kontabilitateko balio teorikoen arteko diferentzia, kontuan hartuko direla ekitaldi horretan egin diren ekarpenak zein ekarpenen itzulketak eta ez direla aipatu baliogalera horren ondorioetarako banatutako mozkinak konputatuko.

Irizpide bera aplikatuko zaie merkataritzako legeriari jarraikiz taldeko sozietateen edo sozietate elkartuen kapitaleko partaidetzei, bigarren mailako merkatu antolatuetan kotizaziora onartutako baloreak badira ere.

Zenbaki honetan aipatzen den diferentzia hori zein den zehazteko, sozietate partehartzailearen azkeneko bi balantzeak hartuko dira kontutan, zergaldia bukatu aurretik edo bukatzearekin batera itxi badira.

2. Ez dira kontuan hartuko ondorengo balore hauei dagozkien dotazioak:

a) Subjektu pasiboaren beraren kapital sozialaren adierazgarriak.

b) Arau bidez paradisu fiskaltzat jotzen diren herri edo lurraldeetan egoitza duten entitateetako partaidetzari dagozkionak, entitate horiek beren kontuak dotazioa egiten duen entitatearekin bate-

ratzen dituztenean izan ezik, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua araberera.

3. Kengarriak izanen dira bigarren mailako merkatu antolatuetan kotizatzeke onartuak diren errenta finkoko baloreen baliogalerarengatiko dotazioak, subjektu pasiboak dituen eta merkatu horietan kotizatzeke onartuak diren errenta finkoko balore multzoak zergaldian jasandako baliogalera osoaren mugarekin.

Ez dira kengarriak izanen, bigarren mailako merkatu antolatuetan kotizatzeke onartu ez diren edo arau bidez paradisu fiskaltzat hartzen diren herri edo lurraldeetan kokatzen diren bigarren mailako merkatu antolatuetan kotizatzeke onartuak diren eta berreskuraketa balio zehatza duten baloreen baliogalerarengatiko dotazioak.

21. artikulua. Argialetxeen fondoan eta fondo fonografiko eta ikusentzunezkoen baliogalerarengatiko dotazioa.

Kengarriak izanen dira argialetxeen fondoan eta fondo fonografiko eta ikusentzunezkoen baliogaleraren murrizketaren estaldurarako dotazioak, ekoizpen jarduera horiek egiten dituzten entitateendako, behin horien ekoizpenak merkatuan jarri ondoren bi urte igaro eta gero. Epealdi hori amaitu aurretik ere kengarriak izanen lirateke, baliogalera frogatuz gero.

22. artikulua. Arrisku eta gastuetarako horniduren dotazioak.

1. Ez dira kengarriak izanen aurreikus daitezkeen arriskuen, inoizkako galeren eta egin daitezkeen gastu eta zorren estaldurarako dotazioak.

2. Aurreko zenbaki horretan ezarritakoa edozer izanik ere, kengarriak izanen dira:

a) Konponketen eta berrikuspenen bermeen estaldurarako dotazioak, horniduraren saldoa zehazteko beharrezkoa den zenbatekoraino; saldoak ez du izan behar zergaldiaren amaierako berme biziduneko salmentei zergaldi horretan eta aurreko bietan, zergaldi horietan egindako berme-dun salmentei dagokienez, egon diren bermeei aurre egiteko egin diren gastuak ageri izan diren proportzioak zehaztutako portzentaia aplikatzearen emaitza baino handiagoa.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa salmenten itzulketengatiko gastu osagarrien estaldurarako dotazioei ere aplikatuko zaie.

Sorkuntza berriko entitateak, jarduera berriak hasten dituzten entitateak edo beren jarduerak hiru ekitaldi igaro gabe berriz hasten dituztenak baleude, letra honen lehenengo lerroaldean finkatutako portzentaia, entitateak eragiketarako egin

dituen ekitalditik edo ekitaldietatik ateratzen den emaitza izanen litzateke.

b) Bidean dauden auziek eragindako edo egokiro frogaturiko kalteordain nahiz ordainketek eratorritako erantzukizunei dagozkien dotazioak, horien zenbatekoa behin betiko ezarria ez bada.

c) Lehengoratu beharreko aktiboak berreskuratzeko dotazioak, emakidan ezarritako baldintzen arabera, amortizagarriak diren elementuen amortizazioaren kalterik gabe, lehengoratzeko fondoaren saldoa eta lehengoratzeko unean aktiboak duen kontabilitateko balioa bat izan daitezen eran, hori hartzeko entitate emaileak eskatzen dituen konponketen zenbatekoa barne dela.

d) Itsas arrantzan, eta itsas eta aire nabigazioan diharduten enpresek untxi eta aireuntziei nahitaez egin behar dizkieten berrikuspenen ondorioz egin behar diren konponketa handien hornidurarako dituzten dotazioak.

e) Aurreko letran ezarritakoez bestelako ondare elementuen aparteko konponketen eta aldi baterako ustiategi ekonomikoak uzteagatiko gastuen estaldurarako dotazioak, beti ere subjektu pasiboak formulatu eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak onartu duen planari badagozkie.

Arau bidez ezarriko da formulatzen diren planak ebazteko prozedura.

f) Entitate aseguratzaileek egiten dituzten hornidura teknikoetarako dotazioak, ezarriko diren arauak ezarritako gutxienezko muntzen zenbatekoraino.

Kobratu gabeko sari eta kuotetarako hornidurarako dotazioa bateraezina izanen da, saldo beretarako, zordunek eduki ditzaketen kaudimengabezien estaldurarako dotazioarekin.

g) Elkarrekiko berme sozietateek hornidura teknikoaren fondora egin dituzten dotazioak, bere galera eta irabazien kontuaren kargura.

Ez dira sartuko zerga oinarrian administrazio publikoek elkarrekiko berme sozietateei emandako dirulaguntzak, ezta dirulaguntza horiek eratorritako errentak ere, bai batzuk eta bai besteak hornidura teknikoaren fondorako direnean.

Letra honetan ezarritakoa birfinkapeneko sozietateei ere ezarriko zaie, 1/1994 Legeak, martxoaren 11koak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzkoak, 11. artikuluan ezartzen duenaren arabera euren sozietate helburua osatu behar duten jardueri dagokienez.

23. artikulua. Pentsio planei egindako kontribuzioak eta antzeko gertakizunak estaltzekoak.

1. Kengarriak izanen dira 8/1987 Legean, ekainaren 8koan, Pentsio plan eta Fondoei buruzkoan, araupetzen diren pentsio planen sustatzaileen kontribuzioak. Kontribuzio horiek partaide bakoitzari egotziko zaizkie, norberari dagokion zatian.

2. Era berean, kengarriak izanen dira pentsio planen antzeko gertakizunen estaldurarako kontribuzioak, honako beharkizunok betetzen badituzte:

a) Prestazioak lotzen zaizkien pertsoneri zergetarako egozteak.

b) Etorkizuneko prestazioak hartzeko eskubi-dea era ezeztazinean eskualdatzea.

c) Kontribuzio horiek diren baliabideen titular-tasuna eta kudeaketa eskualdatzea.

3. Ez dira kengarriak izanen, zein zergalditan egiten diren, hartan, Pentsio Plan eta Fondoek ekainaren 8ko 8/1987 Legearen xede diren gertakizun beretsu edo antzekoen estaldurarako aurreikuspenei edo barne fondoek egindako dotazioak.

V. KAPITULUA

Zergetan kendu ezin diren gastuak

24. artikulua. Zergetan kendu ezin diren gastuak.

1. Orokorki, gastuak ez dira zergetatik ken litezkeenak izanen dirusarrerekin erlazio berean ez badaude.

Bereziki, honako hauek ez dira zergetatik ken litezkeenak izanen:

a) Fondo berekien ordainketa zuzena edo zeharkako direnak.

b) Sozietateen gaineko Zerga kontabilizatzeak eratorriak. Ez dira sarreratzat hartuko kontabilizazio horretatik datozenak.

c) Zigor eta administrazio isun eta zehapenak, premiamendu errekarua eta aitorten likidazioak eta autolikidazioak epe zehar aurkezteagatiko errekarua.

d) Jokoko galerak.

e) Dohaintzak eta eskuzabaltasunak, artikulua honen 2. zenbakian eta fundazioen eta babesle-tza jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean xedatutakoa deusetan kaltetu gabe.

f) Arau bidez, beren izaera dela eta, paradisu fiskaltzat hartzen diren herri edo lurraldeetan egoi-

tza duten pertsona edo entitateekin, zuzenean edo zeharka, egindako eragiketei dagozkien zerbitzu gastuak, edo paradisu fiskal horietan egoitza duten pertsona edo entitateen bitartez ordaintzen direnak, salbu eta subjektu pasiboak frogatzen badu sortutako gastua justifikatutako arrazoi ekonomikoengatik benetan egindako eragiketa edo transakzio bati erantzuten diola.

Nazioarteko zerga gardentasunari dagozkion xedapenak ez dira aplikatuko zergetatik ezin kendu diren gastuen errentei dagozkienez.

2. Kengarriak izanen dira dohaintzan ematen diren ondasunen kopuru ordainduak eta kontabilitateko balioa, honako entitate dohaintza hartzaileek berezkoak dituzten helburuen lorpenari aplikatu ahal bazaizkio:

a) Lurraldeko industri garapenerako sozietateak.

b) Nafarroako federazioak, Espainiako federazioak, autonomi mailako federazioak eta kirol klubak, kirol jarduera ez profesionalen sustapen eta garapenerako sozietate anonimoengandik hartu dituzten kopuruei dagokienez, beti ere entitate horien artean aipatutako kirol federazio eta klubak helburua lortzeko beharrezkoa den kontratu bidezko eta kostubidezko lokarria ezarri denean soilik. Letra honetan xedatutakoa aplikagarri izanen zaie, era berean, Kirolaren urriaren 15eko 10/1990 Legearen zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan agertzen diren klubei.

Zenbaki honetan aipatzen diren eskualdaketak ez dute zehaztuko entitate eskualdatzailearentzat errenta positibo edo negatiboen lorpena, 33.1 artikuluan ezartzen direnena.

Zenbaki honetan xedatutakoa ulertuko da 16.2 artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

VI. KAPITULUA Balorazio erregelak

25. artikulua. Erregela orokorra.

Ondare elementuak eskuraketa prezioan edo ekoizpen kostuan baloratuko dira.

Irabazi asmoko eskuraketak direnean, eskuraketa prezioztat hartuko da ondare elementu horien merkatuko balioa.

Kontabilitateko birbaloraketan zenbatekoa ez da zerga oinarrian sartuko, zenbatekoa kontabilitateko emaitzan sartzen behartzen duten legezko edo erregelamenduzko arauak direla bide bururazten direnean izan ezik. Zerga-oinarrian sartu gabeko birbaloraketaren zenbatekoak zergaren ondorioetarako ez du elementu birbaloratuen balio

handiagorik ekarriko; elementu horiek, 79. artikuluan xedatutakoaren arabera, Memorian egon beharko dute.

26. artikulua. Erregela bereziak.

1. Hurrengo ondare elementuak beren merkatuko balio normalean baloratuko dira:

a) Irabazi asmoz eskualdatutakoak.

b) Entitateei ekarrikoak eta kontraprestazioan hartutako baloreak.

c) Bazkideei, sozietatearen desegitean, bazkideen banaketan, ekarpenen itzulketarekin egiten diren kapital murrizketetan, jaulkipen sariaren banaketan, eta mozkinen banaketan eskualdatutakoak.

d) Bategite eta zatiketa oso edo partziala direla bide eskualdatutakoak.

e) Trukaketetan eskuratutakoak.

f) Trukean edo bihurtetan eskuratutakoak.

2. Entitateak desegin edo bazkideak banatzen direnean, horien zerga oinarrian sartuko da hartutako elementuen merkatuko balio normalaren eta partaidetza deuseztatuaren kontabilitateko balioaren arteko diferentzia.

3. Ekarpeneen itzulketarekin egiten den kapital murrizketan bazkideen zerga oinarrian sartuko da partaidetzaren kontabilitateko balioaren gainetik hartutako elementuen merkatuko balio normalaren soberakina.

Erregela bera aplikatuko da akzio eta partaidetzen jaulkipensariaren banaketan.

Ekarpeneen itzulketaz bestelako helburua duen kapital murrizketak ez ditu ekarriko bazkideentzat zerga oinarrian sar daitezkeen errentak, positiboak zein negatiboak.

4. Mozkin banaketan, bazkideen zerga oinarrian sartuko da hartutako elementuen merkatuko balio normala.

5. Bategite eta zatiketa oso edo partzialean, bazkideen zerga oinarrian sartuko da hartutako elementuen merkatuko balio normalaren eta partaidetza deuseztatuaren kontabilitateko balioaren arteko diferentzia.

6. Sozietate gardenen kapitaleko akzioen eta beste partaidetzen eskualdaketan, eskuraketaren balioa sozietate mozkinen zenbatekoan gehituko da, mozkinon banaketa eraginkorrik gabe, bazkideei eskuratzetik eskualdaketarako denboraldian euren akzio edo partaidetzen errenta gisa egotzi bazaizkie.

Ondasunen ukantza hutserako sozietateetan, zenbatu beharreko eskualdaketa balioa, gutxienez, onetsitako azken balantzearen emaitza teorikoa izanen da, behin higiezinaren kontabilitateko balioaren ordean Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako edukiko luketen balioa edo txikiagoa bada, merkatuko balio normala atera ondoren.

7. Norberaren akzio edo partaidetzen eskuraketak eta amortizazioak ez dute ekarriko, entitate eskuratzailerentzat, errenta positibo zein negatiborik.

8. 33.2 artikuluan ezarritako integrazioaren kalteetan izan gabe, bazkideen zerga oinarrian, integrazio hori, artikulua honetan aipatu hori, eskualdaketa zein zergalditan egiten diren, hartan eginen dira.

27. artikulua. Monetabaliogalera zuzentzea.

Zerga-oinarrian ibilgetu material edo ezmaterialaren ondare elementuen eskualdaketa lortu diren errenta positiboak sartzeko, errenta horien mugaraino haxe kenduko da: arauz ezarriko den moneta baliogaleraren zenbatekoa, honako erregelen arabera kalkulatu:

a) Eskualdatutako ondare elementuen eskuraketa prezioa eta ekoizpen kostua eta horiei dagozkien amortizazio metatuen zenbatekoa biderkatuko dira, arauz ezartzen den eran eta koefizienteengatik, ondare elementu horiek zergetatik ken litezkeenak izanik.

b) Aurreko letran ezarritakoa aplikatzeak zehazten dituen kopuruen arteko diferentzia, eskualdatutako ondare elementuaren kontabilitateko balio garbian gutxiagotuko da.

c) Eragiketa horretatik eratorritako zenbatekoa koefiziente zehatz batekin biderkatuko da:

a') Zenbatzailean: fondo berekiak.

b') Izendatzailean: pasibo osoa ken kreditu eskubideak eta diruzaintza.

Koefizientea zehazten duten magnitudeak izanen dira, eskualdatutako ondare elementuaren ukantzaldian edo eskualdaketa egunaren aurreko bost ekitaldietan izandakoak, azkeneko epe hori txikiagoa bada; eta subjektu pasiboak nahi duena aukeratuko du.

28. artikulua. Balorazio erregelak: eragiketa lotetsiak.

1. Zerga Administrazioak, preskripzio epearen barruan, pertsona edo entitate lotetsien artean egindako eragiketak berauen merkatuko balio normalean baloratu ahal izanen ditu, pertsona edo

entitate lotetsiak kontuan hartuta, balorazioak, Nafarroako Ogasun Publikoan, egokituko litzaiokeen zerga ordainketa baino txikiagoa zehaztu duenean, merkatuko balio normala aplikatzeagatik edo zerga ordainketa horren geroramenduagatik egokituko litzaiokeena baino txikiagoa, hain zuzen.

Administrazio balorazioaren emaitza den tributu zorra, ondorio guztietarako, berandutza korrituen kalkulua eta preskripzio epearen zenbaketa barne direla, pertsona edo entitate lotetsiekin eragiketek egin diren zergaldiari egotziko zaio.

Administrazioaren balorazioak ez du ekarriko zerga honetan eta, kasua bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, eragiketa egin duen pertsona edo entitate multzoarentzat horretatik benetan eratorritako errentatik gora ordaintzea.

2. Foru Lege honen ondorioetarako, honakoak joko dira pertsona edo entitate lotetsizat:

a) Sozietate bat eta horrek dituen bazkideak, kontseilariak eta administratzaileak, baita horien ezkontideak eta horien aurreko eta ondorengoak ere.

b) Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, sozietate talde beraren zati izateko eskatzen diren inguruabarrak betetzen dituzten sozietate bi, ondorio hauetarako, horren 43. artikuluan baztertzeak ezartzen diren kariak ezin izanen direla aplikatu.

c) Sozietate bat eta beste sozietate bateko bazkideak, kontseilariak edo administratzaileak, sozietate biak Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan definitzen den sozietate talde berekoak badira, ondorio hauetarako, horren 43. artikuluan baztertzeak ezartzen diren kariak ezin izanen direla aplikatu.

d) Sozietate bat eta zeharbidez honek partaidetza dueneko beste sozietate bat, partaidetza, gutxienez, sozietate kapitalaren 100eko 25ekoa izanen dela.

e) Sozietate bi, bazkideek eurek edo ezkontideek, aurrekoek edo ondorengoek, zuzenean edo zeharka, kapital sozialean 100eko 25eko partaidetza dutela.

f) Espainiar lurraldean egoitza eta atzerrian establezimendu iraunkorrak dituen sozietate bat.

g) Sozietate kooperatiben taldeentzako araubidean zerga ordaintzen duen taldearen parte diren entitate bi.

h) Sozietate bi, batak bestearen gaintik erabakitzeko ahala erabiltzen duenean.

Lotura bazkide sozietate harremanak oinarri izanik definitzen denean, partaidetzak 100eko 5ekoa edo hortik gorakoa beharko du izan, 100eko 1ekoa edo hortik gorakoa bigarren mailako merkatu ofizialean kotizatzen duten baloreei dagokienez.

Zenbaki honen ondorioetarako Merkataritzako Kodearen 42. artikulua aipatzen duen sozietate taldea, 1815/1991 Errege Dekretuak, abenduaren 20koak, onetsi zituen urteko kontu bateratuen formulaziorako arauen I. kapituluaren 1. sekzioan azaltzen dela ulertuko da.

29. artikulua. Lotetsitako pertsonen edo entitateen arteko zenbait gasturen kenkaria.

1. Pertsona edo entitate lotetsi batek ikerketa eta garapenerako egiten dituen jardueretarako kontribuziorako gastuen kenkaria egiteko, honako beharkizunok bete beharko dira:

a) Eskagarriak izanen dira, kontratu idatzia dela bidez; kontratu hau aurretiaz eginen da, eta bertan, egin beharreko proiektua edo proiektuak identifikatuko dira, gainera kontratuak proiektuon emaitzak erabiltzeko eskubidea emanen duela.

b) Ikerketa eta garapenerako jarduera egiten duen entitateak benetan eutsi behar izan dien gastuen banaketarako irizpideak, kontribuzioak egiten dituzten entitateek proiektuaren edo proiektuon emaitzak erabiltzeko duten eskubidearen edukiarekin zentzuz bat etor daitezela.

2. Pertsona edo entitate lotuen artean kudeaketaren laguntzarako egiten diren zerbitzurako gastuen kenkaria, zenbatekoa kontratu idatziaren bidez ezarri behar baldintzatuko du; kontratu hau aurretiaz eginen da eta horren bidez zerbitzuak egiten dituen entitateak horretarako egindako gastuen banaketarako irizpideak finkatuko dira. Kontratu horrek honako beharkizunak bildu beharko ditu:

a) Egin beharreko zerbitzuen izaera zehaztuko du.

b) Gastuak banatzeko metodoak ezarriko ditu, iraupena eta zentzua irizpide izanen dituela.

30. artikulua. Administrazioari proposatzea lotutako eragiketak baloratzea.

Subjektu pasiboek Zerga Administrazioaren pean pertsona edo entitate lotuen artean egiten diren eragiketen baloraziorako proposamena jarri ahal izanen dute, eragiketok egin aurretik. Propo-

samen hori merkatuko balio normalean oinarrituko da.

Proposamenean aurreko artikuluan aipatzen diren gastuak ere azal daitezke.

Proposamenaren onesprenak ondorioak ekarriko ditu onspen horren egunaz geroztik hasten diren eragiketei dagokienez, beti eragiketok onetsitako proposamenean ezarritakoaren arabera egiten badira, eta hiru zergalditarako balioagarritasuna izanen du.

Proposamena onetsi den inguruabar ekonomikoaren aldakuntza adierazkorra izatekotan, berori ere inguruabar ekonomiko berriei egokitzeko alda ahal izanen da.

Arau bidez ezarriko da eragiketa lotuen balorazio proposamenean ebazpenerako prozedura; behin ebazteko epea igaro ondoren, ezetsizat jo daitezke.

31. artikulua. Balorazio erregelak: paradisu fiskaletan egoitza duten pertsonen edo entitateen edo pertsonekin edo entitateekin egiten diren eragiketak eta espainiatik kanpoko egoitza aldaketak.

1. Zerga Administrazioak, arau bidez, paradisu fiskaltzat hartzen diren herri edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin egindako eragiketak merkatuko balio normalean baloratu ahal izanen ditu, hitzartutako balorazioak, Nafarroako Ogasun Publikoan, zerga ordainketa, merkatuko balio normala ezartzeagatik edo zerga ordainketa horren geroramenduagatik egokituko litzaiokeena baino txikiagoa zehaztu duenean.

2. Zerga-oinarriari sartuko da merkatuko balio normalaren eta egoitza espainiar lurraldetik kanpo lekualdatzen duen entitate baten jabetza diren ondare elementuen kontabilitateko balioaren arteko diferentzia, ondare elementu horiek entitate horrek espainiar lurraldean duen establezimendu iraunkor bati lotuak geratu izan ezik. Kasu honetan ondare horiei 135. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

32. artikulua. Merkatuko balioa zehaztea.

1. Foru Lege honen ondorioetarako, merkatuko balioetat hartuko da alde independienteek beren artean merkatuko ohiko baldintzetan erabakiko luketena.

2. Merkatuko balioa zehaztu ahal izateko, Zerga Administrazioak metodo hauek erabiliko ditu:

a) Behar den ondasun edo zerbitzuaren edo antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuen mer-

katuko prezioa, honako honetan, baliokidetasun hori lortzeko beharrezkoak diren zuzenketak egiten direla, baita eragiketaren berezitasunak kontuan hartzekoak ere.

b) Osagarri gisa, aplikagarriak izanen dira:

a) Ondasun eta zerbitzuen salmenta prezioa, horien erosketa balio edo ekoizpen kostua gehituaz, pertsona edo entitate independenteekin hitzartutako eragiketa antzekoetan subjektu pasiboak normalean lortzen duen marjinean edo pertsona edo entitate independenteekin hitzartutako eragiketa antzekoetan sektore berean ari diren enpresek normalean lortzen duten marjinean.

b') Ondasun eta zerbitzuak berriro saltzean duten prezioa, horien erosleak berak ezarria, pertsona edo entitate independenteekin hitzartutako eragiketa antzekoetan erosle horrek normalean lortzen duen marjinean gutxiturik edo pertsona edo entitate independenteekin hitzartutako eragiketa antzekoetan sektore berean ari diren enpresek ohikotasunez lortzen duten marjinean; azken hau hala bada, aipatu ondasun eta zerbitzuak eraldatzeko erosle horrek jasan behar izan dituen kostuak ere kontuan hartuko dira.

c) Aurreko metodo bakar bat ere aplikagarri ez denean, behar den eragiketaren emaitza batuaren banaketak eratorritako prezioa aplikatuko da eta kontuan hartuko dira onartutako arriskuak, ukitutako aktiboak eta aipatu aldeek dituzten eginkizunak.

3. Merkatuko balio normalaren arabera balorazioa egiteko prozedura arauz ezar daiteke.

33. artikulua. Kontabilitateko balioaren ordezkari merkatuko balio normala jartzearen ondorioak.

1. Ondare elementu bat edo zerbitzu bat zergaren ondorioetarako merkatuko balio normalean baloratu direnean, entitate eskualdatzaileak eskualdaketa zein ekitalditan egiten den haren zerga oinarrian balio horren eta eskualdatutako elementuen kontabilitateko balioaren arteko diferentzia sartuko du eta, hala behar denean, 27. artikuluan xedatutakoa aplikagarri izanen zaio.

26. artikuluko 1. zenbakiko e) eta f) letretan aipatzen diren balizkoetan, eskuratutako elementuek merkatuan duten balio normalaren eta entregatutakoek kontabilitatean duten balioaren arteko diferentzia sartuko da, salbu eta eragiketa horrek akzio edo partaidetzen balio nominala aldatu besterik egiten ez badu, akziodunen partaidetza koefizientea aldatu gabe eta ekarpenen berrizulketa gertatu gabe.

Zenbaki honetan xedatutakoa ezarriko da 26. artikuluan bazkideendako ezarri erregela bereziak aplikatzeko aukera deusetan kaltetu gabe.

2. Bestalde, entitate eskuratzailak bere zerga oinarrian balio horren eta eskuraketa balioaren arteko diferentzia sartuko du, ondoko irizpideei jarraikiz:

a) Ibilgetua osatzen duten ondare elementu amortizagarriak badira, berauen iraupen baliagarriari geratzen zaizkion zergaldietan, diferentzia horri elementu horiei dagokienez erabiltzen den amortizazio metodoa ezarri, elementuok iraupen baliagarria amaitu aurretik eskualdatzen direnean izan ezik, orduan diferentzia eskualdatzen diren zergaldiko zergaoinarrian sartuko baita.

b) Ibilgetua osatzen duten eta amortizagarriak ez diren ondare elementuak badira, horiek eskualdatzen diren zergaldian.

c) Aktibo zirkulagarriaren ondare-elementuak direnean, haiek sarrera baten sortzapena dakarten zergaldian.

d) Zerbitzuak direnean, haiek hartzen diren zergaldian, salbu haien zenbatekoa ondare-elementu batean sartu behar denean, orduan segitu beharko baita aurreko letretan ezarritakoa.

3. Merkatuko balio normalaren eta eskurapen balioaren arteko aldea, aurreko zenbakiak aipatzen duena, adierazi beharko da memorian, alde hori zerga-oinarrian sartzen den arte.

VII. KAPITULUA

Aldi baterako egozketa

34. artikulua. Aldi baterako egozketa. Sarrera eta gastuen kontabilitateko inskripzioa.

1. Sarrerak eta gastuak sortzen diren zergaldian egotziko dira, horiek ordezkatzan dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontearen arabera, moneta edo finantzen korrontea gertatzen den unetik at, batzuen eta besteen arteko koerlazioa errespetatuz.

2. Aurreko zenbakian ezarri diren sarrera eta gastuez bestelakoak, subjektu pasiboak salbuespenez ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela lortzeko erabiltzen dituen horiek, aldi baterako egozteko irizpideen eraginkortasun fiskala, Merkataritzako Kodearen 34.4 eta 38.2. artikuluetan ezarritakoaren arabera, arau bidez zehazten den moduan Zerga Administrazioak onesteko geratuko da.

3. Ezin izanen dira zergatik kendu galera eta irabazien kontuan, edo legezko edo arautegiko arau batek hala ezartzen badu erreserba kontuan,

kontabilitateko eran egotzi ez diren gastuak, salbu era librean edo bizkorki amortiza daitezkeen ondare elementuei eta finantza-errentamenduko kontratuei buruz ezarritakoa.

Aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera, aldi baterako egozketa egin behar den zergaldiaz bestelakoan, kontabilitate bidez galera eta irabazien kontuan egotzi diren sarrera eta gastuak, dagokien zergaldian egotziko dira, zenbaki horietan ezarritakoarekin bat eginez. Hala ere, aldi baterako egozketa egin behar duen zergaldiaz geroztikoan, kontabilitate bidez galera eta irabazien kontuan egotzitako gastuak edo, kontu horretan aurretiko zergaldi batean egotzitako sarrerak badira, batzuen eta besteen aldi baterako egozketa kontabilitateko egozketa egin den zergaldian egingo da, beti horko horretatik aurreko zenbakietan ezarritako aldi baterako egozketarako arauak aplikatzeagatik egokituko litzatekeena baino zerga-ordainketa txikiagoa ateratzen ez bada.

4. Arau bidez, eta zerga-oinarria zehaztekoan bakarrik, emango dira arauak, aurreko 1. zenbakian ezarritakoa jarduera, eragiketa edo sektore zehatzei aplikatzeko.

35. artikulua. Aldi baterako egozketa. Arau bereziak.

1. Epekako edo prezio geroratuko eragiketetan, errentak, dagozkien kobrantzak egin ahala, proportzioz lortu direla ulertuko da, erakundeak sortzapearen irizpidea ezartzea erabakitzen duenean izan ezik.

Geroratutako zenbatekoen endosua, deskontua edo kobrantza aurreratua eginez gero, egotzi gabeko errenta momentu horretan lortuzat emango da.

Epekako edo prezio geroratuko eragiketatzat hartuko dira salmentak eta obren exekuzioak, berauen prezioa, osotasunean edo partzialki hurrenez hurreneko ordainketen edo ordainketa bakarraren bidez hartzen denean, ematearen eta azken epearen edo epe bakarraren mugaegunaren arteko denbora urtebetetik gorakoa izan denean.

Zenbaki honetan ezartzen dena, ukituriko errentei dagozkien sarrerak eta gastuak kontabilitatzeko era edozein izanik aplikatuko da.

2. Irabazteko asmoarekin egiten diren eskurapenetan, eskuratzailaren zerga-oinarrian sartuko da hartutako ondare-elementuen merkaturako balio normala, eskurapen horiek gertatzen diren zergaldian.

3. Pentsio Plan eta Fondoei buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Foru Legeak xede dituen gertakizunen pareko edo antzekoen estaldurarako hornidura eta barne-fondoetara egiten diren dotazioak, eta kendu ezin izan diren pentsio planen gertakizunen antzekoen estaldurarako kontribuzioak, prestazioak abonatzen diren zergaldian egotziko dira.

4. Balio-zuzenketaren xede izan diren ondare-elementuen balioaren berreskuraketa, hori gertatu den zergaldian egotziko da, bai zuzenketa egin zuen entitatean edo horrekin lotutako beste batean.

Erregela bera aplikatuko da ibilgetuaren ondare-elementuen eskualdaketatik etorritako galertan, elementuok eskualdatu ziren egunaren ondorengo urtebetean berriz eskuratuz gero.

5. Kapital-dirulaguntzen kasuan, dirulaguntza horren kargura finantzatutako ondare-elementua ezin bada amortizatu, edo amortizazioak hamar urtetik gorako epea eskatzen badu, dirulaguntza ematen denetik kontatzen hasita, kapital-dirulaguntzak kontatuko dira epe horretan hamarrenean egindako sarrera bezala.

VIII. KAPITULUA Berrinbertsioa

36. artikulua. Aparteko mozkinak zerga-oinarrian ez sartzea berrinbertsio kasu jakin batzuetan.

1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko, ibilgetu material edo ezmaterialaren ondare-elementuen kostubidezko eskualdaketan lortzen diren errentak, aipatu elementuak entitatearen ustiapen ekonomikoaren garapenari atxikiak daudenak izanik, errenta horiek moneta-baliogaleraren arabera egokitu ondoren, urte bat lehenagotik gutxienez eduki badira, baldin eta eskualdaketa horien zenbatekoa lehen aipatu den eta berdin atxikia den edozein elementutan berrinbertitzen bada, ondare-elementua eman edo eskura jarri aurreko urtearen eta ondorengo hiru urteen arteko epean inbertitu ere.

Egindako berrinbertsioaren zenbatekoa eskualdaketaren totala baino txikiagoa bada, zerga-oinarrian ez sartze horrek bakarrik hartuko du aipatu eskualdaketan lortutako errentaren zati proportzionala.

Aktibo materialeko ondare-elementuak direnean, berrinbertsioa egindakotzat hartuko da, aipatu elementuak funtzionatzen hasten diren egunean, eta aktibo ezmaterialeko ondare-elementuen kasuan, haiek eskuratzen diren egunean.

Numero honetan xedatutakoa ezin izanen da aplikatu, berrinbertsioak jotzen dituen ondare-elementuak aldez aurretik eskualdatu baditu entitate berrinbertsiogileak, edo lotetsitako entitate edo pertsona batengandik eskuratu badira, edo 17. eta 18. artikuluetan aipatzen diren elementuak badira.

Ezin izanen da numero honetan xedatutakoa aplikatu, ezta ere, besterendutako ondare-elementua erabiltzen badu gero entitate eskualdaztaileak.

2. Zerga pizgarri hau aplikatzeko, beharrezkoa izanen da berrinbertsioaren xede diren ondare-elementuek funtzionatzen irautea subjektu pasiboren instalazio beretan, salbu eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren baimen espresua bada 8. zenbakian xedatutakoaren arabera, 10 urtez, non eta ez dagoen justifikatutako galera edo bere bizi erabilgarria laburragoa ez den. Aipatu elementuak epe hori amaitu baino lehen eskualdatzen badira, sartu gabeko errenta sartu eginen da zerga-oinarrian, salbu eta eskuratutako zenbatekoa berrinbertitzen bada, 1. zenbakian ezarritako eran.

3. Ez dira ondare-elementu atxikitzat hartuko, haietaz baliatzeko hirugarrenei egin errentamendu edo lagapenaren xede direnak, salbu 155. artikuluko azkenaurreko lerroaldean xedatutakoa.

4. Ondare-elementuen materializazioa, aurreko 1. eta 2. zenbakietan ezarritakoaren arabera, bateraezina izanen da, ondare-elementu eta zenbateko berberentzat, zerga honetan ezarritako bestelako edozein zerga-onura edo pizgarrirekin, eta bereziki eskualdaketa zenbatekoa berrinbertitzen deneko ondare-elementuei aplikatzeko den amortizazio askatasunarekin.

5. Berrinbertsioa gauzatzen deneko ondare-elementuek agertu beharko dute balantzearen aktiboan, gainerako elementuetatik bereiz, gorabehera haren berri ematen duen epigrafe baten azpian, argi identifikatu ahal izateko moduan.

Era berean, urteko memorian islatu beharko dira besterentzearen zenbatekoa eta berrinbertitzeko hartu diren konpromisoak.

Subjektu pasiboak sartu beharko ditu zergaren aitortpenetan, berrinbertsioaren xede diren errenta eskuratuei eta hura gauzatzen deneko elementuei buruzko datu guztiak.

6. Berrinbertsioaren epea igarotzen bada hura gauzatu gabe, funtsean betetzen ez badira obligazio formalak edo materializazio baldintzak, aurreko zenbakietan adierazten den bezala, salbuespena hein batean edo erabat galdu eginen da, eta sub-

jektu pasiboak sartu beharko du, ez-betetze hori gertatzen den zergaldiari dagokionaren arabera Sozietateen gaineko Zergagatik aurkeztu behar duen aitortpenean, salbuespena aplikatu zen zergaldian egokitu zen kuota osoaren zenbatekoa, berandutzagatiko korrituez gainera, eta bidezko izan daitezkeen zehapenak baztertu gabe.

7. Artikulu honetan aipatzen den zerga-onura ez zaie aplikatuko 33. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren errentei.

8. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak berrinbertsio plan bereziak onesten ahalko ditu, haiek justifikatzen dituzten gorabehera jakin batzuk gertatzen badira.

Erregelamendu bidez ezartzen ahalko da formulatzen diren planak onesteko prozedura.

37. artikulua. Baloreen eskualdaketa apar- teko mozkinak zerga-oinarrian sartzea.

1. Zerga-oinarrian sartuko dira, artikuluhonetako 2. zenbakian xedatzen denaren arabera, zergako subjektu pasiboen kapital sozialeko edo fondoetako partaidetzaren zenbatekoa adierazten duten baloreen kostubidezko eskualdaketa lortzen diren errentak, subjektu horien kapital sozialaren gainean 100eko 5ekotik gorako partaidetza ematen dutenak eta urte bat lehenagotik gutxienez eduki badira, beti ere eskualdaketa horien zenbatekoa berrinbertitzen bada 3. artikuluan aipatzen diren subjektu pasiboen kapitalaren edo fondo propioen balore adierazgarrietan, edo aurreko artikuluan aipatu ondare-elementuetako edozeinetan.

Berrinbertsioa aipatu balore horietan materializatzen bada, materializatzeko hori egin beharko da eskualdaketa egunetik hasi eta urtebeteko epearen barrenean.

2. Errentaren zenbatekoa sartuko da, berrinbertsioa materializatzen den ondare-elementuen amortizazioaren hein berean, eta sartze hori ezin izanen da inola ere egin eskualdaketa gertatu eta ondorengo hamar urteetako zergaldiak amaitu eta gero.

Ondasun ez-amortizagarriak direnean, sartzea proportzionala izanen da, aurreko lerroaldeak aipatzen dituen zergaldietan.

Ondasun horiek eskualdatzen badira aurreko lerroaldeetan aipatu epea amaitu aurretik, zerga-oinarrian sartuko da sartu gabe gelditutako errenta zatia, non eta eskuratutako zenbatekoa ez den berrinbertitzen 1. zenbakian ezarritako eran.

3. Artikulu honetan espresuki aipatzen ez den orotan, aurreko artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, 4. zenbakikoa izan ezik.

IX. KAPITULUA Subkapitalizazioa

38. artikulua. Subkapitalizazioa

1. Entitate batek, finantza-entitateak salbu, espainiar lurraldean egoitza ez duten beste entitate batekin edo beste pertsona eta entitate batzuekin duen zor garbi ordainduak, zuzenak zein zeharbidekoak, 3ko koefizientea zerga-kapitalaren zifrari aplikatzetik ateratako emaitza gainditzen badu, gaindikinari dagozkion sortutako korrituak dibidendutzat joko dira.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatzeko, bai zor garbi ordaindua, bai zerga-kapitala, zergaldian zehar beren batez-besteko egoerara murriztuko dira.

Entitatearen beraren fondoan zenbatekoa zerga-kapitaltzat joko da, ekitaldiko emaitza sartu gabe.

3. Hitzarmen bat dagoenean ezarpen bikoitza eragozteko eta elkarrekikotasuneko baldintzan, subjektu pasiboek Zerga Administrazioaren pean jartzen ahalko dute, 30. artikuluan arabera, aurreko 1. zenbaki ezarritako koefizienteaz bestelakoa aplikatzeko proposamena. Proposamena, subjektu pasiboak merkaturako baldintza normaletan pertsona edo erakunde lokabeengandik bereganatuko zukeen zorrean oinarrituko da.

X. KAPITULUA Likidazio-oinarria

39. artikulua. Likidazio-oinarria.

1. Likidazio-oinarria aterako da zerga-oinarrian eginez 40. eta 41. artikuluetan aipatzen diren murrizketak.

2. Ekitaldi batean ezin izanen da inolaz ere egin ekitaldi hari dagokion likidazio-oinarri positiboa baino handiagoa den murrizketarik.

3. Harako 40. artikuluan ezarritako murrizketa egiten bada, kontsideratuko da ez dutela preskribitu likidazio-oinarri negatiboen zergaldiek, bakar-bakarrik kuantifikatzeko bidezko den murrizketa.

4. Murrizketarik egiten ez denean, zerga-oinarriak likidazio-oinarriaren balio bera izanen du.

XI. KAPITULUA Likidazio-oinarriaren murrizketak

1. Sekzioa

Likidazio-oinarri negatiboen murrizketa.

40. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboen murrizketa.

1. Likidazio-oinarri positiboa murrizten ahal da, aurreko zazpi urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio-oinarri negatiboen bidez.

2. Aurreko artikuluan aipatzen den likidazio-oinarri negatiboa gutxiagotuko da, kasua bada, eta gutxitze hori izanen da kenketa batetik ateratako alde positiboaren zenbatekoa, hain zuzen ere, bazkideek edozein titulurengatik egindako ekarpenen balioa, partaidetza eskuratuari dagokiona, ken haren eskurapenaren balioa eginez ateratzen dena, honako gorabehera hauek biltzen direnean:

a) Entitatearen kapital sozialean edo horren emaitzetan partaide izateko eskubideen gehien-goia, pertsona edo entitate batek edo pertsona edo entitate lotetsien talde batek eskuratzen badu, zerga-oinarri negatiboaren zergaldia amaitu eta gero.

b) Aurreko letrak aipatzen dituen pertsonak edo entitateek, zerga-oinarri negatiboaren zergaldia amaitzen den unean 100eko 25etik beherako partaidetza izan badute.

Nolanahi dela ere, eskabidea egin eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak onartuz gero, ez da likidazio-oinarri negatiboa gutxiagotuko, baldin eta, akziodunak aldatuagatik, lehen izandakoarekin zerikusia izan edo hartatik sortutako enpresa-jarduerak jarraitzen badu.

3. Sorkuntza berriko entitateek sortutako likidazio-oinarri negatiboek murrizten ahal dituzte jarraian datozen hurrengo zazpi urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga-oinarriak, denbora hori kontatzen hasita zerga-oinarria positiboa ateratzen den lehenbiziko zergaldiaren hasieratik.

Ez dira zenbaki honetan sartzen enpresa-ondorengotza edo jarraipen kasuak.

2. Sekzioa

Murrizketa, inbertsioetarako erreserba berezirako dotazioagatik

41. artikulua. Inbertsioetarako erreserba berezia.

1. Zerga-oinarriaren murrizketa egin daiteke, hain zuzen ere, ekitaldian lortutako kontabilitate onuratik datozenak izan eta inbertsioetarako erreserba berezi baterako destinatzen diren kantitateen 100eko 45ean, Sekzio honetan zehazten diren baldintzetan eta beharkizunak betez.

2. Murrizketa hau gehienez ere izanen da zerga-oinarriaren 100eko 40koa, oinarria gutxiagotu ondotik, aurreko artikulua aipatzen dituen likidazio-oinarri negatiboetan.

42. artikulua. Zenbatekoa eta materializazioa.

1. Inbertsioetarako erreserba bereziaren dotazioaren zenbatekoa gutxienez ere 25 milioikoa izan beharko da, ekitaldi ekonomiko batean, entitateak bere baliabideak beste horrenbeste haunditu beharko dituelarik, aurreko ekitaldiko gaintik, eta kopuru horretan mantendu haien erabateko materializazioaren ondorengo bost urtetan, non eta ez den urripenik gertatzen, kontabilitateko galerengatik.

2. Erreserba horretarako destinatzen den zenbatekoa materializatuko da bi urteko epearen barrenean, hura dotatzeko mozkinak eman zituen ekitaldia ixten denetik hasita, 43. artikulua aipatzen dituen ondare-elementuak eskuratzearekin.

Ondorio hauetarako ulertuko da materializazioa gauzatu dela ondare-elementua funtzionatzen hasten den zergaldian. Dena dela, elementua eskuratzeko eskaera irmoa egin eta jasotze efektiboa izan arte bi urtetik gora igarotzen badira, edo inbertsioaren ordainketa bi urtetik gorako epean egiten bada, kontatuko da zergaldi bakoitzean ordaindu den prezio-zatia.

3. Materializazioaren zenbatekoa osatuko da, alde batetik, hitzartutako kontraprestazioaren gutxirakoarekin, korrituak kenduta, eta, beste aldetik, zeharkako zergak, harako hartan kontatuko ez direnak, alde batera utzita nolakotzat hartzen diren aktiboen baloraziorako.

Era berean, kendu eginen da ondasun horiek berak eskuratzeko ematen diren dirulaguntzen zenbatekoa, entitate jasotzailearen karga-mota dirulaguntza horri aplikatuz ateratzen den kopuruan gutxiagotua.

Inbertsioak ondasun higiezinak badira, murrizketa oinarritik kenduko da, beti ere, lurzoruaren balioa.

Murrizketaren oinarria ezin izanen da izan merkatuko baldintza normaletan subjektu independenteen artean hitzartuko litzatekeena baino handiagoa.

4. Era berean, inbertsioa gauzatu daiteke enpresak berak eraikitako ondare-elementuetan, beti ere inbertsioaren kostua behar bezala justifikatzen bada.

43. artikulua. Materializaziorako egokiak diren elementuak.

Inbertsioetarako erreserba bereziaren materializazioa, honako ezaugarri hauek dituzten ondare-elementuetan egin beharko da:

1. Ibilgetu materialeko elementu berriak izatea, lursailak izan ezik, atxikiak daudenak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren tarifen Lehenbiziko Sekzioko 1.tik 5.era bitarteko Dibisioetan sartutako jardueren garapenari, beti ere, maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legeko I. Eraskinean datorren sailkapenaren arabera.

Foru Lege honen ondorioetarako, aktibo finko bat ez dela berria ulertuko da, baldin eta aurretik beste pertsona edo entitatearen batek erabili badu, alegia, haren ibilgetuaren barrenean sartu badu edo hartan sartu behar bazen Kontabilitateari buruzko Plan Orokorraren arabera, funtzionatzen hasi gabe ere.

2. Finantza errentamenduaren araubidean eskuratutako ondasunak ez izatea.

3. Elementuek funtzionatzen irautea subjektu pasiboaren instalazioetan bost urtez bederen, justifikatutako galeraren kasuan izan ezik, edo bere bizi erabilgarrian, bost urtetik beherakoa bada, eskualdatu edo laga gabe.

Nolanahi dela ere, subjektu pasiboak alde aurretik hala eskatuz gero, aurreko lerroaldean xedatutakoa betetzetik salbuets dezake Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, arrazoi teknologiko edo funtzional bereziak gertatzen direnean.

4. Inbertsio diren elementuak ordaindu behar ez izatea Garraio bide Jakin Batzuen gaineko Zerga Berezia, bai hari loturik ez daudelako edo, bestela, lotuak egonagatik salbuetsita daudelako.

44. artikulua. Erreserba bereziaren aplikazioa eta kontabilizazioa.

1. Inbertsioetarako erreserba bereziko destinaturik dauden kopuruek balantzearen pasiboan agertu behar dute, bestelako edozein kontzeptutatik bereiz, eta "Inbertsioetarako erreserba berezia .../1996 Foru Legea" izeneko kontu batean, dotazioaren ekitaldia adierazita, ekitaldiko irabazi eta galeren kontuaren kargura eratuko dena, haren banaketa egiten denean.

Kontu hori intsuldatuko da, "Erabilitako inbertsioetarako erreserba berezia" izenekora, inbertsioak materializatzen doazen neurrian, zein erreserbatatik lekualdatzen den, hari dagokion ekitaldia adierazita.

2. Erreserba berezia zein elementutan materializatzen den, haiek agertu beharko dute balantzearen aktiboan, gainerako ondare-elementuetatik bereiz, eta buru dutela epigrafe bat, zeinetan bereizi beharko baita materializatzen den erreserbari dagokion ekitaldia.

3. Urteko memorietan aipatu beharko dira, hurrenez hurren, ekitaldi bakoitzean erreserbari egindako dotazioaren zenbatekoa eta hura zein elementutan materializatu den.

4. Materializazio epea amaitu eta bost urte igaro ondoren, erreserba bereziko zenbatekoa honelakoetan aplikatu daiteke:

- a) Kontabilitate emaitza negatiboak baztertea.
- b) Kapital sozialaren handipena.

Erreserba berezi hau kapital soziala handitze-ko erabiltzen bada, Sozietate Anonimoen buruzko Legearen Testu Bategina, abenduaren 22ko 1564/1989 Errege Dekretu Legegilearen bidez onetsitako hura, aplikatzekoa duten sozietateek legezko erreserbaren dotazioa egin dezakete erreserba bereziaren kargura, kapitalizazioarekin batera, gehienez ere kapital sozialean sartzen den kopuruaren 100eko 20raino.

45. artikulua. Betebehar formalak.

1. Sekzio honetan araututako zerga-oinarriaren murrizketa egitea nahi duten subjektu pasiboek, horretarako eskaera egin beharko dute espresuki Sozietateen gaineko Zergaren aitortzean, zein zergalditako onurak erabiltzen diren erreserba bereziaren dotaziorako, hari dagokion hartan.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen duen eskaera egindakoan, subjektu pasiboak ezin izanen du, erreserbaren dotaziorako erabili den kopurua dela-eta, 63. artikulua aipatzen duen inbertsioengatikoen kenketa egin, haren materializazio-epeak dirauen bitartean.

3. Erreserba materializatzen den zergaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren aitortzearekin batera aurkeztuko da egindako inbertsioa justifikatzen duen dokumentazioa.

4. Sekzio honetan arautzen den zerga-onura ez zaie aplikatuko subjektu pasiboak aitortzen ez dituen errentei.

46. artikulua. Ez betetzea.

1. Zerga-oinarriaren egindako murrizketa hein batean edo erabat galduko da honako kasuetan: Foru Lege honetan baimentzen direnez bestelako xedeetarako aplikatzea edo materializatzea erreserba berezia, bere kontu adierazgarriak aldatzea, aurreko artikuluetan zehazten diren materializazio epe edo baldintzak ez betetzea. Horrelakoetan subjektu pasiboak sartu beharko du, betebeharrak betetzen ez diren likidazio-aldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergagatik entitateak aurkeztu behar duen aitortzean, zerga-oinarriaren murrizketa egin zen zergaldian murrizketa egin izan ez

balitz aterako zatekeen kuota osoaren zenbatekoa.

2. Berdin jokatuko da entitatearen likidazio, bategite edo zatiketa denean, non eta azken bi kasu horietan erreserba berezia eta dagokion materializazioa ez diren kontserbatzen jarduerak jarraitzen dituen entitatean, dotazioa egin zuen entitatearen era berean.

3. Aurreko zenbakiaren aipatzen diren ez-betetze kasuetan eskatzen ahalko da, berandutzagatik korrituz gain, kuotaren 100eko 10eko errekar-gua, bidezko diratekeen zehapenen aplikazioa deusetan ukatu gabe.

47. artikulua. Bateriaezintasunak.

Sekzio honetan arautzen den zerga-onura bateraezina izanen da, ondasun eta zenbateko berberetarako, berrinbertsioagatikoen salbuespenarekin eta zerga honetan ezarritako bestelako edozein zerga-onura edo pizgarriekin.

V. TITULUA

Zergaldia eta zergaren sortzapena

48. artikulua. Zergaldia.

1. Zergaldia izanen da entitatearen ekitaldi ekonomikoarekin batera.

2. Zergaldia beti amaituko da:

- a) Entitatea iraungitzen denean.
- b) Entitateak bere egoitza atzerrira aldatzen duenean.

3. Zergaldia ez da hamabi hilabetetik gorakoa izanen.

49. artikulua. Zergaren sortzapena

Zerga sortuko da zergaldiaren azken egunean.

VI. TITULUA

Zerga-zorra

I. KAPITULUA

Karga tasa eta kuota osoa

50. artikulua. Karga tasak.

1. Karga tasa orokorrean 100eko 32,5ekoa izanen da.

2. 100eko 25eko karga tasa ordainduko dutenak honakoak dira:

- a) Aseguru orokorretako mutuak, gizarte aurreikuspeneko entitateak eta Gizarte Segurantzaren lan istripuetako eta eritasun profesionaleta-

ko mutuak, berauek araupetzen dituen arautegiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

b) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfinkapeneko sozietateak, 1/1994 Legeak, martxoaren 11koak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzkoak araupetzen dituenak, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta dauden horiek.

c) Kredituko Sozietate Kooperatiboak eta Kutxa Ruralak, emaitza kooperatiboez kanpo dagokienez izan ezik, tasa orokorra ordainduko baitute.

d) Elkargo profesionalak, enpresari-elkarteak, ganbara ofizialak, langileen sindikatuak eta alderdi politikoak.

e) Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako zerga araubidea edukitzeko beharkizunak betetzen ez dituzten eta irabazteko asmorik ez duten elkarteak.

f) 27/1984 Legearen, uztailaren 26koaren, Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzkoaren, 22. artikulua itzalpean sortutako lan sustapenerako fondoak.

g) Kooperatiben batasun, federakunde eta konfederakundeak.

3. 100eko 20ko tasa ordainduko dutenak hauexek izanen dira:

a) Zergetan babestutako sozietate kooperatiboak, kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokienez izan ezik, orduan tasa orokorra ordainduko baitute.

b) Apirilaren 25eko 15/1986 Legeak araututako Lan Sozietate Anonimoak, baldin eta lortzen dituzten mozkinen 100eko 25 bederen Erreserbako Fondo Berezira sartzan badute, salbu sozietatearen jardura berarizkoei atxikirik ez dauden ondare-elementuetatik ateratzen diren errentei dagokienagatik, horiek tasa orokorraren arabera ordainduko baitute.

4. 100eko 10eko tasa ordainduko dute, fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako zerga araubidea edukitzeko beharkizunak betetzen dituzten entitateek.

5. 100eko 7ko tasa ordainduko dute higiezinetak inbertsioko sozietateek eta higiezinetak inbertsioko fondoek, 46/1984 Legeak, abenduaren 26koak, araupetzen dituenak, baldin eta talde-inbertsioko erakunde ez finantzarioak izanik, beraien xede bakarra hiri-higiezinetan inbertitzea bada, higiezin horiek errentan emateko, eta, gai-

nera, etxebizitzek aktiboaren osotasunean 100eko 50ekoa egiten badute.

Zenbaki honetan ezartzen den karga tasa aplikatzeko, beharrezkoa izanen da aurreko lerroaldean aipatzen diren talde-inbertsioko erakundeen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterengatzea, eskuratu direnetik lau urte igaro artean, non eta, salbuespen gisa, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren baimen espresua ez den.

6. 100eko 1eko tasa ordainduko dutenak hauexek izanen dira:

a) Abenduaren 26ko 46/1984 Legeak araututako Higigarrietako Inbertsiorako Sozietateak, baldin eta beren kapital sozialaren balore adierazgarriak Balore Burtsan negoziatzeko onartzen badira.

b) Higigarrietako Inbertsiorako fondoak eta moneta-merkatuko aktiboetako inbertsio-fondoak, 46/1984 Legeak, abenduaren 26koak, araupetzen dituenak.

c) Higiezinetak inbertsiorako sozietateak eta higiezinetak inbertsiorako fondoak, 46/1984 Legeak, abenduaren 26koak araupetzen dituenak, baldin eta talde-inbertsioko erakunde ez-finantzarioak izanik sozietatearen xede bakarra etxebizitzetan inbertitzea bada, gero haiek errentan emateko.

Zenbaki honetan ezartzen den karga tasa aplikatzeko, beharrezkoa izanen da aurreko lerroaldean aipatzen diren talde-inbertsioko erakundeen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterengatzea, eskuratu direnetik lau urte igaro artean, non eta, salbuespen gisa, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren baimen espresua ez den.

d) Hipoteka-merkatua arautzeko fondo publikoa, 2/1981 Legeak, martxoaren 25ekoak, Hipoteka-merkatua arautzeari buruzko hark bere 25. artikuluan ezarritakoa.

7. 100eko 0ko tasa, ekainaren 8ko 8/1987 Legeak araupetzen dituen pentsio fondoek ordainduko dute.

51. artikulua. Kuota osoa.

Kuota osoa, likidazio-oinarriari karga tasa aplikatetik ateratzen den emaitza dela ulertuko da.

II. KAPITULUA **Hobariak**

1. Sekzioa

Pizgarriak, sorkuntza berriko entitateentzat

52. artikulua. Kuotaren hobaria.

Foru Lege honek indarra hartu ondotik beren enpresa-jardueran hasten diren sozietateek kuota

osoaren 100eko 50eko hoberia izan dezakete, beraien jarduera hasten denetik zazpi urteko epearen barrenean jarraian ixten diren zergaldietako errentari dagokion kuotarena, alegia; gehienez ere lau zergaldi, epe horren barrenean likidazio-oinarri positiboak lortzen dituzten lehenbizikotik kontatzen hasita.

Kuotaren hoberia aplikatuko zaie bakar-bakarrrik entitatearen helburu berariazkoa edo xede soziala diren ustiapen ekonomikoetako mozkinen, ondotik aipatzen diren hauek ukitu gabe:

a) Finantza-sarrerak eta ustiapen ekonomikoen erabilerari atxiki gabeko ondare-elementuen lagapenetik etorriak.

b) Ibilgetuaren ondare-elementuen kostubidezko eskualdaketetan lortutako errentak, eta irabazizko eskurapen edo eskualdaketan ondoriozkoak, Foru Lege honetan ezartzen denaren arabera.

53. artikulua. Betebeharrak.

1. Hobariaz baliatu ahal izateko, subjektu pasiboek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Enpresa-jarduera hastea 20 milioi pezetako kapitala gutxienez ordainduta.

b) Ez izatea zerga gardentasunaren araubidearen peko sozietateak edo interes ekonomikoak duten batasun espainiar edo europarrak, enpresen aldi baterako batasunak, beraiei aplikatzeko zerga-araubide berezia daukatenak.

c) Aktiboaren eta pasiboaren bategitearen, zatiketaren eta lagapen orokorraren edo jardueradarren ekarpenaren ondorioz sortuak ez izatea, Foru Lege honen X. Tituluko IX. Kapituluan horiei buruzko definizioaren arabera.

d) Enpresa jarduera berria, zuzenean edo zeharbidez, osorik edo hein batean, beste titularitasun baten pean, lehenago egina ez izatea.

e) Enpresa jarduera berria egitea, beste pertsona fisiko edo juridiko batek beste jarduerarik egiten ez duen lokal edo establezimenduan.

f) Inbertsioak egitea, jardueraren lehenbiziko bi urteetan, 100 milioi pezetako kopurua gutxienez, ibilgetu materialaren elementu berrietan, jarduerari atxikiak daudenetan, eta 43. artikuluko 2. zenbakitik 4.era bitartekoetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, errentan emateko edo, erabilerara xede, hirugarrenei lagatzeko izan gabe, 155. artikuluko azken aurreko leerroaldean xedatutakoa izan ezik.

g) Enpresa jardueraren hasieraren ondorengo sei hilabeteetan 10 lanpostu sortzea, gutxienez, eta urteko batezbesteko kopuru horri eustea une

horretatik hasi eta kuotaren hoberia aplikatzeko eskubidearen mugaegunari dagokion zergaldia amaitzen den arte.

h) Zergarik ez ordaintzea aitorten bateratua- ren araubidean.

2. Inbertsioaren unea eta zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da 42. artikuluko 2. eta 3. zenbakiek, hurrenez hurren, agintzen dutena.

54. artikulua. Bateriaezintasuna.

Sekzio honetan araututako hoberia bereganatzen duten subjektu pasiboek ez dute eskubiderik izanen Foru Lege honetan inbertsiorako edo enpleguaren sorrerarako ezartzen diren zerga- onura edo pizgarriak aplikatzeko, jardueraren hasierari dagokion zergalditik hasi eta hobariaz baliatzen ahal diren azkena bitarte.

55. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboak.

Arestiko 52. artikuluan aipatzen diren hobariaz aplikatzeko epea amaitu arte igarotzen diren zergaldietan entitateak eskuratzen dituen likidazio-oinarri negatiboek, ahalik eta kopururik handienezan murriztuko dituzte epe horren barrenean lortutako zerga-oinarri positiboak.

56. artikulua. Eskabidea eta ez-betetzea.

Sekzio honetan araututako hobariaz baliatu nahi duten entitateek, eratu zirenetik ondoko hiru hilabete epean eskatu beharko diote Ekonomi eta Ogasun Departamentuari, eta honek, hasieran eskatutako beharkizunak bete direla egiaztatu ondoren, behin-behineko baimena, aipatu Departamentuko kontseilariak eman behar duena, jakinaraziko dio entitate eskatzaileari, hala behar denean.

Ondoren, sekzio honetan eskatzen diren beharkizunetako edozein betetzen ez bada, egindako hoberia galduko du subjektu pasiboak, eta beharkizunak ez-betetzea gertatzen den likidazio aldian entitateak egin beharreko Sozietateen gaineko Zerga aitorpenean, subjektu pasibo horrek hoberia gauzatu zen zergaldietan, hoberia aplikatu ez balitz, legezkiokkeen kuota osoen zenbatekoa ingresatu beharko du, gerorapen interesak eta bidezko zehapenak aplikatzea deusetan galarazi gabe.

Egiaztapen eta ikerketa jarduketan ondorioz subjektu pasiboak aitortu ez dituen errentak agertzen badira ez da aplikatuko errenta horietatik ateztzen den kuotaren zatiaren hoberia.

2. sekzioa

Bestelako hobariaz

57. artikulua. Hobaria, esportazio jarduera berezi batzuegatik

1. Ekoizpen zinematografikoak edo ikusentzunezkoak, liburuak, bilduma-zatiak eta normalean eduki bateratua duten edota beraiekin batera editatzen diren elementuak, eta edozein agerpen editorial didaktiko esportatzeko jardueratik ateratzen diren errentei dagokien kuota osoaren zatiak 100eko 99ko hoberia izanen du, beti ere jarduera horretako mozkinak hobariari dagokion zergaldi berean edota hurrengoan berrinbertitzen badira, aipatu jarduera horiek burutzeko elementuak eskuratzeko edota Foru Lege honetako 67 eta 70. artikuluetan zehaztutako aktiboetako edozeinetan.

Elementuek, zeinetan materializatuko baita berrinbertsioa, ez dute Foru Lege honetako 67 eta 70. artikuluetan ezarritako kenkaria izanen.

2. Aurreko zenbakian zehazten diren jarduerak burutzeko emandako dirulaguntzetatik ateratako kuota osoaren zatiak ez du hobaririk izanen.

3. Artikulu honetan ezarritako hoberia bateraezina izanen da Kapitulu honetako 1. Sekzioan erregulatutakoarekin.

58. artikulua. Hoberia, zerbitzu publiko berezi batzuk emateagatik

Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. zenbakian eta 36. artikulua 1. zenbakiko a), b) eta c) letretan agertzen diren udal eskumeneko edo Foru Komunitateko Administrazioko zerbitzu publikoak ematearen ondoriozko errentei dagokien kuota osoaren zatiak 100eko 99ko hoberia izanen du, enpresa mistoaren edo kapital osoa pribatua dutenen sisteman ustiatzen direnean izan ezik.

III. KAPITULUA

Ezarpen bikoitza saihesteko kenkariak

59. artikulua. Barne-ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: dibidenduak eta barne iturriko gainbalioak

1. Subjektu pasiboaren errenten artean Espainian egoitza duten beste entitate batzuen mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak zenbatzen direnean, mozkinetako dibidendu edo partaidetzetatik ateratako zerga-oinarriari dagokion kuota osoari 100eko 50 kenduko zaio.

Mozkinetako dibidendu edo partaidetzetatik ateratako zerga-oinarria horien zenbateko osoa izanen da.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen duen kenkaria 100etik 100ekoa izanen da mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak, gutxienez, zuzenean edo zeharbidez, 100eko 5eko partaidetza ematen duten entitateetatik etorriak direnean, partaidetza

hori etengabe banatzen den mozkin eska dai-tekeen egunaren aurreko urtean eduki bada.

Kenkaria 100etik 100ekoa izanen da, halaber, aseguru-etako mutua, gizarte aurreikuspeneko entitate, elkarrekiko berme-sozietate eta elkarteetatik hartutako mozkinetako dagokienez.

3. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria aplika dakioke banatu gabeko mozkinetik zerga-oinarriari integratutako errenta positiboari dagokion zatiari, eragiketa hauetatik ateratzen denean:

a) Sozietateen likidazioa.

b) Akzioak edo partaidetzak eskuratzea hura amortizatzeke.

c) Bazkideak bereiztea.

d) Likidaziorik gabeko bereizketa, aktiboaren eta pasiboaren bategiterakoan, zatiketa oso edo lagapen orokorreko eragiketetan

Era berean, entitate eskuratzailerak, artikulu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatuko du, zenbaki honen lehen lerroaldean ezarritakoaren arabera, aurreko letretan aipatzen diren eragiketarik burutzen dituen sozietateak, 33.1 artikulua dioenari jarraikiz, zerga-oinarriari sartu behar duen errentaren gainean.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria ez da eginen honako errentei dagokienez:

a) Kapital murrizketatik edo akzio eta partaidetzaren jaulkipen-sariaren banaketatik ateratako dagokienez, 33.1 artikuluan xedatutakoaren arabera integratutako errentaren zatiarengatik izan ezik.

b) Banaketa egin aurretik erreserbak egiteko edo galerak konpentsatzeko kapital murrizketa egin denean, edo jaulkipen-saria erreserbetara intsuldatu denean, edo bazkideek ondarea birjartzeko ekarpena egin dutenean, murrizketaren, intsuldatetaren edo ekarpenaren zenbatekoraino.

c) Dibidenduaren banaketak edo mozkinen partaidetzak errenta positiboa zerga-oinarriari sartzeko ez dakartenak.

d) Lehenbiziko bi zergaldiei dagozkien mozkinen kargura banatutakoak, zeinei zerga-oinarrieko murrizketak aplika dakizkiekeen entitate sortu berrientzako pizgarri bezala. Erreserbak banatzekoan, aplikatutako joko dira aipatu erreserbei abonututako lehenbiziko zenbatekoak.

e) Hipoteka-merkatuaren Erregulazio-fondo publikoak banatutakoak.

5. Subjektu pasiboaren zerga-oinarriari sartzen diren errenten artean espainiar lurraldean egoitza

izan eta karga-tasa orokorraren pean dauden entitateen balore propioak edo kapitalaren balore adierazgarrien eskualdaketatik ateratakoak zenbatzen direnean, kenkaria izateko eskubidea duten banatu gabeko onuren (entitate partaidetuak eskualdatutako partaidetza eduki duen artean sortutako onuren) gehikuntza garbiari karga-tasa aplikatuz ateratakoa kenduko zaio kuota osoari, zerga oinarrian integratutako errenta positiboen mugarekin, beti ere hurrengo baldintzak betetzen direnean:

a) Eskualdaketa egin aurretik partaidetzaren portzentaia, zuzena edo zeharkakoa, 100eko 5 edo gehiagokoa denean.

b) Portzentaia hori etenik gabe eduki izan denean partaidetza eskualdatu den egunaren aurreko urtean zehar.

Partaidetzaren eskualdatze egunaren ondorenez partaidetzaren eskuraketa egunean banatu gabeko onuren zenbatekoa ezin bada zehaztu, baloreak balio teorikoan eskuratutakotzat joko dira.

Kenkari honen aplikazioa 37. artikuluan aurreikusten den berrinbertitzeagatik gerorapenarekin izanen da, zenbaki honetan aurreikusten den kenkaria izan duen errentari dagokion zatian.

6. Nahikoa kuota osorik egon ez delako kendu ez diren zenbatekoak, hurrengo eta jarraiko zazpi urteetan bukatuko diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izanen dira.

60. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: subjektu pasiboak jasan beharreko zerga

1. Subjektu pasiboaren zerga-oinarrian atzerrian lortu eta zergapetutako errentak sartzen direnean, kuota osoari hurrengo zenbateko bietatik txikiena kenduko zaio:

a) Zerga honen izaera berdina edo antzekoa duenaren kargan atzerrian ordaindutako zenbatekoa.

Salbuespena, hobaria edo beste edozein zerga-onura dela-bide ordaindu ez diren zergak ez dira kenduko.

Ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenaren beharra dagoenean, kenkaria ezin da hitzarmen horren arabera ordaindu beharreko zergak ezarritakotik gorakoa izan.

b) Errentok espainiar lurraldean lortuak balira, Nafarroako Ogasun Publikoari errenta horiengatik ordaindu beharko litzatekeen kuota osoaren zenbatekoa.

2. Atzerrian ordaindutako zenbatekoa, errentan sartuko da aurreko zenbakian ezarritako ondorioetarako eta, halaber, zerga-oinarriaren parte izanen da, gutziz kengarria izan ez arren.

3. Subjektu pasiboak zergaldian atzerriko zenbait errenta lortu dituenen, herrialde bakoitzekoak multzo berean sartuz eginen da kenkaria, establezimendu iraunkorretatik etorriak izan ezik, berauek bakarrean establezimenduka zenbatuko baitira.

4. Kuota osoaren askiezagatik kendu ez diren zenbatekoak, ondorengo eta segidako zazpi urteetan amaitzen diren zergaldietan kendu ahal izanen dira.

61. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak

1. Lurralde espainiarrean egoitza ez duen erakunde batek ordaindutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak zerga-oinarrian zenbatzen direnean, dibidenduak ordaintzeko diren mozkinetaz azken honek benetan ordaindutako zergari dibidendu horiei dagokien munta gutxituko zaio, baldin eta munta hori subjektu pasiboaren zerga-oinarriaren barruan sartzen bada.

Kenkari hau aplikatzeko derrigorrezkoa izanen da egoiliarra ez den entitatearen kapitaleko zuzeneko zein zeharkako partaidetza, gutxienez, 100eko 5ekoa izatea, eta hura, banatuko den mozkin eska daitekeen egunaren aurreko urtean zehar geldiarazi gabe edukia izatea.

Erreserbak banatzerakoan, akordio sozialean erabakitakoari jarraituko zaio eta erreserba horiei ordaindutako azken kopuruak aplikatutzat joko dira.

2. Era berean benetan ordaindutako zergatzat joko da dibidendua banatuko duen sozietateak zuzenean parte hartu dueneko entitateek eta haiek, modu berean, parte hartuko duten besteek ordaindutako zerga, dibidenduak ordaintzeko erabiltzen diren mozkinetaz egotz lekiekeen zatian, baldin eta partaidetza hauek 100eko 5etik beherakoa ez badira eta aurreko zenbakiak aipatzen duen beharkizuna betetzen badute, partaidetza edukitzezko denborari dagokionean.

3. Kenkari hau, eta honekin batera dibidenduengatik edo mozkinetako partaidetzengatik nazioarteko ezarpen bikoitzerako ezarritakoa, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da, lurralde espainiarrean lortu izanez gero errenta hauengatik ordaindu behar izanen litzatekeen kuota osoa baino handiagoa izaten ahal.

Muga horren gaindikina ez da zergatik ken litekeen gastutzat joko.

4. Nahikoa kuota osorik egon ez delako kendu ez diren zenbatekoak hurrengo eta jarraiko zazpi urteetan bukatuko diren zergaldietan kendu ahal izanen dira.

5. Dibidenduak edota mozkinetako partaidetzak eskuratuko dituen subjektu pasiboaren zerga-oinarriari ez zaio mozkinen banaketagatik ondorioztaturiko partaidetzaren baliogalera sartuko, baliogalera hori agertuko den modua eta zergaldia edozein delarik ere.

Haiek banatzen dituen entitateak haren gaineko partaidetza eskuratu aurretik lortutako mozkinen dagokiena izanen da baliogaleraren zenbatekoa.

62. artikulua. Nazioarteko ezarpen ekonomiko bikoitza saihesteko kenkaria: dibidenduak eta atzerrian lortutako gainbalioak

1. Subjektu pasiboaren errenten artean Espainian egoitza ez duten beste erakunde batzuen mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak zenbatzen direnean, mozkinetako dibidendu edo partaidetzetatik ateratako zerga-oinarriari dagokion kuota osoari 100eko 100 kenduko zaio.

Mozkinetako dibidendu edo partaidetzetatik ateratako zerga-oinarria horien zenbateko osoa izanen da.

2. Era berean, subjektu pasiboaren errenten artean espainiar lurraldean egoitza ez duten eta karga-tasa orokorraren pean dauden entitateen balore propioak edo kapitalaren balore adierazgarrien eskualdaketatik ateratakoak zenbatzen direnean, banatu gabeko mozkinen gehikuntza garbiari karga-tasa aplikatuz ateratakoa kenduko zaio kuota osoari, partaidetutako erakundeak eskualdatutako partaidetza eduki duen artean sortu eta zerga-oinarrian sartutako errenta positibo mugarekin.

3. Aurreko bi zenbakietan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko ondoko baldintzak bete behar dira:

a) Egoitza Espainian ez duen entitateak kapitalean duen partaidetza zuzena edo zeharkakoa 100eko 5ekoa bederen izatea eta partaidetza hura etenik gabe edukitzea aurreko urtean, banatzen den mozkin eskatu aurretik edo eskualdaketaren aurretik.

b) Entitate partaidetuak Zerga honen izaera berdina edo antzekoa duen beste zerga bati lotua eta ez salbuetsirik egotea, eta egoitza erregelamendu bidez paradisua fiskaltzat jotako herrialderen batean ez edukitzea. Erregelamendu bidez

ezartzen ahal dira zerga honekin aldera ezin daitekkeen beste zerga bati lotutako entitate motak.

c) Entitate partaidetuaren errentak, zeinetatik baitatoz dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, atzerrian burututako enpresa jarduerengatik sortuak izatea, Foru Lege honen 148. artikulua 1. zenbakiko c) letran aurrekusi bezala.

d) Entitate partaidetuak bere egoitza nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko Espainiarekin hitzarmena (aplikagarria eta informazioa trukatzeko klausula batekin) sinatu duen herrialde batean izatea, edo bestela egoitza hori araubidez finkatu ahalko den herrialde zerranda batean legokeen herrialde batean izatea, beti ere horietan zerga honen antzeko ezaugarriak dituen zerga bat badute.

Gehigarri gisa, balore eskualdaketatik ondorioztaturiko errentari dagokionez, pertsona edo entitate eskuratzailerak, lurralde espainiarrean badu egoitza, ez du loturarik izanen entitate eskualdatzailerarekin. Bete egin behar dira b) eta c) letretan adierazitako baldintzak partaidetza edukitzen den ekitaldi guztietan, 2. zenbakian aurreikusitako aplikatu ahal izateko.

4. Zerga-oinarrian ez da sartuko mozkinak banatzearen ondoriozko partaidetzaren baliogalera, aurreko artikuluko 5. zenbakian ezarri bezala.

5. 2. zenbakian aurreikusitako kenketa ez da bateragarria izanen Foru Lege honen 37. artikuluan aurreikusten den berrinbertsioaren ondoriozko gerorapenarekin, aipatu zenbakian adierazi kenkariak baliatu den errentari dagokion zatian.

6. Entitate partaidetuak 3. zenbakian adierazi baldintzak betetzen dituen eta, aldi berean, Foru Lege honen 101. artikuluan aurreikusitako errentak lortzen dituen eta, aplikatuko da 101. artikuluan horretan aipatu errenten gainean xedatzen dena, eta entitate partaidetuak lortutako gainerako errentei dagokienez, berriz, artikulua honetan xedatutakoa aplikatuko da.

Foru Lege honen 101. artikuluan tipifikatutako errentetatik heldu diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeak, zenbait zergaren aldaketa partzialari eta beste tributu neurriei buruzko hark, bere 7. artikuluan ezarritakoa aplikatu aurretik izandako ekitaldietan erdietsiak, 1. zenbakian aurreikusitako kenketa izateko eskubiderik ez dute izanen. Baldin eta entitate partaidetu batean Foru Lege honen 101. artikuluan aurreikusitako zenbait errenta desberdin batera baleude, haiek banatzeko artikulua honetan ezarritakoa aplikatu dakiekeelarik, banaketaren xede liratekeen errentak finkatzearen,

banatuzat joko lirateke lehenbizi artikulua hau aplikatzen ahal zaien errentak.

Arau bera aplikatuko da artikulua honen 2. zenbakian aurreikusitako kenketari dagokionez.

7. Entitate partaidetuaren egoitza baldin bada go xedapen hau indarrean jarri ondotik Espainiak nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat sinatzen duen herrialde batean, 1 eta 2. zenbakietan xedatutakoa bakarrik aplikatuko da baldin eta hitzarmen horretan horrela jasotzen bada, espresuki edo Espainiako Legeak agintzen duenera joaz.

IV. KAPITULUA Kenkariak, pizgarriengatik

1. Sekzioa

Kenkariak, aktibo finko materialetan inbertsioak pizteko

63. artikulua. Kenkariak, aktibo finko material berrietako inbertsioengatik

1. Erakundearen ustiapen ekonomikoaren garapenari dagozkion aktibo finko material berrietan eginen diren inbertsioek, horretakotzat lurrak hartzen ez direlarik, inbertsio horien zenbatekoaren 100ko 10eko kuota likidoaren kenkaria gauzatzeko bidea emanen dute.

Kuota likidoaren kenkaria Aurreko lerroaldean aipatzen diren inbertsioen 100eko 15ekoa izanen da. Beti ere inbertsioak jardueraren hasiera arte eginak badituzte 52. artikuluan ezarritako kuota-aren hobariaz baliatzen ez diren entitate sortuberriek.

64. artikulua. Beharkizunak.

Inbertsioek honako beharkizunak bete beharko dituzte:

a) Inbertsioa zein elementutan materializatuko den, haiexek agertzea balantzearen aktiboan, gainerako ondare elementuetatik bereizirik eta haiek identifikatzeko epigrafe baten azpian.

b) Inbertsioak osatzen dituzten aktiboek 43. artikulua 2, 3 eta 4. zenbakian ezarritako baldintzak betetzea eta hirugarrenei ez ematea errentan edo lagapenean, 155. artikulua 2. azken nurrengo lerroaldean xedatutakoa izan ezik.

c) Inbertsioa osatuko duten aktibo guztien zenbatekoak ekitaldi bakoitzean honako kopuruak gainditzea:

– Aktibo finko materialetik lehenetik zeuden balore kontagarri osoen 100eko 10, amortizazioak kenduta. Baldin eta ekitaldian eginiko inbertsioen

zenbakia 50 milioi pezetatik gorakoa bada, aurreko portzentaia 100eko 5 murriztuko da.

– Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitateko balioaren zenbateko osoaren 100eko 15, amortizazioak kenduta.

Kontabilitateko balioa zehazteko, inbertsioa eginen den ekitaldiaren aurreko zergaldiaren azkenengo egunari dagokion balantzeari begiratu-ko zaio, egun horretan jardunean dagoen inbertsiopeko aktibo finkoari dagokiona zenbatuko ez delarik.

Izaera bereko aktibo finkotzat joko da, Kontabilitate Plan Orokorraren edo, hala denean, ofizialki onartutako sektorekako planen kontuan (hiru digitu) sartu dena edo sartuko dena.

65. artikulua. Ez-betetzea eta bateraezintasuna.

1. Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzera subjektu pasiboak berari egin zaion kenketa galduko du, eta horren ondoren entitateak Sozietateen gaineko Zergari dagokion aitortzean aurkeztu beharko du, beharkizunen ez-betetzea gertatzen deneko likidazio aldiari dagokion aitortzean hain zuzen ere, eta kenketa egin zeneko zergaldietan kenketa egin ez balitz lego-kikeen kuota guztien zenbatekoa ordaindu beharko du, gerorapen interesak bidezko zehape- nak ezartzea deusetan galarazi gabe.

2. Kenkariaren aplikazioa bateraezina izanen da ondasun eta zenbateko horiekin, Zerga honetan ezarritako beste edozein onura edo pizgarri fiskalekin.

2. Sekzioa

Kenkariak, zenbait jarduera pizteko

66. artikulua. Kenkaria, ikerketa eta garape- nerako jarduerak burutzeagatik.

1. Ikerketa eta garapenerako jarduerak burutzeak zergaldian zehar kontzeptu honengatik izan- dako gastuen kuota likidoaren 100eko 30eko ken- keta egiteko bidea emanen du.

2. Ikerketa eta garapenerako gastutzat joko dira subjektu pasiboak eginikoak Espainian egin- dako ikerketa eta garapenerako jarduerekin ikus- tekorik badute eta xede horretarako aplikatu badi- ra, proiektuka banan-banan agertaraziz.

Era berean joko dira ikerketa eta garapenera- ko gastutzat subjektu pasiboaren beraren enkar- guz edota bestelako entitate batzuekin elkarlane- an Espainian egindako ikerketa eta garapenerako jardueretarako ordaindutako kopuruak.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, subjektu pasiboak hala eskatu ondoren, ikerketa eta garapenerako jarduerak Espainian egin beharretik salbuesten ahal ditu, teknologiaren edo zientziaren aldetik ohiz kanpoko inguruabarrak suertatzen direnean.

3. Erregelamendu bidez zehaztu ahalko dira zein diren ikerketa eta garapenerako jarduerak, artikuluko honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

67. artikulua. Kenkaria, esportazio jarduerengatik.

1. Esportazio jardueretan aritzeak kuota likidoan honako kenkari hauek egiteko eskubidea ematen du:

a) Atzerrian sukurtsalak edota establezimendu iraunkorrak sortzeko, atzerriko sozietateetako partaidetzak eskuratzeko eta ondasunak eta zerbitzuak esportatzeko jarduerari zuzenean loturiko filialak eraikitze edo Espainian zerbitzu turistikoak kontratatze benetan eginen diren inbertsioen zenbatekoaren 100eko 25 bederen, baldin eta partaidetza gutxienez sozietate filialaren kapitalaren 100eko 25ekoa bada. Partaidetzaren 100eko 25 lortzen den zergaldian kenduko da horretan eta aurreko bi zergaldietan egindako inbertsio osoaren 100eko 25.

Zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioetarako, finantza jarduerak eta aseguruena ez dira esportazio jarduerari zuzenean lotutakotzat joko.

b) Produktuak ateratzeko asmoz hainbat urtetarako proiektzioa duten publizitate eta propagandagatik, atzerrian merkatuak zabaltzeko eta arakatzegatik eta ferietara, erakusketetara eta tankera berdineko bestelakoetara joateagatik, Espainian egin eta nazioarteko izaera dutenak ere barruan sartuz, izandako gastuen zenbatekoaren 100eko 25.

2. Ez da kenkaririk eginen inbertsioa edota gastua erregelamendu bidez paradisu fiskal modura sailkatutako estatu edo lurralde batean egiten denean.

3. Artikulu honetan ezarritako kenkaria ezin izanen da Espainian egindako esportazio jarduerak eta zerbitzu turistikoaren kontratazio guztien sarrearen 100eko 4tik gorakoa izan.

Esportazio jardueragatik eta Espainian zerbitzu turistikoak kontratatzeagatik, derrigorrezko epearen barruan, emaitza positiboak izanik, sarrearak sortzen dituen lehenengo ekitaldira arte geroatu ahal izanen da kenkaria aplikatzeko epearen zenbaketa.

68. artikulua. Kenkaria, lanbide heziketarako gastuengatik.

1. Lanbide heziketarako jardueretan aritzeak kuota likidoari zergaldian zehar egindako gastuen 100eko 10 kentzeko bidea ematen du.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitakoaren ondorioetarako lanbide heziketarako jardueratzat joko da enpresa batek zuzenean edota gainontzekoen bidez, langileak eguneratzeko, trebatzeko edo birgaitzeko eta enpresaren beraren jardueraren garapenak edota lanpostuen euren ezaugarriek hala eskatuta buruturiko heziketa ekimenen multzoa. Maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legean xedatutakoarekin bat, ez dira inola ere lanbide heziketarako gastutzat joko norbanakoaren lan etekin gisara hartuko direnak.

69. artikulua. Kenkaria, ingurugiroa zaindu eta hobetzeko jarduerengatik.

Enpresaren jarduerak dakarren kutsadura txikitzeari eta zuzentzeari loturik dauden aktibo finko material berrirako inbertsioen zenbatekoek kuota likidoaren 100eko 15eko kenkaria izateko eskubidea izanen dute, beti ere Ekonomi eta Ogasun Departamentuak bere onespren berariazkoa ematen badu eta, hala behar denean, gaiaren gaineko erakunde ofizial eskudunak bere txostena eman ondoren.

70. artikulua. Kenkariak, liburuen edizioetan, ekoizpen zinematografikoetan eta interes kulturalerako ondasunetan egindako inbertsioengatik.

1. Seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik, euskarri fisikoa bideratuko duten liburuen edizioetan egindako inbertsioek kuota likidoaren 100eko 5eko kenkarirako eskubidea ematen dute.

2. Seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik, euskarri fisikoa bideratuko duten Espainiako ekoizpen zinematografikoetan edo ikusentzunezkoetan egindako inbertsioek kuota likidoaren 100eko 10eko kenkarirako bidea ematen dute.

3. Interes kulturalerako Ondasunetan eginiko inbertsioek eskubidea ematen dute urriaren 3ko 217/1986 Foru Dekretuan xedatutakoaren babesean berariaz eta banan-banan interes kulturalerako Ondasun deklaratu diren ondasunetan eginiko inbertsioen kuota likidoaren 100eko 10eko kenkaria egiteko, eta orobat Interes Kulturalerako Ondasunen Erregistroan inskribatutako ondasunen zein Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak aipatzen duen Inbentario Orokorrean sartutako ondasunen kasuan. Ondorio hauetarako, inbertsioetzat joko dira Erregistroan

inskribatutako interes kulturekotzat deklaraturako ondasunak erosi, zaindu, konpondu, zaharberritu, zabaldu eta erakusteko erabiliko den diru-kopuruari dagozkion gastu aktibagarriak.

3. Sekzioa Enplegua sortzeko pizgarriak

71. artikulua. Kenkaria, enplegua sortzeagatik.

1. 500.000 pezetako kenkaria aplikatu ahalko da aurreko urteko ekitaldiarekin alderatuta plantilako batezbestekoa gehitzeko urtean hartzen duten epe mugagabeko lan-kontratazio bakoitzeko.

Plantilako batezbesteko gehiketa kalkulatzeko urteko/lan kontratu mugagabedunak soilik kontatuko dira. Lanaldi partzialeko kontratudunen kasuan benetan lan egindako orduen proportzioaren arabera kontatuko dira.

Kenkari osoak ezin gaudituko du entitatearen plantila osoaren urtea/pertsona kopuruaren batezbesteko gehikuntzari aipatu ekitaldian legokiokeena, edozein izanda ere kontratazio mota.

2. Aurreko ekitaldiko plantila osoaren batezbestekoa mantenduz, lan-kontratu mugagabeko enplantilaren batezbestekoa entitatearen plantila osoaren batezbesteko gehikuntzaren gainetik gehitzen bada, gehikuntza bien arteko diferentziagatik 200.000 pezetako kenkaria aplikatuko da urtea/pertsona bakoitzeko.

3. Aurreko 1 eta 2 zenbakietan aurreikusitako kenkariak 700.000 eta 280.000 pezetakoak izanen dira, hurrenez hurren, urtean kontratatzen diren langile minusbaliatu bakoitzeko, apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulaturako, aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.

4. Sozietate berriak sortzeko sozietate eta enpresa indibidualak bategiteak, zatitzeak edo eraldatzeak, eta oro har, enpresen ondorengotza edo jarraipenen kasuan, ez du berez enplegua sortzeagatik kenkaria aplikatzeko biderik emanen.

5. Kenkariaren oinarriak, 28.2 artikulua aipatzen dituen kasuetan, harremanetan dauden entitateen egoera bateratua izan beharko du kontutan.

6. Aurreko zenbakietan ezarritako kenkariak bateraezinak izanen dira euren artean.

4. Sekzioa Arau amankomunak

72. artikulua. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariaren gaineko arau amankomunak.

1. 63.etik 70.era arteko artikuluek aipatzen dituzten kenkariak aplikatzeko eskubidea noiz sortzen den zehazteko 42.2 artikuluaen bigarren lerroaldean xedatutakoa aplikatuko da.

2. 63.etik 70.era arteko artikuluek aipatzen dituzten kenkariaren oinarria kalkulatzeko kontuan hartuko dira inbertsioekin edo jarduerekin lotutako subentzioak, 42.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Subentzioa ematen bada kenkaria aplikatzeko garaiaren ondoko zergaldian, subjektu pasiboak egin behar duen aitortenean kenkariaren oinarrian egin gutxipenaren ondorioz soberan kendutako kuota zenbatekoa sartuko du.

3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak, 63. artikuluaen bigarren lerroaldean eta 71. artikuluan ezarritakoak izan ezik, ezin izanen dute barne ezarpen eta nazioarteko ezarpen bikoitzak saihesteko hobarietan eta kenkarietan kuota osoa murriztearen ondoriozko kuota likidua gaudituko.

Muga bera errespetatuz, nahikoa kuotarik egon ez delako kendu ez diren kopuruak aplikatu ahal izanen dira hurrengo jarraiko bost urteetan burutuko diren zergaldietako likidazioetan.

Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko epeen zenbaketa, derrigorrezko epearen barruan, emaitza positiboak lortzen dituen lehengo ekitaldira arte geroratu ahal izanen da kasu hauetan:

a) Entitate sortu berrietan.

b) Aurreko ekitaldietako galerak izan eta baliabide berriak benetan jarritz onbideratzen dituzten entitateetan, hortakotzat hartzen ez delarik erre-serben aplikazioa edo kapitalizazioa.

4. Inbertsio batek ezin izanen du kenkaria entitate batean baino gehiagotan aplikatzeko bide eman.

5. Kenkariaren baliatzeko, higiezinaren barruan egiten diren inbertsioen kontabilizazioa egitea eskatuko du, gainerako ondare-elementuetatik bereizita eta haien identifikaziorako bidea emanez. Halaberean, subjektu pasiboaren ondarean 5 urtean bederen egon beharko dute edo haren bizitza erabilgarrian, laburragoa balitz, salbu eta gastu arruntzat hartzen diren kontzeptuen kasuan.

6. Kenkariaren aplikazioa ordena honen arabera egin beharko da:

Barne ezarpen edo nazioarteko ezarpen bikoitzagatik hobariak eta kenkariak gauzatu ondotik, lehenbizi aurreko ekitaldietan sortu kenkariak apli-

katuko dira, bakoitzaren arautegian ezarritako muga errespetatzen delarik.

Ondotik, aurreko 3 zenbakian ezarritako muga aplikatu dakiekeen ekitaldiaren kenkariak gauzatu dira, beti ere, aurreko lerroaldeko kenkarien eta lerroalde honetako artean osotara 100eko 35eko muga gainditzen ez den bitartean.

Ondoren, kuota likidoaren gainean mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak, aurreko ekitaldiari dagozkionak, gauzatu dira.

Azkenik, kuota likidoaren gainean mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak, azken ekitaldiari dagozkionak, gauzatu dira.

7. Kenkariok subjektu pasiboak bere borondatez eginiko aitorpenetik ateratako kuotari aplikatuko zaizkio soilki, bai eta Administrazioak gauzatu-tako tributu erregularizaziotik ateratzen den kuotari ere, tributu inflazioagatik erantzukizunik ez bada bederen.

V. KAPITULUA Zatikako ordainketa

73. artikulua. Zatikako ordainketa.

Urte bakoitzeko urriaren lehenbiziko hogeitun egun naturala, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek alde aurreko ordainketa bat eginen dute, ekitaldi horri dagokion likidazioaren kontura, ondoko bi modalitateetako bat aplikatuz:

Lehena. Azken zergaldi bukatuari, edo Zerga aitorpena aurkezteko epea aurreko lerroaldean aipatu hogeitun egunetarik lehenbizikoan akitu zaion zergaldiari, dagokion kuota efektiboaren gainean 100eko 30 aplikatuz ateratzen dena. Ondorio horretarako kuota efektibotzat hartuko da zergaldi horretan subjektu pasiboari eginiko kenkari, hobari, atxikipen eta konturako sarreraren zenbatekoan kuota osoa murriztetik ateratzen dena.

Aurreko lerroaldean aipatzen den zergaldi bukatuak urtebete baino gutxiago irautean, aurreko ekitaldiari edo ekitaldiei dagozkien kuota ere hartuko da, propozionalki, harik eta hamabi hilabeteko aldia osatu arte.

Bigarrena. Urte natural bakoitzaren lehen bederati hilabeteko aldiaren zerga-oinarriari, hain zuzen ere Foru Lege honen arauak ezarritakoari, 100eko 20 aplikatuz ateratzen dena.

Subjektu pasiboek, beren zergaldia parean ez badator urte naturalarekin, konturako ordainketa eginen dute irailaren 30ren aurreko 9 hilabete naturalei dago(z)kien zerga-oinarria(k).

Ateratzen den zenbatekotik kendu eginen dira, hala behar denean, aldi horretan subjektu pasiboari kontura egin zaizkion atxikipenak eta dirusarrerak.

Modalitate horietako lehena besterik gabe aplikatu da, non ez duten subjektu pasiboek bigarrena hautatzen, beti ere Ekonomi eta Ogasun Departamentuan espresuki adierazten badute horretarako onetsitako eredu erabiliz, zeina aurkeztu beharko baita konturako zatikako ordainketa egiteko arauzko epearen barnean.

Kontura egiten den zatikako ordainketa Sozietateen gaineko Zergaren zortzat hartuko da, dagozkion zehapen eta errekaruak aplikatzeko eta gerorapen interesak likidatzeko aitorpenik egin ez, dirusarrerara egin ez edo ordainketa berandu egiten den kasuetarako.

Kontura egiten den ordainketaren zenbatekoa gehitu eginen zaie subjektu pasiboak efektiboki jasandako atxikipenei, ekitaldi horren azken kuota kalkulatzearren.

VI. KAPITULUA Kenkaria, konturako ordainketei

74. artikulua. Kenkaria, atxikipenei, konturako sarrerari eta zatikako ordainketei.

Hobarien eta kenkarien zenbatekoan kuota osoa gutxiagotzetik ateratzen den kuotari honakoak kendu ahal izanen zaizkio:

- a) Konturako atxikipenak.
- b) Konturako sarrerak.
- c) Zatikako ordainketak.
- d) Foru Lege honen X. Tituluaren II. Kapituluaren erregulatutako zerga gardentasunaren menpeko sozietateek ordaindutako kuota.

Kontzeptu hauek hobarien eta kenkarien zenbatekoan zergaren kuota osoa gutxiagotzetik ateratzen den zenbatekoa gainditzen dutenean, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ofizio bidez itzuliko du gaindikina.

VII. TITULUA Zergaren kudeaketa

I. KAPITULUA Entitateen indizea

75. artikulua. Entitateen indizea

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuan Entitateen Indizea egonen da. Horretan helbide fiska-

la Nafarroan duten horiek inskribatuko dira, 12. artikuluan aipatzen diren entitateak ezik.

2. Erregelamendu bidez, Entitateen Indizeko inskripzio, alta eta baja jardunbideak ezarriko dira, baita aurkeztu beharreko agiriak ere.

76. artikulua. Entitateen Indizeko baja.

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, doakien entzun eta gero, kasu hauetan hartuko du erabakia behin behineko bajari buruz.

a) Entitatearen Nafarroako Ogasun Publikoaren zerga zorrak hutsezkotzat jotzen direnean, arlo hori arautzen duten xedapenekin bat.

b) Entitateak Zerga horren aitortzen elkarren jarraiko hiru zergalditan aurkeztu ez duenean.

2. Behin behineko bajari buruzko erabakia kasuan kasuko Erregistro Publikoari jakinaraziko zaio, horrek doakion entitateari irekiriko orrialdean bazterreko ohar bat luza dezan. Horretan, erasota utziko da, hortik aurrera, ez dela inskripziorik egiten ahalko, hura ukitzen badu, Entitateen Indizeko alta ziurtagiria aurkeztu ezik.

3. Behin behineko bajari buruzko erabakiak ez du doakion entitatea dagozkiokoen zerga obligazioetatik bakarretik ere salbuetsiko.

77. artikulua. Lankidetzaren eginbeharra.

1. Nafarroako Erregistro Publikoetako titularrak, hilean behin, aurreko hilabetearen osaketa, ezarpena, aldaketa edo iraungipena inskribatu duten entitateen zerrenda igorriko diote Ekonomi eta Ogasun Departamentuari.

2. Eginbehar bera dagozkie Notarioei, edozein entitate mota osatu, aldatu, eraldatu edo iraungitzeko baimena ematen duten eskritura eta gainerrako agiriei dagozkienez.

II. KAPITULUA

Kontabilitate obligazioak. Borondatezko birbalorazioak

78. artikulua. Kontabilitate obligazioak. Administrazioaren eskumenak.

1. Zerga honen subjektu pasiboak beren kontabilitateaz Merkataritza Kodean aurreikusirikoa- ren edo haien arauetan ezarritakoaren arabera arduratu beharko dute.

2. Zerga Administrazioak egiaztapena eta ikerketa egiten ahalko du, subjektu pasiboari dagoz- kion kontabilitate, liburu, gutun, agiri eta ziurtagi- riak aztertuz, kontabilitate programak eta artxibo eta euskarri magnetikoak barne.

Zerga Administrazioak aurreko lerroaldean aipatzen diren agiri eta gainerako osagarriak zuzenean aztertzen ahalko ditu, bere langileen bidez, egokitzen jotzen diren apunte kontableen oharren hartzen eta haien kopia egiten ahalko dituelarik, baita euskarri magnetikoetan ere, zen- baki honetan aipatzen diren argibide edo agiri guztiei dagozkienez.

79. artikulua. Borondatezko kontabilitate birbalorazioak Oroit-idazkian aipatzea.

1. Kontabilitate birbalorazioak egin dituzten subjektu pasiboak, haien zenbatekoa zerga oinarri- rian sartu ez bada, haien zenbatekoa aipatu beharko dute Oroit-idazkian, baita ukituriko osa- gaiak eta egin zireneko zergaldia edo zergaldiak ere.

Aipamen horiek birbalorizaturiko osagarriak subjektu pasiboaren ondarean dauden ekitaldiei dagozkie oroit-idazki guztietan egin beharko dira.

2. Aurreko zenbakian ezarritako betebeharra ez betetzea zerga arau-hauste arina izanen da.

Arau-hauste hori, behin bakarrik, birbalorazioa- ren ehuneko 5eko isunaz zehatuko da. Haren ordainketak ez du berarekin ekarriko zenbateko hori, zerga ondorioetarako, birbalorazioaren xede den ondarezko osagarriaren balorazioari gainera- tzea.

III. KAPITULUA

Aitorpena-autolikidazioa

80. artikulua. Aitorpenak.

1. Zergak Nafarroako Ogasunari ordaintzen dizkioten subjektu pasiboak beharturik egonen dira Zerga honegatik aitorpena bat izenpetzera, Ekonomi eta Ogasun ezartzen duen leku eta moduan, ukitzen dituzten eta aitorpenetan ager- tzen diren datu guztiak beteko dituztelarik eta erregelamendu bidez ezartzen diren agiri eta ziur- tagiriak aurkeztuko.

Aitorpena zergaldia bukatu eta sei hilabete pasa ondoren 25 egun naturaleko epearen barre- nean aurkeztuko da.

2. 12. artikuluan aipatzen diren subjektu pasi- bo salbuetsiak ez dira beharturik egonen aitorpen hori aurkeztera.

3. X. Tituluko XII. Kapitulan aipatzen diren subjektu pasiboak beharturik egonen dira salbue- tsirik ez dauden errentei buruz aitorpena aurkez- tera, salbu eta errenta horiek atxiki beharrenden menpe baleude eta eskuratzen diren bakarrak balira.

4. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak aitorpenak biltzen ahalko ditu eta haiek gehitzen, baita ikusten diren akatsak zuzentzen ere, tributua likidatzeko eta egiaztatzeko beharrezkoa den horretan.

5. Hala bada, subjektu pasiboak eginiko aitorpenaren ondorioz sortzen den zorraren ordainketa, osagarria delarik ere, egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketak hasi direla jakinarazi eta gero egiten bada, behin betiko likidazioaren zenbatekoaren gaineko konturako dirusarrera hutsa izanen da, ez duelarik eragotziko izan litezkeen zehapenak ezartzea, behin betiko kuotaren eta hura jakinarazi baino lehen ordaindurikoaren arteko aldearen gainean.

81. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorra ordaintzea.

1. Subjektu pasiboek, aitorpena aurkezten dutenean, beren zorra ezarri beharko dute eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ezartzen duen leku eta moduan ordaindu.

2. Zerga zorra espreski eta banan-banan Kultur Intereseko Ondasuntzat jotzen diren ondasunak aurkeztuz ordaintzen ahalko da, urriaren 3ko 217/1986 Foru Dekretuan ezarritakoaren babesean, baita Kultur Intereseko Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribaturiko ondasunak eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipatzen den Inbentario Orokorrean sarturiko ondasunak aurkeztuz ere.

Aipaturiko ondasunen ordainketaren ordainetarako ematea dela eta agerian jartzen diren errentak ez dira zerga oinarrian sartuko.

IV. KAPITULUA Likidazioa

82. artikulua. Likidazio motak.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egiten dituen likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izanen dira.

Administrazioak, zergaia egiaztatu ondoren, behin betikoz egiten dituenak izanen dira behin betikoak.

Gainerako kasuetan, behin-behinekoak izanen dira, direla konturakoak, osagarriak, kaudimenezkoak, parte batekoak edo guztirakoak.

83. artikulua. Behin behineko likidazioa.

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko zerga kudeaketarako organoek ofizioko behin behineko likidazioak egiten ahalko dituzte, zerga aitorpenetan agertarazirik datuen arabera eta

aitorpenarekin batera aurkezturiko edo horretarako eskaturiko ziurtagirien arabera.

Halaber, ofizioko behin behineko likidazioak egiten ahalko dituzte eskura dauzkaten froga osagarriek nabarmentzen dutenean zergaia egin dela, haren osagarri aitortugabeak badaudela edo zerga zorraren zenbatekoaren osagarri erabakigarriak, aitortuak ez beste, badaudela.

Halaber, ofizioko behin behineko likidazioak egiten dira, zerga itzulketak direla eta, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eginiko itzulketaren zenbatekoa subjektu pasiboak eskatzen duenarekin bat ez datorrenean, lehenengo lerroaldean aurreikusten diren gorabeherak gertatzen direnean edo zenbaki honetako bigarren lerroaldean aipatzen diren froga osagarriak eskura daudenean.

2. Likidazio horiek egiteko, kudeaketarako organoek zerga aitorpenetan agertarazten diren egintza, osagarri eta balorazio guztiak egiaztatzen ahalko dituzte.

3. Aurreko zenbakian ezarritakoa ulertuko da Zerga Ikuskapenak egin lezakeen ondorengo egiaztapen eta ikerketa deustan galarazi gabe.

4. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eginiko likidazioen ondorioz subjektu pasiboak ordainduriko kopurua baino gehiago den zerga sortzen denean, bien arteko aldeagatik, kasuan kasuko aitorpena aurkezteko epea iraungitzen denetik den atzerapenagatik korrituen sortzapena izanen da, hala bada, bidezko diren zehapen eta errekar-guak deustan galarazi gabe.

84. artikulua. Likidazioen betebeharrak.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egiten dituen likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkio. Beti ere adieraziko da:

a) Haren funtsezko osagarriak. Oinarriak, zergarena edo likidazioarena, subjektu pasiboak aitortu zituenei buruz gehitzea dakartenean, eragiten duten egintza eta osagarriak zehazki adierazi beharko ditu.

b) Erabil daitezkeen inpugnatzeko bideak, paratzeko epeak eta organoak azalduko direlarik.

c) Zerga zorra ordaindu behar den leku, epe eta modua.

Aurreko betebeharrak betetzen ez dituzten jakinarazpenek, hala ere, subjektu pasiboak espreski jakitun dagoela adierazten, bidezko den errekurtsioa paratzen edo zerga zorra ordaintzen duen egunetik aurrera izanen dituzte ondorioak.

Ondorioak izanen dituzte, sei hilabete pasata, subjektu pasiboari banan-banan igorritako jakina-

razpenek, egintzaren testu osoa badute, bestelako betebeharrak jartzen ez badute ere, epe horretan, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari akatsa zuzentzeko eskaera formala egiten zaionean ezik.

85. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak noiz-nahi ere zuzenduko ditu, ofizioz edo doakionak eskaturik, gauzako, egintzako eta zenbakizko akatsak, zuzenketaren xede den egintza izan zenetik bost urte pasa ez badira.

V. KAPITULUA
Ofizioko itzulketa

86. artikulua. Ofizioko itzulketa

1. 74. artikuluan aipatzen diren konturako dirusarreraren batura ezarriko epean aurkezturiko autolikidazioaren ondoriozko kuota baino gehiago denean eta Zerga Administrazioak, aitortpena aurkezteko epea bukatu eta sei hilabeteren barruan behin behineko likidaziorik egin ez duenean, Ekonomi eta Ogasun Departamentua, ondorengo hila-betean, beharturik egonen da kuota autolikidatuaren gainean sarturiko gehiegizkoa ofizioz itzultzera, bidezko izan litezkeen ondorengo behin behineko likidazioak deustan galarazi gabe.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den behin behineko likidazioa egin denean eta haren ondoriozko kuota 74. artikuluan aurreikusirik konturako dirusarreraren batura baino gutxiago denean, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, hilabeteko epearen barrenean, kuota horren gainean ordainduriko gehiegizkoa ofizioz itzuliko du.

Itzulketaren zenbatekoa ez da, inoiz ere, egini-ko konturako atxikipen eta dirusarreraren zenbatekoa, ordainketa zatitua eta zerga gardetasunaren araubidearen menpe dauden sozietateek ordainduriko kuota baino gehiago izaten ahalko.

3. Itzulketa egiteko epea hura egin gabe pasata, subjektu pasiboak eskatzen ahalko du, idatziz, atzerapen-korrituak ordain dakizkiola, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 24. artikuluan ezarriko moduan.

4. Erregelamendu bidez artikulua honetan aipatzen den ofizioko itzulketa egiteko jardunbidea, betebeharrak eta ordainketa modua ezarriko dira.

VI. KAPITULUA
Dirubilketa

87. artikulua. Dirubilketa.

1. Zerga zorra epe hauen barruan ordaindu beharko da:

a) Zerga honen autolikidazioaren ondoriozko zorrerako, aitortpena aurkezteko 80.1 artikuluan ezarriko epearen barrenean.

b) Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egini-ko likidazioen ondoriozko zorren kasuan, jakinarazi eta hilabeteko epearen barrenean.

2. Nahitaez ordaintzeko epea likidatu edo autolikidaturiko zorrak ordaintzeko epeak, aurreko zenbakian ezarrikoak, bukatu eta biharamunean hasiko da. Halarik ere, ordaindu beharreko zorra epe hartatik kanpo aurkezturiko autolikidazioaren bidez bada, hura ordaindu gabe, nahitaez ordaintzeko epea aurkezpenaren egunean hasiko da.

3. Maiatzaren 2ko 3/1989 Foru Legeko 67. artikuluan, artikulua honetako 1 zenbakian ezarriko epeetatik kanpo izaniko ordainketei buruz, ezarriko deustan galarazi gabe, nahitaez ordaintzeko epeko zorren dirubilketa, premiamendu bidez, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 17.2 artikuluan ezarrikoaren arabera egingen da.

VII. KAPITULUA
Kontura atxiki eta ordaindu beharreko obligazioa

88. artikulua. Konturako atxikipenak eta konturako dirusarrerak.

1. Zerga honen menpe dauden errentak ordaintzen dituzten entitateak, ondasun eta jabe erkidegoak barne, beharturik egonen dira kontura atxiki edo dirusarrerak egitera, konturako dirusarrerara kontzeptuagatik, erregelamendu bidez ezartzen den diru kopurua. Banako enpresariak eta profesionariak ere, enpresari edo profesionari jardueretan jardutean ordaintzen dituzten errentei dagokienez, beharturik egonen dira kontura atxiki eta dirusarrerak egitera, baita Espainian egoitza ez duten baina bertan kokagune iraunkorra izanik diharduten pertsona fisiko, juridiko eta gainerako entitateak ere.

Konturako atxikipen eta dirusarrerak Nafarroako Ogasun Publikoari egin beharko zaizkio, erregelamendu bidez ezartzen den epean eta moduan.

2. Kontura atxiki eta ordaintzera beharturiko subjektuek, erregelamendu bidez ezartzen diren epe, modu eta lekuetan, atxikiriko kopuruen eta konturako dirusarreraren aitortpena aurkeztu beharko dute. Kontura atxiki edo ordaindu beharreko errentak ordaindu badira ere, haiek egitea bidezko ez denean ere aurkeztu beharko da kasuan kasuko aitortpena.

Halaber, konturako atxikipen eta dirusarreraren urteroko laburpena ere aurkeztuko du, erregelamendu bidez ezartzen den edukia izanen duena.

3. Kontura atxiki edo ordaintzera beharturiko subjektuak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, eginiko atxikipena edo kontura eginiko bestelako dirusarrerak frogatzen dituen ziurtagirriak luzatu beharko ditu.

4. Aurreko zenbakietan aipatzen diren konturako atxikipen edo dirusarrerak zerga zortzat joko dira, kasuan kasuko zehapen eta errekarquak ezartzerakoan, baita, aitorten aurkeztzen ez denean edo ordaintzen ez denean edo horietariko edozein betebeharr berandu betetzen denean, atzerapen-korrituak likidatzerakoan ere.

5. Erregelamendu bidez, atxikipenik egin beharrik ez dagoen kasuak ezarriko dira. Partikularzki, ez da atxikipenik eginen:

a) 12. artikuluan aipatzen diren entitateek eskuraturiko errentetan.

b) Banatzen dituen entitatea zerga gardentasuneko araubidean dagoeneko zergaldien ondoriozko dibidendu edo mozkinetako partaidetzetan.

c) Sozietate taldeen araubidean zergak ordaintzen dituen talde bat osatzen duten sozietateen artean ordainduriko dibidendu edo mozkinetako eta korrituetako partaidetzetan.

d) 59. artikuluko 2 zenbakian aipatzen diren dibidendu edo mozkinetako partaidetzetan.

VIII. KAPITULUA Iraungitzea.

89. artikulua. Iraungitzea

Eskubide eta ekintza hauek bost urte pasata iraungiko dira:

a) Administrazioak kasuan kasuko likidazioaren bidez zerga zorra ezartzeko eskubidea.

b) Likidaturiko zerga zorren ordainketa eskartzeko ekintza.

c) Zerga zehapenak ezartzeko ekintza

d) Behar ez bezala izaniko dirusarrerak itzultzeko eskubidea.

90. artikulua. Zenbatzea.

Iraungitzeko epea, aurreko artikuluan aipatzen diren kasuetan, honela hasiko da kontatzen:

a) letrako kasuan, kasuan kasuko aitopena aurkezteko erregelamenduzko epea bukatzen den egunetik aurrera; b) letrako kasuan, borondatezko ordainketarako epea bukatzen den egunetik

aurrera; c) letrako kasuan, kasuan kasuko arauhausteak egin zirenetik aurrera; eta d) letrako kasuan, behar ez bezalako dirusarrera egin zen egunetik aurrera.

91. artikulua. Etetea.

1. 89. artikuluko a), b) eta c) letretan aipatzen diren iraungitze epeak etenen dira:

a) administrazioaren edozein ekintzagaratik, subjektu pasiboak formalki jakinik, zergagai bakoitzagaratik sorturiko zerga ezagutu, erregularizatu, ikuskatu, aseguratu, egiaztatu, likidatu eta biltzearen.

b) edozein erreklamazio edo errekurso mota paratzeagaratik.

c) Subjektu pasiboak zorra ordaindu edo likidatzeko egiten duen edozein ekintzagaratik.

2. 89. artikuluko d) letretan aipatzen den iraungitze epea subjektu pasiboaren edozein egintza eragingarriengatik etenen da, behar ez bezalako ordainketa itzultzea badu xede, edo Administrazioak hura aitortzen duen edozein egintzagaratik.

3. Zergaren edo likidazioaren oinarria eta kuota kenkariak kalkulatzeko likidazioan edo autolikidazioan sartzen badira osagarri batzuk, zeinen sartzeta edo kenkaria bestelako zergaldietan egin baita, Foru Lege honetan xedaturikoarekin bat, 89. artikuluko a) letretan aipatzen den iraungitze epea etenen da, osagarri horiei dagokienez.

92. artikulua. Aplikazioa.

Iraungitzea ofizioz aplikatuko da, subjektu pasiboak horretarako dei egin edo salbuetsi beharrik gabe.

IX. TITULUA Errekurtsoak

93. artikulua. Errekurtsoak.

1. Aitorpen-likidazioen edo autolikidazioen zuzenketaren alorrean xedaturikoa deustan galaz gabe, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko organoek eginiko likidazio eta gainerako administrazio egintzen aurka, Nafarroako Gobernuan, gora jotzeko errekurtsua paratzen ahalko da, formalki jakinarazi eta hilabeteko epearen barranean.

2. Administrazioak beti ere espreski ebatzi beharko du.

3. Inpugnaturiko administrazio egintzaren burutzea doakionak eskaturik etenen da, errekurtsua paratzen denean, erregelamendu bidez ezar-

tzen den moduan, zerga zorraren zenbatekoa bermatzen bada.

Hura, paraturiko errekurtsua ezetsi delako, ordaintzen denean, atzerapen korrituak ere ordaindu beharko dira, etenaldiak iraun duen denboragatik, gehi zerga zorraren ehuneko 5eko zehapena, Zerga Txosten eta Ebazpen organoak ausarkeria edo fede txarra igartzen dituen kasuetan.

Paraturiko errekurtsua aintzat hartzearen ondorioz jadanik ordaindurik dagoen diru kopuru bat itzuli behar bada, ordaindu zenetik diren atzerapen korrituak ordainduko dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 24. artikuluan ezarritako zenbatekoan.

4. Administrazioarekiko aferen jurisdikzioa, foru bide administratiboa bukatu eta gero, Administrazioaren eta zergaren subjektu pasiboen artean sor litezkeen egintzazko eta eskubidezko liskar guztiak ebazteko eskudun bakarra izanen da, Foru Lege honetan edozein gorabeherari buruz.

X. TITULUA

Zerga araubide bereziak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

94. artikulua. Definizioa

1. Zerga araubide bereziak Titulu honetan arautuak dira, bai ukituriko subjektu pasiboen izaeragatik, bai kasuan kasuko gertaera, egintza edo eragiketen izaeragatik.

2. Foru Lege honetako gainerako Tituluetan bilduriko xedapenak ordezko izaerarekin aplikatuko dira Titulu honetan espreski arauturik ez dagoen guztian.

II. KAPITULUA

Zerga gardentasuneko araubidea

95. artikulua. Sozietate gardenak.

1. Sozietate gardentzat hartuko dira:

a) Aktiboaren erdia baino gehiago balioez osaturik daukaten sozietateak eta ondasun edukitza hutseko sozietateak, ekitaldi sozialeko laurogeita hamar baino gehiago egunetan, hauetariko edozein gorabehera gertatzen denean:

a') Kapital sozialaren ehuneko 50 baino gehiago famili talde batena izatea. Famili taldea da zuzeneko edo zeharkako lerroko, odolezko edo

ahaidetasun loturen bidez, laugarren gradua arte, hori barne, baturiko pertsonen osatzen dutena.

b') Kapital sozialaren ehuneko 50 baino gehiago hamar edo hamar baino bazkide gutxiagorena izatea.

Zenbaki horretarako, ondasun edukitza hutseko sozietateak izanen dira aktiboaren erdia baino gehiago enpresari edo profesionari jardueren menpe ez daukaten sozietateak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarei buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 35. artikuluan zehaztu bezala.

Ondare elementu bat enpresari edo profesionari jardueren menpe dagoenez erabakitzeko, 6/1992 Foru Legeko 7. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontutan.

Bai aktiboaren balioa, bai enpresari edo profesionari jardueren menpe ez dauden ondare elementuena, kontabilitatearen ondoriozkoa izanen da, baldin eta horrek sozietatearen ondare egoera zintzoki adierazten badu. Bestela, merkatu balioa hartuko da.

a) letran ezarritako aurreikusiriko ondorioetarako, aktiboaren erdia baino gehiago balioz osaturik daukaten sozietatei dagokienez, ez dira balio gisa kontatuko:

1goa. Legezko eta erregelamenduzko obligazioak betetzeko edukitzen direnak.

2garrena. Enpresari edo profesionari jarduerak garatzean ezarritako kontratu harremanen ondoriozko kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

3garrena. Beren helburuzko jardueran aritzaren ondorioz Balio Sozietateek dauzkatenak.

4garrena. Gutienez ere bozkatzeko eskubideen ehuneko 5 ematen dituztenak, partaidetza zuzendu eta kudeatzeko edukitzen badira, horretarako, gauzazko eta giza baliabideen kasuan kasuko antolamendua edukiz gero eta parte harturiko entitatea letra honetan eta hurrengo bietan agertu ezik.

Letra honetan aurreikusiriko ondorioetarako, ez dira balio gisa kontatuko, ez eta enpresari edo profesionari jardueren menpe ez dauden ondare elementu gisa ere, haien erosketa prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino gutxiago bada, baldin eta mozkin horiek enpresari edo profesionari jardueren ondoriozkoak badira, muga bai urte berean bai azken hamar urteetan lorturiko mozkin haien zenbatekoa izanen delarik.

b) Ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 75 baino gehiago profesionari jardueren ondorioz dauzkaten sozietateak, baldin eta profesionariak, zuzenean edo zeharka jarduera haien garapenari loturik dauden pertsona fisikoek, berez edo laugarren gradua, hori barne, arteko beren senideekin batera gutxienez ere haien mozkinen % 50etan parte hartzeko eskubidea daukatenean.

c) Ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 50 baino gehiago pertsona fisikoek arte edo kirol jardueren ondorioz dauzkaten sozietateak, edo artistekin edo kirolariek loturiko beste edozein jardueraren ondorioz ere, baldin eta haien eta laugarren gradua, hori barne, arteko haien senideen artean gutxienez ere mozkinen % 25etan parte hartzeko eskubidea daukatenean.

2. Inolaz ere ez da aplikagarria izanen zerga gardentasuneko araubidea gorabehera hauetako baten bat gertatzen deneko zergaldietan:

a) Sozietatearen kapitaleko partaidetzaren balio adierazgarriak Balio Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean aurreikusirik bigarren balio-merkatu ofizial batetan negoziatzeko onarturik daudenean.

b) Zuzenbide Publikoko pertsona juridiko bat artikuluko honetako 1 zenbakiko a) letran aipatzen diren sozietateetarik bateko kapitalaren ehuneko 50 baino gehiagoko titularra denean.

c) Bazkide guztiak zerga gardentasuneko araubidearen menpe dauden pertsona juridikoak direnean.

96. artikulua. Gardentasun araubidea. Espainian egoitza duten bazkideei egotea.

1. Zerga gardentasuneko araubidean sozietate gardenek eskuraturiko likidazio oinarri positiboak haien bazkideei egotziko zaizkie, Zerga honen subjektu pasiboak baitira, Espainian egoitza badute.

2. Bazkideei egotzi beharreko oinarria Zerga honetako arauen ondoriozkoa izanen da.

Bai Administrazioaren ekintzen ondorioz, bai edozein errekurtsio motatako ebazpenaren ondorioz likidazio oinarriaren zenbatekoan dagoen ondorengo edozein aldaketak berarekin ekarriko du, orobat, aldea bazkideei egotea.

Likidazio oinarri negatiboak ez dira egotziko, sozietateak jarraiko eta ondorengo zazpi urteetan bukatzen diren zergaldietan eskuraturiko zerga oinarri positiboak gutxitu ditzaketelarik.

3. Bazkideei egotziko zaizkie:

a) Sozietate gardenak Sozietateen gaineko Zergako likidazioan bazkideei egotzi dien likidazio oinarriarekiko proportzionaltasunez aplikatzen dituen kuotako kenkari eta hobariak. Kenkarien eta hobarien bazkideen oinarriak likidazioan sartuko dira, zerga honetako berezko arauen arabera kuota gutxituko dutelarik.

b) Sozietate gardenari dagozkion ordainketa zatiak, konturako atxikipen eta dirusarrerak.

c) Sozietate gardenak ordainduriko kuota, baita sozietate horri egotzi dion kuota ere.

4. Likidazio oinarri positiboaren egoztearen jasan behar dituzten bazkideei dagozkien dibidendu eta mozkinetako partaidetzek, sozietatearen gardentasun araubidean zegoeneko zergaldien ondoriozkoak badira, ez dute Zerga honengatik tributatu. Dibidendu edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoa ez da sartuko egozten zaizkien bazkideen akzio edo partaidetzen erosketari balioan. Likidazio oinarri positiboaren egoztearen jasan behar duten bazkideei egotzi eta gero balioak eskuratzen dituztenean, zenbateko horretantxe gutxituko da haien erosketari balioa.

97. artikulua. Sozietate gardenen tributazioa.

Sozietate gardenek Zerga honengatik tributatu dute eta dagozkien kuota beste edozein subjektu pasiboren baldintzetan sartuko dute. Ez da bidezkoa izanen 74. artikuluan aipatzen den itzulketari, likidazio oinarriaren egoztearen jasan beharko duten bazkideei dagokienez.

Egoitza Espainian ez daukaten bazkideei dagozkien dibidendu eta mozkinetako partaidetzek kontzeptu horregatik tributatu dute, egoitzagabeen tributazioari buruzko arau orokorren eta Espainiak zergak bi aldiz ordaintzea saihesteko izenpeturiko hitzarmenen arabera.

98. artikulua. Egozte irizpideak.

1. Egozteak elkarte gardenaren zergaldia bukatzen den egunean bazkide izaerari dagozkion eskubide ekonomikoak dauzkaten egunen zaie, estatutu sozialen ondoriozko proportzioan eta, halakorik ezean, kapital sozialean daukaten partaidetzaren arabera.

2. Egoztearen egunen da:

a) Bazkideak sozietate gardenak direnean, parte harturiko sozietatearen ekitaldia bukatzen den egunean.

b) Gainerako kasuetan, parte harturiko sozietatearen ekitaldia bukatu eta biharamunean, ixten den egunean modu etengabearen egoztearen erabakitzeko denegatik.

Erabakiak ondorioak sortu behar ditueneko zergaren aitortzean adieraziko da eta gutienez ere hiru urtez eutsi beharko zaio.

99. artikulua. Parte hartzaileen identifikazioa.

Sozietate gardenek kapitaleko partaidetzen balio adierazgarriak nominatibo gisa mantendu edo nominatibo bihurtuko egin beharko dute.

Betebehar hau betetzen ez bada, zerga arau-hauste arintzat joko da eta 25.000tik 1.000.000 pezeta bitarteko isunarekin zehatzen ahalko da, betetzen ez deneko zergaldi bakoitzean. Sozietateko administratzaileak izanen dira erantzule solidarioak, salbu eta espreski aurreko lerroaldean aurreikusirikoa betetzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu dituztenak, gainerakoek onartu ez badituzte ere.

Artikulu honetako lehenengo lerroaldean ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, bazkide guztiak edo batzuk nor diren jakiterik ez balego, egozterik ez dagoen likidazio oinarriaren parteak, Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako eskalako gehieneko marginalaren adinako tasarekin.

III. KAPITULUA

Zerga gardeneko araubidea nazioartean

100. artikulua. Kontzeptua eta aplikatzeko baldintzak.

Espanian egoitza ez duen entitate batek eskuraturiko errenta pasitiboa sartuko da subjektu pasiboaren zerga oinarrian, baldin eta errenta hori 101. artikuluan aurreikusitako motetariko batekoa bada eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Bakarrik edo loturiko pertsona edo entitateekin batera, 28. artikuluko zentzuan, ehuneko 50eko edo hortik goitiko partaidetza izatea, zuzenean edo zeharka, Espainian egoitza ez duen entitatearen kapitalean, fondo propioetan, emaitzetan edo bozkatzeko eskubideetan, haren ekitaldi soziala ixten den egunean.

Espanian egoitza ez duten entitate lotuek daukaten partaidetza konputatuko da, ezartzen duen zeharkako partaidetzaren zenbatekoan, Espainian egoitza duten pertsona lotuengan edo entitate lotuetan.

Sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa emaitzetako partaidetzarekiko proportzionaltasunaren arabera ezarritakoa da eta, halakorik ezean, kapital, fondo propio edo bozkatzeko eskubideetako partaidetzarekiko proportzionaltasunaren arabera.

b) Espainian egoitza ez duen entitateak ordainduriko zenbatekoa, 101. artikuluan aurreikusitako errenta motetariko baten bati egoztekoa, zerga honetako adinako edo antzeko zamagatik, haren arauari jarraiki egokiko zitzaiokeenaren ehuneko 75tik beheitikoa izatea.

101. artikulua. Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboa.

1. Iturri hauetatik datorren errenta positiboa sartuko da zerga oinarrian:

a) Landa eta hiri ondasun higiezin edo haien gaineko eskubide errealeen titulartasunetik, salbu eta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 7. eta 35. artikuluetan xedatuaren arabera, enpresari jardueraren baten menpe badaude, edo entitate egoitzagabeei erabiltzeko utzirik badaude, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezarritako zentzuan, titularraren sozietate talde berekoak izanez gero.

b) Edozein entitate motatako fondo propioetako partaidetzatik eta hirugarrenei kapital propioak uzteatik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 29. eta 30. artikuluetan ezarri bezala.

Ulertuko da ez dagoela letra honetan sarturik finantza aktibo hauetatik datorren errenta positiboa:

a') Enpresari jardueretan aritzeak sorturiko legezko eta erregelamenduzko eginbeharrak betetzeko edukitzen direnetatik.

b') Enpresari jarduerak garatzearen ondorioz ezarritako kontratu harremanetatik sorturiko kreditu eskubideak biltzen dituztenetatik.

c') Balio merkatu ofizialetan bitartekari lanetan aritzeagatik edukitzen direnetatik.

d') Kreditu eta aseguru entitateek beren jardueretan aritzeagatik dauzkatenetatik, c) letran ezarritakoa deustan galarazi gabe.

Hirugarrenei kapital propioak uztearen ondoriozko errenta positiboa ulertuko da c) letran aipatzen diren kreditu eta finantza jardueren ondoriozkoa dela uzten zaiona eta uzten duena Merkataritza Kodeko 42. artikuluko zentzuko elkarte talde batekoak direnean eta gutienez ere uzten zaionaren dirusarreraren ehuneko 85 enpresari jardueren ondoriozkoak direnean.

Kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ulertuko da Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aipatzen den sozietate taldea abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuaren bidez onetsitako

urteroko kontu bateratuak egiteko arauen I Kapituluko 1. eta 2. Saitetan aurreikusia dela.

c) Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzu prestazio jardueretatik, salbu eta esportazio jarduerekin zuzenean zerikusia dutenak, Espainian egoitza duten eta 28. artikuluko zentzuan loturiko pertsona edo entitateek zuzenean edo zeharka eginak, entitate egoitzadun horietan zergei dago-kienz kengarri diren gastuak ezartzen dituzten neurrian.

Ez da errenta positiboa sartuko, kreditu, finantza, aseguru edo zerbitzu prestazio jardueren ondoriozko dirusarreraren ehuneko 50etatik goiti, entitate egoitzagabeak eginiko esportazio jarduerekin zuzenean zerikusia dutenak salbu, 28. artikuluko zentzuan loturik ez dauden pertsona edo entitateekin eginiko eragiketen ondoriozkoak direnean.

d) Errentak sortzen badituzte, a) eta b) letretan aipatzen diren ondasun eta eskubideak eskualdatzetik.

2. Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa Foru Lege honetan eta zerga oinarria zehazteko Zerga honi buruzko gainerako xedapenetan ezarriko hatsapen eta irizpideen arabera kalkulatu da. Guztirako errentatzat joko da irizpide eta hatsapen horiek berak aplikatzearen ondoriozko zerga oinarriaren zenbatekoa.

Ondorio horietarako, Espainian egoitza ez duen entitatearen ekitaldi soziala ixtean indarra duen truke tasa erabiliko da.

3. Espainian egoitza ez duen entitateak bere ekitaldi soziala bukatua daukaneko eguna duen zergaldian eginen da sartzea. Ondorio horietarako, ez du hamabi hilabete baino gehiagoko iraupena izaten ahalko, salbu eta subjektu pasiboak sartzea ekitaldi hartako kontuak onesten direneko eguna daukan zergaldian egitea erabakitzen duenean, baldin eta bukatu zenetik sei hilabete baino gehiago pasa ez badira.

Ondorioak izan beharko ditueneko zergaren lehenengo aitorpenean adierazi beharko da erabakia eta hiru urtez eutsi beharko zaio.

102. artikulua. Zerga oinarrian sartzen ez den errenta.

Errenta hauek ez dira zerga oinarrian sartuko:

1. Aurreko artikuluko 1 zenbakiko a), b) eta d) letretan aipatzen direnak, kasu hauetan:

1goa. Entitate egoitzagabeak lorturiko errenta horiek beste entitate batzuen ondoriozkoak badira, horietan zuzenean edo zeharka, ehuneko 5

baino gehiagotan parte hartuz gero eta bibetebehar hauek betez gero:

a') Entitate egoitzagabeak partaidetzak zuzendu eta kudeatzea, gauzako eta giza baliabideak behar bezala antolatutik.

b') Errentak lortzen direneko entitateen dirusarreraren ehuneko 85, gutienez ere, enpresari jardueren ondoriozkoak izatea.

Ondorio horietarako, ulertuko da enpresari jardueren ondoriozkoak direla aurreko artikuluko 1 zenbakiko a), b) eta d) letretan aurrikusiriko errentak, haien jatorria aurreko b') letrako betebeharra betetzen duten entitateetan badatza eta entitate egoitzagabeak, zuzenean edo zeharka, gutienez ere ehuneko 5etan haietan parte hartzen badu.

2garrena. Errenten zenbatekoen batura guztirako errentaren ehuneko 15 edo entitate egoitzagabearen dirusarrera guztien ehuneko 4 baino gutxiago denean.

Aurreko lerroaldean ezarriko mugak Espainian egoitza ez duten entitate guztiek lorturiko errenta edo dirusarrerei egokitzen ahalko zaizkie, Merkataritza Kodeko 42. artikuluko zentzuko sozietate taldekoak badira.

Entitate egoitzagabearen guztirako errenta baino gehiago den kopururik ez da behin ere sartuko.

2. 101. artikuluan aipatzen diren errentak, Espainian egoitza duten entitateek zergei dago-kienz kengarri ez dituzten gastuekin bat datozen.

3. Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, zerga oinarrian sartu den errenta positiboari dago-kionean. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Erreserba banaketaren kasuan, hitzarmen sozialeko izendapena hartuko da kontutan, ulertuko delarik erreserba horiei ordainduriko azkeneko diru kopuruak aplikaturik daudela.

Errenta positibo bera bakarrik behin sartzen ahalko da, edozein delarik haren forma eta agertzen deneko entitatea.

103. artikulua. Kuotako kenkariak.

Kontzeptu hauek izanen dira kuota osoko kengarriak:

a) Zerga honetako adinako edo antzeko zerga edo zamak, benetan ordaindu badira, zerga oinarrian sarturiko errenta positiboari dagokionean.

Benetan ordainduriko zergatzat joko dira entitate egoitzagabeak edo berak parte harturiko

sozietateek ordaintzen dituztenak, baldin eta 61.2 artikuluan ezarritako partaidetza ehunekoko partaidetza badu.

b) Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak banatzeagatik atzerrian benetan ordainduriko zerga edo zama, bai zergak bi aldiz ordaintzea saihesteko hitzarmenaren arabera, bai kasuan kasuko estatu edo herrialdeko barneko legeriarekin bat, zerga oinarrian aurretik sarturiko errenta positiboari dagokionean.

Entitate egoitzagabearen gaineko partaidetza zeharka, beste entitate egoitzagabe bat edo batzuen bidez, egiten denean, Zerga honetako adinako edo antzeko zerga edo zama kenduko da, hark edo haiek zerga oinarrian aurretik sarturiko errenta positiboari dagokion partean benetan ordaindua bada.

Kenkari horiek eginen dira zergak sartzeari zena ez beste zergaldiei dagozkien arren.

Erregelamendu bidez zerga paradisutzat jotzen diren estatu edo herrialdeetan ordainduriko zergai ez zaie behin ere kenkaririk eginen.

a) eta b) letretako kenkarien batura ez da zerga oinarrian sarturiko errenta positiboagatik Espanian ordaindu behar den kuota osoa baino gehiago izaten ahalko.

104. artikulua. Partaidetzen eskualdaketaren ondoriozko errenta.

Zuzeneko edo zeharkako partaidetzaren eskualdaketaren ondoriozko errenta kalkulatzeko, 26.2 artikuluan aipatzen diren arauak aplikatuko dira. Agindu horrek aipatzen dituen mozkin sozialak zerga oinarrian sarturiko errenta positiboari dagozkionak izanen dira.

105. artikulua. Zerga paradisuetan egoitza dutenak.

Parte harturiko entitateak zerga paradisutzat jotzen den estatu edo herrialde batean egoitza duenean, ulertuko da:

a) 100. artikuluko b) letran aurreikusiriko gorabehera betetzen dituela.

b) Parte harturiko entitateak lorturiko errenta 101. aipatzen diren errenta iturrietatik datorrela.

c) Parte harturiko entitateak lorturiko errenta partaidetzaren erosketa balioaren ehuneko 15ekoa dela.

Aurreko letretan aipatzen diren irizpideek kontrako frogak onartuko dituzte.

Aurreko letretan aipatzen diren irizpideak ez dira aplikatuko parte harturiko entitateak bere kon-

tuak bateratzen dituzenean, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aurreikusirikoarekin bat, sartzeari egitera beharuriko entitateekin.

106. artikulua. Betebehar formalak.

Aurreko artikuluan aurreikusia aplikatu dakiekeen subjektu pasiboek, Zerga honen aitortzearekin batera, Espainian egoitza ez duen entitateari buruz datu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Izena edo arrazoi soziala eta helbide sozialerako tokia.

b) Administrazioaren zerrenda.

c) Gal-irabazien balantze eta kontua.

d) Zerga oinarrian sartu behar den errenta positiboaren zenbatekoa.

e) Zerga oinarrian sartu behar den errenta positiboari buruz ordainduriko zergen justifikazioa.

IV. KAPITULUA

Ekonomi intereseko elkargoak, Espainiakoak eta Europakoak

107. artikulua. Espainiako ekonomi interes elkargoak.

Apirilaren 29ko 12/1991 Legearen bidez arautzen diren ekonomi intereseko elkargoei zerga gardentasuneko araubidea aplikatzen ahalko zaie, Foru Lege honetako X. Tituluko II. Kapituluaren arautuak, berezitasun hauek kontutan harturik:

a) Entitate horiek ez dute Sozietateen gaineko Zergagatik tributatu, Espainian egoitza duten bazkideei dagozkien likidazio oinarriaren parteagatik, hori bazkideei berei egotziko zaie eta.

b) Ez da mugarik aplikatuko likidazio oinarri negatiboaren egozteari buruz.

Zerga araubide hau ez da aplikagarria izanen zergaldi batzuetan, hain zuzen ere, Elkargoek xede ez dituzten beste jardura batzuk egiten dituztenean edo, zuzenean edo zeharka, kide dituzten sozietateetan partaidetzak dituztenean, edo zuzenean edo zeharka, beren bazkideen edo hirugarrenen jarduerak zuzendu edo kontrolatzen dituztenean.

Elkargoko kideek beren kontabilitate erregistroetan kontu guztiz bereiztuak eduki beharko dituzte, elkargoaren xedea burutzeari ondorioz haren dituzten harremanak erakusteko.

108. artikulua. Europako ekonomi intereseko elkargoak.

1. Europako Elkarteetako Kontseiluak uztailaren 25ean eman zuen 2137/1985 Erregelamen-

duaren bidez arauturiko Europako ekonomi intereseko Elkargoek zerga gardentasuneko araubidea aplikatzen ahalko zaie, Foru Lege honetako X. Tituluko II. Kapituluaren aratu bezala, berezitasun hauek berezitasun:

a) Entitate horiek ez dute Sozietateen gaineko Zergagatik tributatu.

b) Ez da mugarik aplikatuko likidazio oinarri negatiboen egozteari buruz.

2. Europako ekonomi intereseko Elkargoetako bazkideek, Espainian egoitza badute eta Nafarroako Ogasun Publikoari tributatu badiote, Elkargoan ezarritako likidazio oinarriari dagokien parte sartuko dute zerga oinarrian.

3. Europako ekonomi intereseko Elkargoetako bazkideek, Espainian egoitza ez badute eta Nafarroako Ogasun Publikoari tributatu badiote, Elkargoan ezarritako irabazi edo galerei dagokien parte sartuko dute zerga oinarrian, zerga oinarria ezartzeko arauak aplikatu eta gero zuzenduta.

4. Espainian egoitza ez duten baina benetan zergak ordaintzera beharturik dauden bazkideei egotzitako mozkinak ez dira tributazioaren menpe egonen banaketagatik.

5. Aurreko zenbakietan aurreikusitako araubidea ez aplikatzeko izanen zergaldi batzuetan, hain zuzen ere Europako ekonomi intereseko Elkargoak bere xede ez beste jarduerak egiten dituen horietan edo 2137/1985 Erregelamenduko 3. artikuluko 2 zenbakian debekaturik dauden jarduerak egiten dituen horietan.

6. Europako ekonomi intereseko Elkargoek aurreko artikuluko azkeneko lerroaldean ezarritako bete beharko dute.

V. KAPITULUA

Enpresak aldi baterako batzea

109. artikulua. Enpresak aldi baterako batzea.

1. Horretarako erabiliriko Erregistroan inskribaturiko enpresen aldi baterako batasuneko zerga gardentasuneko araubidean tributatu dute, Foru Lege honetako X. Tituluko II. Kapituluaren arauturiko moduan, berezitasun hauek berezitasun:

a) Entitate horiek ez dute tributatu Sozietateen gaineko Zergagatik Espainian egoitza duten kideei egotz dakiekeen likidazio oinarriaren zatigatik.

b) Likidazio oinarrien egozteari buruz ez da mugarik aplikatuko.

2. Atzerrian diharduen enpresen aldi baterako batasuneko kideek lotzen ahalko diote salbuespen metodoari atzeritik datozen errentegatik.

3. Atzerrian egin edo ematen diren obra, zerbitzu edo horniduretan parte hartzen duten entitateek, aldi baterako batasunen antzeko lankidetzaren moduen arabera, atzerriko datozen errentei buruz salbuespena gozatzen ahalko dute.

Entitateek Ekonomi eta Ogasun Departamentuari eskatu beharko diote salbuespena, Espainian egoitza duten enpresen aldi baterako batasunei eskatzen zaizkien antzeko argibideak aurkeztuko dituztelarik.

4. Salbuesteko harturiko erabakiak aldi baterako batasuna iraungi arte aplikatzera behartuko du. Aldi baterako batasunak dirauen bitartean ekitaldi guztietan lorturiko errenta negatiboa kideen zerga oinarrian sartuko da, iraungitzea gertatu zeneko zergaldian.

5. Zerga araubide hau ez da aplikatzeko izanen subjektu pasiboak xede soziala ez beste jarduerak egiten dituen zergaldietan.

6. Enpresen aldi baterako batasunetako kideek haien zerga zorreetatik solidarioki erantzunen dute. Kideen erantzukizuna batasunarenaren subsidiarioa da.

7. Aldi baterako batasunetako kideek 107. artikuluko azkeneko lerroaldean xedaturikoa bete beharko dute.

VI. KAPITULUA

Arrisku-kapitaleko sozietate eta fondoak.

110. artikulua. Arrisku-kapitaleko sozietate eta fondoak.

1. Martxoaren 14ko 1/1986 Errege Dekretu-legearen bidez arauturiko arrisku-kapitaleko sozietate eta fondoek enpresen kapitaleko akzio eta partaidetzen eskualdaketatik lortzen dituzten errentegatik salbuespena gozatu dute, Errege Dekretu-lege hartako 12. artikuluan ezarri bezala, enpresetan parte hartzen badute eta erosketatik salmentara bi urtetik 11 urte bitarte iragan badira.

Lehenengo bi urteetan eta hamaikagarren urteaz geroztik ez da salbuespena aplikatuko.

2. Arrisku-kapitaleko sozietate eta fondoek bultzatzen edo sustatzen dituzten entitateek lorturiko dibidenduek eta, orokorrean, mozkinetako partaidetzek 59.2 artikuluan aurreikusitako kenkaria gozatu dute, edozein delarik partaidetza ehuneko eta akzioak edo partaidetzak eduki dituzten denbora.

3. Arrisku-kapitaleko sozietate eta fondoetatik eskuraturiko dibidenduek eta, orokorrean, mozkinetako partaidetzek 59.2 artikuluan aurreikusiriko kenkaria gozatuko dute, edozein delarik partaidetza ehunekoa eta akzioak edo partaidetzak eduki dituzten denbora.

VII. KAPITULUA Inbertsio kolektiboko erakundeak

111. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakunde-en tributazioa.

1. Abenduaren 26ko 46/1984 Legearen bidez araturiko inbertsio kolektiboko erakundeek, zama tasa orokorraren menpe daudenak ezik, ez dute eskubiderik izanzen kuotako kengarrietarako.

2. Dirusarrerren gainean eginiko ordainketa zatitu, konturako atxikipen eta dirusarrerren zenbatekoa kuota osoa baino gehiago denean, Zerga Administrazioak itzuli egingen du gehiegizkoa, ofizioz.

112. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakunde-etako bazkide edo partehartzaileen tributazioa.

Bazkide edo partehartzaileek kontzeptu hauek sartuko dituzte zerga oinarrian:

a) Akzio edo partaidetzen eskualdaketaren edo partaidetzen errenboltsuaren ondorioz lorturiko errenta, positiboa zein negatiboa.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeak banaturiko mozkinak. Mozkin horiek ez dute eskubiderik sortuko zergak bi aldiz ordaintzeagatik kenkarietarako.

113. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakunde-en akzio edo partaidetzetako errenta kontabilizatuak.

Subjektu pasiboak kontabilizaturiko errenten zenbatekoa sartuko da zerga oinarrian, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen ondoriozkoak badira.

114. artikulua. Zerga paradisutzat jotzen diren estatu edo herrialdeetan eraturiko inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partehartzaileen tributazioa.

1. Erregelamendu bidez zerga paradisutzat jotzen diren estatu edo herrialdeetan eraturiko inbertsio kolektiboko erakundeetan parte hartzen duten subjektu pasiboek zergaldia ixten den eguneko partaidetzako likidazio balioaren eta haren erosketa balioaren arteko alde positiboa sartuko dute zerga oinarrian.

Zerga oinarrian sartzen den kopurua erosketa balio nagusizat joko da.

2. Ulertuko da, kontrako frogarik ez badago, 1 zenbakian aipatzen den aldea akzio edo partaidetzaren erosketa balioaren ehuneko 15ekoa dela.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeak banaturiko mozkinak ez dira zerga oinarrian sartuko eta gutxitu egingen dute partaidetzaren erosketa balioa. Mozkin horiek ez dute eskubiderik sortuko zergak bi aldiz ordaintzeagatik kenkarietarako.

VIII. KAPITULUA Sozietate-multzoen araubidea

115. artikulua. Definizioa.

1. Sozietate-multzoek Kapitulu honetan ageri den zerga-araubidea hartu ahalko dute. Hala bada, taldeetan sartzen diren sozietateek ez dute banakako araubidean zerga-ordainketarik egin beharko.

2. Zerga-ordainketarako banakako araubidea honako hau izango da: sozietate bakoitzari legokiokeena baldi eta sozietate-multzoen araubidea aplikatzerik ez balego.

116. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Sozietate-multzoak subjektu pasiboaren izaera izango du.

2. Sozietate nagusiak sozietate-multzoen ordezkari izango du, eta sozietate-multzoen araubidearen ondoriozko zerga-ordainketako betebeharrak gauzatzeko eta formazkoak bete beharko ditu.

3. Bai sozietate nagusiak eta bai menpeko sozietateek ere banakako araubidearen ondoriozko zerga-ordainketako betebeharrak bete beharko dituzte, araubide horretako zerga-zorraren ordainketa ezik.

4. Sozietate nagusiaren aurrean edo eta sozietate-multzoko edozein erakunderen aurrean egingen diren egiaztatze jarduketara administratiboek edo ikerketek, sozietate nagusia jakinaren gainean dagoela, eten egingo dute aipatu sozietate-multzoa ukitzen duen Sozietateen gaineko Zergaren preskripzio-epea.

117. artikulua. Sozietate-multzoaren definizioa. Sozietate nagusia. Menpeko sozietateak.

1. Honako hau da sozietate-multzoa: Espainia-ko lurraldean egoitza duen sozietate anonimo, sozietate mugatu eta akzioaren bidezko sozietate komanditarioek osatutako sozietate multzoa. Sozietate multzo honetan bada, gainera, sozietate nagusia eta honen menpeko gainerako sozietateak.

Sozietate nagusiak izango dira, baita ere, nor-tasun juridikoa izan eta Sozietateen gaineko Zergaren menpe daudenak, eta ez salbuetsiak.

2. Sozietate nagusiak honako baldintza hauek betetzen dituen izango da:

a) Zerga-ordainketako araubide hau aplikagarria izango den zergaldiko lehen egunean, beste sozietate baten edo batzuen kapital sozialaren 100eko 90eko partaidetza edukitzea, gutxienez, zeharka edo zuzenean.

b) Partaidetza horri etengabe eutsi izatea lehenago letran esan den eguna baino urtebete lehenagotik, eta zergaldi osoan zehar ere eustea.

Zergaldi osoan zehar partaidetzari eusteko baldintza ez da eskatuko baldin eta entitate partaidetua desegiten bada.

c) Espainiako lurraldean egoitza duen eta sozietate nagusizat joa izateko baldintzak biltzen dituen beste baten menpekoea ez izatea.

d) Zerga-gardentasunaren araubide menpekoea ez izatea.

3. Sozietate nagusi batek aurreko zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen den partaidetza-baldintzak betetzen baditu beste inongo sozietatearen gainean, azken sozietate hau menpeko sozietatea izango da.

4. Ondoren aipatzen diren gorabeheretako bat bere baitan biltzen duten entitateek ezin izango dute sozietate-multzo batean parte hartu:

a) Zerga honetatik salbuetsita daudenek.

b) Zergaldia bukatzen denean ordainketa-eten-dura edo porrot egoeran daudenek, edo Sozietate Anonimoen buruzko Legearen Testu Birbilduko 260. artikuluko 1. ataleko 4. zenbakiak aurreikusten duen ondare-egoeran dagoenak, sozietate anonimo erako antolamendua ez izanik ere, baldin eta urteko kontuak onartzen direneko ekitaldia bukatu baino lehen aipatu egoera hori gainditu ez bada.

c) Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar duten menpeko sozietateek, karga-tasa sozietate nagusiaren ezberdina denean.

d) Sozietate-multzoko parte izateko ezarritako baldintzak biltzen ez dituen beste sozietate baten bidez partaidetutako menpeko sozietateak.

5. Sozietate nagusiak bere izaera hau galtzen duenean sozietate-multzoa iraungiko da.

Alabaina, sozietate batek partaidetzen duenean sozietate-multzo bateko sozietate nagusia Titulu honetako IX. Kapituluaren arautzen diren opera-

zioetako baten bidez, sozietate horrek sozietate nagusizat joa izateko baldintzak betetzen dituen moduan, horrela eratu den multzo berriari aplikagarria izango zaio Kapitulu honetan aurreikusten den zerga-ordainketako araubidea, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari gaztigatu eta gero, eta lehengo multzoa desegiten den unetik aurrera.

118. artikulua. Sozietateak multzoan sartzea edo multzotik kanpo gelditzea.

1. Aurreko artikuluko 2.a) definitu den arabera-ko partaidetza lortzen denean sozietate baten gainean, sozietate hau sozietate-multzoan sartuko da derrigorrez, hurrengo zergaldiko ondorioetarako. Sozietate sortu berrien kasuan, eratzen den unetik beretik sartuko da multzoan, baldin eta eratzen den unean sozietate-multzo bateko kide izateko gainerako baldintzak betetzen baditu. Sozietate nagusiak emango dio Ekonomi eta Ogasun Departamentuari sozietate horien nortasunaren berri.

2. Bere izaera galtzen duten menpeko sozietateak sozietate-multzotik kanpo geldituko dira, kanporatze hau gertatzen den zergaldiko ondorioetarako. Sozietate nagusiak emango dio Ekonomi eta Ogasun Departamentuari sozietate horien nortasunaren berri.

119. artikulua. Zeharkako nagusitzea zehaztea.

1. Sozietate batek baduenean beste baten kapital sozialaren 100eko 90a, gutxienez, eta, bere aldetik, bigarren honek baduenean hirugarren baten beste hainbesteko partaidetza, hirugarrenak laugarrenarena, eta abar, lehen sozietateak gainerakoetan duen zeharkako partaidetza kalkulatzeko, kapital sozialaren gaineko partaidetza-portzentaiak biderkatuko dira; biderketa honen emaitzak, gutxienez, 100eko 90 izan beharko du zeharka partaidetzen den sozietate multzoan sartu ahal eta behar izan dadin. Horrez gain, beharrezkoa izango da tarteko sozietate guztiak sozietate-multzokoak izan daitezen.

2. Sozietate-multzo batean baldin badira partaidetza harremanak, direla zuzenak, direla zeharkakoak, sozietate bat zuzen edo zeharka kontrolatzen duen beste sozietate batek lehenean zenbateko partaidetza duen kalkulatzeko, partaidetza zuzen edo zeharkakoaren portzentaiak batuko dira. Partaidetutako sozietate multzoan sartu ahal eta behar dadin, batuketak, gutxienez, 100eko 90 izan behar du.

3. Elkarren arteko partaidetza, partaidetza zirkularra edo konplexua baldin badago, datu objektiboekin frogatu beharko da, hala badagokio,

berau kapital sozialaren 100eko 90ekoa dela gutxienez.

120. artikulua. Sozietate-multzoen araubidearen aplikazioa.

1. Sozietate-multzoaren araubidea aplikatze-ko nahikoa izango da sozietate-multzoa osatzen duten sozietate guztiek horixe erabakitzea. Sozietate nagusiak erabaki horien berri emango dio Ekonomi eta Ogasun Departamentuari araubidea aplikagarri izango den zergaldia hasi baino lehen.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren erabakiak sozietate-multzoaren araubidea aplikatuko den zergaldia baino lehenagoko zergaldiko edozein egunetan hartzen ahal dira, eta ondorioak sortuko dituzte aurkatzen ez direnean edo aurkatzerik ez dagoenean.

3. Hurrenez hurren sozietate-multzoan sartzen diren sozietateek aurreko zenbakietan aipatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte. Betebehar horiek betetzeko epea zergak sozietate-multzoen araubidean ordaindu behar dituzten lehen zergaldia bukatzen den egunean bukatuko da.

4. Behin aukera honen ildotik joz gero, sozietate-multzoen araubidea hiru zergaldi jarraietan aplikatuko da, sozietate-multzoko sozietateek erabaki ahalko dutelarik araubide honen babesean segitzea beste hiru zergalditarako, eta horrela, beti ere artikulua honetako 1. eta . zenbakiek ezarritakoa beteko dutelarik.

121. artikulua. Sozietate-multzoen zerga-oinarria zehaztea.

1. Honela zehaztuko da sozietate-multzoen zerga-oinarria:

a) Multzokoak diren sozietate guztien zerga-oinarria batuz.

b) Eliminazioak eginez.

c) Aurreko ekitaldietan egindako eliminazioak gaineratuz.

2. Honako hau ez da kontusail kengarritzat joa izango zergen ondorioetarako: sozietate nagusiak, zuzen edo zeharka, menpeko sozietateetan duen kapital-partaidetzaren kontabilitate-balioaren eta menpeko sozietate horien fondo berekietan balio horiek egiten duten zati proportzionalaren arteko diferentzia positiboa.

Diferentzia negatiboa bada, ez da kargatu beharreko errentatzat hartuko.

Aurreko bi lerroaldeetan aipatzen den diferentzia menpeko sozietatea edo sozietateak lehenbiziko aldiz sozietate-multzoan sartzen diren egunean dagoena izango da.

122. artikulua. Eliminazioak.

1. Zerga-oinarri bateratua zehazteko, zergaldian egin diren barne-eragiketen emaitzen eliminazio guztiak egingo dira.

Barne-eragiketak hauek izango dira: multzoko sozietateen artean egiten direnak, sozietateak multzokoak diren zergaldian eta Kapitulu honetan aurreikusiriko araubidea aplikatzen denean.

2. Barne-eragiketetako emaitzen eliminazioak, hauek positiboak edo negatiboak izanik ere, emaitza horiek multzoko kideak diren entitateen zerga-oinarrietan sartzen diren heinean egingo dira.

3. Dibidendo hauek ez dira eliminatuko: banakakoen zerga-oinarrian sarturik daudenak, barne-erazpen bikoitzarengatik kenkaria ez denean egin, 59.4. artikulua aurreikusten duenarekin bat etorritik.

123. artikulua. Gainerapenak.

1. Emaitza eliminatuak sozietate-multzoaren zerga-oinarrian gaineratuko dira hauek hirugarrenen aurrean egiten direnean.

2. Sozietate batek barne-eragiketa batean parte hartu duenean eta ondoren sozietate-multzoko kide izateari uzten dionean, eragiketa horren emaitza eliminatua sozietate-multzoaren zerga-oinarrian, aipatu bereiztea gertatu baino lehenagoko zergaldiari dagokion partean, gaineratuko da.

124. artikulua. Zerga-oinarria murritzea.

1. Sozietate-multzoaren zerga-oinarria murriztu ahalko da multzo horren kitapen-oinarri negatiboekin, 40. artikulua ezartzen duen moduan.

Sozietate-multzoan sartzen den unean edozein sozietatek kitapen-oinarri negatiboak murrizteko baditu, oinarri hauek multzoaren zerga-oinarria murrizten ahalko dute, sozietatearen beraren zerga-oinarria izango delarik murriztearen muga.

2. 41.2. artikulua aurreikusten duen murriztearen muga multzoaren zerga-oinarriari dagokio.

125. artikulua. Berrinbertsioa.

1. Multzoko sozietateek 36. eta 37. artikuluek aipatzen duten aparteko etekinak berriz inbertitzea erabili ahalko dute. Berriz inbertitze hori aparteko etekina lortu zuen sozietateak egin ahal izango du edo multzoko beste batek. Berriz inbertitzea multzoko beste sozietate bati elementu bat erosiz

gauzatu ahalko da, elementu hori berria izatearen baldintzarekin.

2. Aparteko etekinak berriz inbertitzea ezinezkoa izango da sozietate-multzoko entitateen arteko eskualdatzeen kasuan.

126. artikulua. Zergaldia.

1. Sozietate-multzoaren zergaldia eta sozietate nagusiarena bat etorriko dira.

2. Menpeko sozietateren batek bukatzen duenean zergaldi bat banakako zerga-ordainketa araubidea arautzen duen arautegiaren pean, bukaera horrek ez du sozietate-multzoaren bukaera baldintzatuko.

127. artikulua. Sozietate-multzoaren kuota osoa.

Sozietate-multzoaren kuota osoa honako hau izango da: sozietate nagusiaren karga-tasa sozietate-multzoaren kitapen oinarrian aplikatuz gero ateratzen den kopurua.

128. artikulua. Sozietate-multzoaren kuota osoaren kenkariak eta hobariak.

1. Sozietate-multzoaren kuota osoa Foru Lege honetako VI. Tituluko II., III. eta IV. Kapituluetan aurreikusten diren kenkariak eta hobariak jotzen duten adina txikiagotu ahalko da.

Sozietate-multzoak bete beharko ditu aipatu kenkariak eta hobariak jasotzeko ezarritako baldintzak.

2. Sozietate-multzoan sartzen den unean edozein sozietatek kentzeko kenkariak baditu, kenkari hauek multzoaren kuota osoan kentzen ahalko dira, muga sozietateari zerga-ordainketako banakako araubidean egokitu zaiona izango delarik.

129. artikulua. Informazioa eman beharrak.

1. Sozietate nagusiak egin beharko ditu, zerga ondorioetarako, balantzea eta irabazien zein galearen kontu bateratua, multozkoak diren sozietate guztiei integrazio orokorraren metodoa aplikatuz.

2. Urteko kontu bateratuek sozietate nagusiaren urteko kontuek daukaten itxiera-data eta aldia bera izango dute, menpeko sozietateak ekitaldi soziala sozietate nagusiak ixten duen egun berean itxi beharko duelarik.

3. Lehengo 1. zenbakiak aipatzen dituen agiriei honako argibide hauek eransti beharko zaizkie:

a) Lehenagoko zergaldietan egindako eliminazioak, gaineratzeko daudenak.

b) Zergaldian egin diren eliminazioak, euren jatorria eta zenbatekoa behar bezala justifikaturik.

c) Zergaldian egin diren gainerapenak, euren jatorria eta zenbatekoa behar bezala justifikaturik.

d) Egindako eliminazioen eta gainerapenen artean egon litezkeen diferentziak, behar bezala arrazoiturik, sozietate-multzoaren zerga-oinarria zehaztu beharrez egin direnak, eta artikuluko honetako 1. zenbakiak aipatzen dituen agiriak prestatzeko egin direnak.

130. artikulua. Sozietate-multzoek araubidea galtzea dakarten arrazoiak.

1. Sozietate-multzoek araubidea galduko dute ondoren aipatzen direnak gertatuz gero:

a) Multzoko sozietate batek edo batzuk bere baitan biltzea zeharkako zenbatespeneko araubidea aplikatzea eskatzen duten gorabeheretako bat.

b) Aurreko artikuluko 1. zenbakiak aipatzen dituen informazio eman beharrak ez betetzea.

2. Sozietate-multzoek araubidea galtzea aurreko zenbakiak aipatzen dituen arrazoietarako bat atzematen denean gertatuko da, eta zergaldi hartako ondorioetarako izango da, multzoko sozietateak zergaldi hartan banakako zerga-ordainketa araubidean sartuko direlarik.

131. artikulua. Aitorpen bateratuaren araubidea galtzearen eta sozietate-multzoa desagertzearen ondorioak.

1. Sozietate-multzoa zergaldi jakin batean iraungitzen bada edo sozietate-multzoei dagokien araubidea galtzen badu, eta zergaldi hartan multzoak badauka gaineratzeko dauden eliminaziorik, sozietate-multzoaren zerga-oinarri negatiborik edo eta konpentsatzeko dauden kuoten kenkaririk, ondoren esaten den bezala jokatuko da:

a) Gaineratzeko dauden eliminazioak sozietate-multzoaren araubidea aplikagarria den azken zergaldiari dagokion sozietate-multzoaren zerga-oinarrian sartuko dira.

b) Araubidea galtzen edo iraungitzen den zergaldian multzoa osatzen duten sozietateek esku-bidea izango dute sozietate-multzoaren kitapen-oinarri negatiboak murrizteko, kitapen-oinarri horiek sortzeko lagundu duten proportzioan.

Murrizpen hau, sozietate-multzoaren kitapen-oinarri negatiborik zehaztu zen urtetik edo urteetatik kontatzen hasita, zazpi urteko epea betetzeko gelditzen diren zergaldietan banakako zerga-ordainketako araubidean zehazten diren zerga-oinarri positiboekin egingo da.

c) Araubidearen galera edo iraungipena gertatzen den zergaldian multzoa osatzen duten sozie-

tateek, sozietate-multzoaren kuotaren kenkaria konpentsatzeko eskubidea eskuratuko dute, konpentsazio-eskubide hau sortzen lagundu duten heinean.

Kompentsazioa hauetan egingo da: ondorengo eta hurrenez hurreneko zazpi urteetan bukatzen diren zergaldietan zehaztuko diren kuota osoetan, kentzeko zenbatekoak zehaztu ziren urte edo urteetatik kontaktzen hasita barne-ezarpen bikotzairaren eta nazioartekoaren kasuetan, eta bost urte gainerako kenkariaren kasuan.

2. Araubidea galtzen edo iraungitzen den zergaldian multzoan sartzen diren sozietateek egin diren ordainketa zaitikatuengatik konkaria-eskubidea bereganatuko dute, ordainketa zatikatu hauek sortzen lagundu duten proportzioan.

3. Sozietate-multzoaren sozietate bat edo batzuk multzokoa izateari uzten badiote, aurreko zenbakietan ezarritakoa aplikagarria izango da.

132. artikulua. Sozietate-multzoaren aitorpena, beronek bere burua desegitea eta bertan sartzea.

1. Sozietate nagusiaren betebeharra izango da, sozietate-multzoa aldarrikatzen duenarekin bat, multzoak dukeen zerga-ordainketako zorra kitatzea, eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak zehazten duen tokian, epean eta moduan zorraren dirua sartzea.

Beste hainbesteko betebeharra dagokio ordainketa zatikatuari buruz.

2. Aitorpena sozietate nagusiak banakako zerga-ordainketako araubidean egin beharko lukeen epearen barruan egin beharko da.

3. Sozietate-multzoa iraungitzen denean, sozietate-multzoaren araubidea galtzen denean, edo eta multzoko sozietateak bereizten direnean egin behar diren aitorten osagarriak epe honetan eman beharko dira: iraungipena, galera edo bereizketa eragin duten zioak gertatu eta sei hilabeteren ondorengo hogeitabost egun natural epearen barruan.

4. Multzoko sozietateek elkartasunez jokatu dute zerga-zorra ordaintzeko orduan, zehapenak alde batera utzirik.

IX. KAPITULUA

Bat egite, banaketa, aktibo-ekarpen eta balore trukaketaren araubide berezia

133. artikulua. Definizioak.

1. Ondorengo letretan aipatzen direnak bat egiteak izango dira:

a) Entitate batek edo batzuek, kitapenarik gabeko desegitearen unean eta desegite honen ondorioz, euren ondare sozialak aurretik baden beste sozietate bati eskualdatzen dizkiotenean, eskualdatze hau sozietateen bazkideei beste entitate horren kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak ematearen bidez egiten denean, eta, hala balitz, balio nominalaren 100eko 10 baino handiagoa ez den diru-kompentsazioaren bidez. Balio nominalik ez bada, balore horien balio nominala kontabilitatetik ondorioztatzen denaren parekoa izango da.

b) Entitate batek edo batzuek, kitapenarik gabeko desegitearen unean eta desegite honen ondorioz, euren ondare sozialak beste sozietate berri bati eskualdatzen dizkiotenean, eskualdatze hau sozietateen bazkideei beste entitate berri horren kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak ematearen bidez egiten denean, eta, hala balitz, balio nominalaren 100eko 10 baino handiagoa ez den diru-kompentsazioaren bidez. Balio nominalik ez bada, balore horien balio nominala kontabilitatetik ondorioztatzen denaren parekoa izango da.

c) Entitate batek, kitapenarik gabeko desegitearen unean eta desegite honen ondorioz, bere ondare soziala eskualdatzen dio ondare sozial honen ordezkagarriak diren balore guztien titularraren entitateari.

2. Ondorengo letretan aipatzen direnak banaketak izango dira:

a) Entitate batek, kitapenarik gabeko desegitearen ondorioz, bere ondare sozial guztia bi edo zati gehiagotan zatitu, eta zati hauek aurretik badiren edo eta berriak diren beste sozietate bat edo batzuei eskualdatzen dizkienean, eskualdatze hau sozietateen bazkideei, proportzionaltasunaren irizpidearen arabera, ekarpena hartzen duten beste entitate horien kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak ematearen bidez egiten denean, eta, hala balitz, balio nominalaren 100eko 10 baino handiagoa ez den diru-kompentsazioaren bidez. Balio nominalik ez bada, balore horien balio nominala kontabilitatetik ondorioztatzen denaren parekoa izango da.

b) Erakunde batek jarduera-adarrak osatzen dituen bere ondare sozialaren zati bat edo batzuk zatitzen dituenean, eta blokean eskualdatzen denean aurretik dauden edo berriak diren bi erakunderi edo gehiagori eta honen trukean, azken hauen kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak eta, hala bada, aurreko letran ezarritakoaren arabera diru-kompentsazioa hartzen dituenean, berauen partaidetzaren arabera bazkideei eman beharko dizkielarik, kapital soziala eta erreserbak derrigorrezko zenbatekoan gutxituz.

3. Diruzkoa ez den jarduera-adarren ekarpen-tzat joko da hurrengo burutuko duen eragiketa, hots: desegin gabeko entitate batek aurretik dagoen edo berria den beste entitate bati jarduera-adar bat edota guztiak ematen dizkionean eta horren trukean, horiek hartzen dituen kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak hartzen dituenean.

4. Jarduera-adartzat joko da, antolamenduari begira, ustiapen ekonomikoa ekarriko duen autonomiadun unitate ekonomikoa osatuko duen ondare-multzoa, hau da, beren baliabide propioen bidez jarduteko gai izango den multzoa. Eskualdatuko diren elementuen antolamendutik edo funtzionamenduak sorraraziko zorrak eratziki ahal izango zaizkio sozietate eskuratzaileari.

5. Kapital sozialaren ordezkagarri diren balore truketzat joko da hurrengo eragiketa, hots: entitate batek boto-eskubideen gehiengoa lortzeko bidea emango dion beste baten kapital sozialaren partaidetza eskuratzeko du beren baloreen trukean lehenengo entitatearen kapital sozialaren ordezkagarri diren beste balore batzuk bere bazkideei emanaz, eta, hala bada, balio nominalaren 100eko 10etik gorakoa ez den diru-konpentsazio bat. Balio nominalik ez bada, balore horien balio nominala kontabilitatetik ondorioztatzen denaren parekoa izango da.

134. artikulua. Eskualdaketaren ondoriozko errenten araubidea.

1. Aurreko artikulua aipatutako eragiketen ondoriozko hurrengo errenta hauek ez zaizkio zerga oinarriari erantsiko.

a) Espainiako lurraldean egoitza duten entitateek ondasunak eta eskubideak eskualdatzeagatik agerian geratuko direnak.

Erakunde eskuratzaileak egoitza atzerrian duenean, Espainiako lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkor bati loturiko elementuen eskualdaketak eratorritako errentak baino ez zaizkio erantsiko zerga oinarriari.

b) Egoitza Espainiako lurraldean duten entitateek Europako Komunitatekoak ez diren estatuen lurraldeetako establezimendu iraunkorrak egoitza Espainiako lurraldean duten entitateei eskualdatzeagatik agerian geratuko direnak.

c) Egoitza Espainiako lurraldean duten entitateek Europako Komunitateko kideak diren estatuen lurraldeetan kokatutako establezimendu iraunkorrak bertan egoitza duten entitateei eskualdatzeagatik agerian geratuko direnak-, bat egiteei, zatiketei, aktiboen ekarpenei eta akzioen trukeei ezarri beharreko zerga araubide amankomunari buruzko 1990eko uztailaren 2ko 90/434/EE

Zuzentarauaren Eraskinean zehaztutako formaren bat izango dutenak eta berorren 3. artikuluan aipatutako zergaren bati loturik eta salbuespenik gabe egongo direnak.

Zerga oinarriari ez zaizkio aurreko a) eta b) letretan aipatutako eragiketek eratorritako errentak ezabatuko, entitate eskuratzailea zerga honetatik salbuesita baldin badago.

2. Aurreko zenbakian ezarritako araubideari uko egin ahal izango zaio, ondare-elementu guztiak edo zati bat eskualdatzearen ondorio diren errentak zerga-oinarriari erantsiz.

3. Edozein modutan ere, nazioarteko itsas eta airenabigazioan diharduten entitateetan agerian agertuko diren itsasuntziak edota aireuntziak edo ustiapenerako ondasun higikorak eskualdatzeak eratorritako errentak zerga oinarriari erantsiko zaizkio, erakunde eskuratzailearen egoitza Espainiako lurraldean ez dagoenean.

135. artikulua. Eskuratutako ondasunen zerga-balorazioa

1. Aurreko artikuluan ezarritako araubidea ezartzeko gertatu zaien eragiketek eratorritako eskualdaketan bidez eskuratutako ondasunak eta eskubideak, zergari dagokionez, eragiketa burutu aurretik erakunde eskualdatzailean zituzten balio berberen arabera baloratuko dira eta berdin mantenduko da, erakunde eskualdatzailearen eskuraketa-eguna Foru Lege honetako 27. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko. Balore horiek eragiketa honetan benetan zergan ordaindu dituzten errenten zenbatekoan zuzenduko dira.

2. Aurreko artikuluan ezarritako araubidea aplikagarria ez den kasuetan alde bien artean erabakitako balioa hartuko da merkatuko balio arruntaren mugarekin.

136 artikulua. Ekarpeneren kontraprestazio gisa jasotako akzio edo partaidetzen zerga-balorazioa.

Jarduera-adarren ekarpen baten ondorioz jasotako akzio edo partaidetzak-, zergari dagokionez, unitate ekonomiko autonomoak duen kontabilitateko balioagatik baloratuko dira, zuzendua berau, hala denean, eragiketa dela eta sozietate eskualdatzailearen zerga-oinarriari sartu diren errenten ze zenbatekoan.

137. artikulua. Balore-trukearen zerga araubidea.

1. Balore-trukea dela eta, agirian geratzen diren errentak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo zerga honen zerga-

oinarrian sartuko, beti ere ondorengo baidintza hauek betetzen baldin badira:

a) Balore-trukea burutzen duten bazkideek egoitza Espainiako lurraldean, Europako Batasuneko kide den estaturen batean, edota beste edozein estatutan izatea, beti ere, azken kasu honetan, jasotako baloreek egoitza Espainian duen entitate baten -kapital sozialaren ordezkagarriak direnean.

b) Bai baloreak eskuratzen dituen entitateak eta bai entitate partaidetuak egoitza Espainiako lurraldean izatea edo, bestela, EEE/434/90 Zuzentarauaren ezarpen eremuan egotea.

2. Balore-trukea burutzen duen entitateak jasotako baloreak ekarpena egiten duten bazkideen ondarean zuten balioaren arabera baloratuko dira, zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraituz, merkatuko balio nominala txikiagoa denean izan ezik, orduan azken honen arabera baloratuko baitira.

3. Bazkideek jasotako baloreak, zergari dagokionez, emandakoen balioaren arabera baloratuko dira, zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera zehaztua, bidezkoa denaren arabera. Balorazio hau igo edota urritu egingo da emandako zein jasotako diru-konpentsazio osagarriaren zenbatekoan.

4. Bazkideak Espainiako lurraldeko egoiliar izateari uzten badio, inguruabar hori gertatzen den zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edo zerga honetako zerga-oinarrian sartuko da akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balio normalaren eta aurreko zenbakian aipatu den balioaren arteko diferentzia, zuzendua berau, hala denean, zergatik kendu ahal izan diren balio-galeren zenbatekoan.

Errenta horri dagokion zerga-zorraren zatia atzeratu ahal izango da, baloreak eskualdatzen diren zergaldiari dagokion aitorpenarekin batera sartuz, subjektu pasiboak borren ordainketa bermatzen baldin badu.

5. Erregelamendu bidez parabisu fiskaltzat jotako lurralde edo lurraldeetan helbideratutako edo finkatutako entitateek esku hartzen duten eragiketetatik lortutako errentak, edota horien bidez lortutakoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edota zerga honetako zerga oinarrian sartuko dira.

138. artikulua. Bazkideen zerga-ordainketa bat egite, irespen eta erabateko zein zatikako banaketa-eragiketetan.

1. Entitateek eskuratzailerak entitate eskualdazaileraren bazkideei baloreak atxikitzean agerian

jartzen diren errentak ez dira zerga-oinarrian sartuko, baldin eta horiek egoitza Espainiako lurraldean badute, edota Europar Batasuneko kide den estatu batean, edota beste edozein estatutan, beti ere, azken kasu honetan, baloreak egoitza Espainiako lurraldean duen entitate baten kapital sozialaren ordezkagarri badira.

2. Bat egite, banaketa edo eta irespen eragiketen bidez jasotako baloreak, zergari dagokionez, emandakoen balioaren arabera baloratuko dira, zerga honetako edota Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako arauen arabera zehaztua, bidezkoa denaren arabera. Balorazio hori igo edota urritu egingo da emandako zein jasotako diru-konpentsazio osagarriaren zenbatekoan.

3. Bazkideak Espainiako lurraldeko egoiliar izateari uzten badio, inguruabar hori gertatzen den zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edota zerga honetako zerga-oinarrian sartuko da akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balio normalaren eta aurreko zenbakian aipatu den balioaren arteko diferentzia, zuzendua berau, hala denean, zergatik kendu ahal izan diren balio-galeren zenbatekoan.

Errenta horri dagokion zerga-zorraren zatia atzeratu ahal izango da, baloreak eskualdatzen diren zergaldiari dagokion aitorpenarekin batera sartuz, subjektu pasiboak horren ordainketa bermatzen baldin badu.

4. Arau bidez parabisu fiskaltzat jotako lurralde edo lurraldeetan helbideratutako edo finkatutako erakundeek esku hartzen duten eragiketetatik lortutako errentak, edota horien bidez lortutakoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako edota zerga honetako zerga-oinarrian sartuko dira.

139. artikulua. Entitate eskualdazaileraren eta entitate eskuratzaileraren kapitaleko partaidetzak.

1. Entitate eskuratzailerak entitate eskualdazaileraren kapitalean parte hartzen duenean, %5ean gutxienez, partaidetzaren deuseztapenak eratorritako errenta positiboa ez da haren zerga-oinarrian sartuko, baldin eta entitate eskualdazaileraren erreserbekin bat badator, ezta arrazoi bera dela eta agerian geratzen den errenta negatiboa ere.

Balitzko honetan ez da kenkaria ezarriko dibienduen barne-ezarpen bikoitza eragozteko, aurreko lerroaldean aipatutako erreserbee dago-kionez.

2. Partaidetzaren zenbatekoa aurreko zenbakian aipatutakoa baino txikiagoa denean, horren deuseztapenak errenta bat ekarriko du, eta jaso-

tako ondare-elementuek merkatuan duten balio arruntaren eta berorren kontabilitateko balioaren diferentziaren zenbatekoa izango da errenta hori.

3. Eskuratutako ondasunak, zergari dagokionez, 135. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

Entitate eskuratzailerak entitate eskualdatzailearen kapitalean, gutxienez %5ean, parte hartzen duenean, partaidetzaren eskuraketaren salneurriaren eta horren balio teorikoaren diferentziaren zenbatekoa eskuratutako ondasunei eta eskubideei egotziko zaie, balorazioari buruzko kontabilitate-arauekin bat, eta aipatutako balorazioaren arabera egotzia izan ez den diferentzia horren zatia, zergatik kendu ahal izango da zenbatekoaren hamarrena gehienezko urteko mugarekin, ondorengo baldintzak betetzen baldin badira:

a) Partaidetza egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona zein entitateetatik eskuratutakoa ez izatea, edo eta entitate eskuratzailerarekin lotura duten eta Espainian egoitza duten pertsonengandik eskuratutakoa ez izatea, edo loturik dagoen entitate batetik, azken honek, bere aldetik, partaidetza aipatu pertsona edo entitateetatik eskuratu zuenean.

Letra honetan esaten den baldintza beteta dagoela ulertuko da hurrengo kasuetan:

a') Partaidetza Espainiako lurraldean egoitzarik ez duten pertsona edo entitateetatik eskuratzaren denean, edo eta partaidetza eskuratzaren denean, entitatearekin lotura duen beste entitate batetik, zeinak, bere aldetik, partaidetza aipatu pertsona edo entitateetatik eskuratu zuena, aurreko lerroaldean aipatzen den diferentziaren zenbatekoa Espainian ordaindu duenean zerga partaidetzaren edozein eskualdaketa bidez.

b') Partaidetza Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoengandik eskuratzaren denean, pertsona fisiko hauek loturarik badaukatenean entitate eskuratzailerarekin edo honi loturiko beste entitatearekin, baldin eta azken entitate honek, bere aldetik, partaidetza aipatu pertsona fisikoengandik eskuratu bazuen, pertsona fisiko horiek lortu duten ondare-gehikuntzaren 100eko 50a baino gehiago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarrian sartu dela baieztatzen denean.

b) Partaidetza eskuratu zuen entitatea ez egoitea, eskualdatu zuen pertsona edo entitateari dagokionez, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezartzen diren kasuetarik batean. Ondorio hauetarako ulertuko da Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezarritako kasuak eta abenduaren 20ko urte-

ko kontu bateratuak formulatzeko arauari buruzko 1815/1991 Errege Dekretuko Lehen Kapituluko Lehen Atalean ezartzen direnak berdinak direla. Letra honetan ezarritako baldintza ez da aplikatuko eskualdatzen duen pertsonak edo entitateak partaidetza eskuratzaren ordaindutako salneurriaren arabera, aldi berean berak egoitza Espainiako lurraldean duten, eta loturarik ez duten pertsona edo entitateetatik eskuratu denean.

4. Aurreko zenbakiko b) letran ezarritako baldintza betetzen ez denean, partaidetza eskuratzeko salneurriaren eta bere balio teorikoaren arteko diferentzia amortizatzeko dotazioak kengarriak izango dira, baldin eta balioalera itzuliezinenaren ondorio direla frogatzen bada.

5. Entitate eskualdatzaileak entitate eskuratzaileraren kapitalean parte hartzen duenean, ez dira haren zerga-oinarrian sartuko partaidetzaren eskualdaketa dela-eta agerian geratzen diren errentak, nahiz eta entitateak 134. artikuluko 2. zenbakian ezarritako uko egite ahalmena erabili.

140. artikulua. Zerga-eskubide eta betebeharrarako subrogazioa.

1. Entitate eskuratzailerari eskualdatutako zaizkio entitate eskualdatzailearen zerga-eskubide eta betebeharrak, 133. artikuluan aipatutako eragiketetik titulu unibertsaleko ondorengotza ekartzen dutenean.

Entitate eskuratzailerak bere gain hartuko du, zerga-onurak edukitzen jarraitzeko, edota entitate eskualdatzailea edukitakoak sendotzeko, beharrezkoak diren baldintzak betetzea.

2. Ondorengotza titulu unibertsalekoa ez denean, eskualdatutako ondasun eta eskubideei dagozkien zerga-eskubide eta betebeharrak buruzkoa baino ez da izango eskualdaketa.

Entitate eskuratzailerak bere gain hartuko du erakunde eskualdatzailearen zerga pizgarriek eratorriko betebeharrak betetzea, eskualdatutako ondasun eta eskubideei lotuta dauden heinean.

3. Entitate eskualdatzaileari dagozkion kitapen-oinarri negatiboek murriztu ahal izango dituzte, Foru Lege honek ezartzen duen eran, entitate eskuratzaileraren kitapen-oinarri positiboak. Entitate eskuratzailerak sozietate eskualdatzailearen kapitalean parte hartzen baldin badu, konpentsagarria den zerga-oinarri negatiboa txikitu egingo da partaidetza honi dagozkion edozein titulurenatik bazkideek egindako ekarpenen balioaren eta kontabilitate-balioaren arteko diferentzia positiboaren zenbatekoan.

4. Subrogazioek Espainiako legeen babespean sortutako eskubide eta betebeharrak baino ez dituzte kontutan hartuko.

141. artikulua. Errenten egozketa.

133. artikuluan aipatutako eragiketak direla-eta iraungitako entitateek burututako jardueren errentak merkataritzako arauetan ezarritakoaren arabera egotziko dira.

142. artikulua. Ezarpen iraunkorretako galarak.

Ezarpen iraunkor bat eskualdatzen denean, eta 134 artikuluko 1. zenbakiko c) letran ezarritako araubidea aplikatzen denean, Espainiako lurraldean egoitza duten entitate eskualdatzaileen zerga-oinarria gehitu egingo da, aurreko 7 urteetan itxitako zergaldietako ezarpen iraunkorra dela eta, egotzitako mozkinen gaineko galeren soberakinaren zenbatekoan.

143. artikulua. Kontabilitate-betebeharrak.

1. Entitate eskuratzailerak ondoren aipatuko den informazioa sartu beharko du urteko txostenean, entitate eskualdatzaileak 134.2 artikuluan aipatu den ahalmena erabili ez badu; orduan, d) letran zehaztutakoa baino ez du bete behar izango:

a) Entitate eskualdatzaileak amortizagarriak diren eskualdatutako ondasunak eskuratu zituen ekitaldia.

b) Erakunde eskualdatzaileak itxitako azken balantzea.

c) Kontabilitatearen liburuetan eragiketa burutu baino lehen entitate eskualdatzailearen liburueta-ko ez bezalako balioarekin sartu diren ondasun eskuratuen zerrenda, balio biak adieraziz, eta baita amortizazio fondoak ere eta entitate bietako kontabilitate-liburuetan eraturako hornidurak.

d) Entitate eskualdatzaileak edukitako zerga-onuren zerrenda, zeinei buruz entitateak bere gain hartu behar baitu baldintza jakin batzuk betetzea, 140. artikuluko 1 eta 2. zenbakietan ezarritakoaren arabera.

Zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioetarako, entitate eskualdatzaileak entitate eskuratzailerari jakinarazi beharko dizkio aipatu datu horiek.

2. Pertsona juridikoak diren bazkideek ondorengo datu hauek aipatu beharko dituzte urteko txostenean:

a) Emandako baloreen kontabilitate-balioa.

b) Jasotako baloreak zein baliorekin kontabilitate zatu diren.

3. Aurreko zenbakietan ezarritako aipamenak eskuraturiko baloreak edo ondare-elementuak inbentarioan dauden bitartean burutu beharko dira edo, bestela, entitate eskualdatzaileak edukitako zerga pizgarriek eratorritako baldintzak bete behar diren bitartean.

Erakunde eskuratzailerak aukeratu ahal izango du, eta bigarren eta ondorengo urteko txostenei dagokienean, aipamenok eragiketaren ondorengo lehenengo urteko txostenean agertzen direlako adierazpen hutsa sartu, zein gorde egin beharko baita aurreko lerroaldean aipatzen den inguruabarra dagoen bitartean.

4. Aurreko zenbakietan ezarritako betebeharrak ez betetzea zerga-arauen hauste arintzat joko da, aldera utzitako datu bakoitzeko 25.000 eta 1.000.000 bitarteko isunarekin zehatu ahal delarik, eta muga entitate eskuratzailerak, eskualdatutako ondasun eta eskubideak direla eta, kontabilitatean adierazitako balioaren 100eko 5ean dago.

144. artikulua. Gora-behera bereziak.

1. Kapitulu bonetan ezarritako araubidea subjektu pasiboak aukerata, ondorengo baldintzak biltzen dituzten diru bidezkoak ez diren ekarpenetan ezarriko da:

a) Ekarpena jasotzen duen erakundeak egoitza Espainiako lurraldean izatea edo, bestela, jarduerak hortxe burutzea, ezarpen iraunkor baten bidez, zeini ekarritako ondasunak lotuko baitzaizkio.

b) Ekarpena egindakoan, ekartzen duen entitateak ekarpena jasotzen duen entitatearen berezko fondoetan parte hartzea, %5ean gutxienez.

Ekartzen diren ondare-elementuak ezin izango dira baloratu, zerga ondorioetarako, merkaturako balio arruntak jotzen duena baino balio handiagoarekin.

2. Kapitulu honetan ezarritako araubidea jarduera-adarretako ekarpenetan aplikatuko da, eta aurreko zenbakian ezarritako baldintzak biltzen dituzten enpresa jarduerari lotutako ondare-elementuen ekarpenetan, pertsona fisikoak burutuak hauek, beti ere kontabilitatea Merkataritzako Kodean xedatutakoaren arabera eramaten badute.

3. Kapitulu honetan ezarritako araubidea aplikagarria izango da, baita ere, merkataritza-sozietateko izaera juridikoa ez duten eta zerga hauen menpe dauden subjektu pasiboek esku hartzen duten eragiketetan, baldin eta 133. artikuluan

aipatzen diren eragiketen ondorioz ateratzen diren bezalako emaitzak sorrarazten badituzte.

145. artikulua. Ezarpen bikoitza eragozteko arauak.

1. 136., 137.2, eta 144. artikuluetan ezarritako balorazio erregelak aplikatzeagatik sor litekeen ezarpen bikoitza eragozteko asmoz, ondorengo arauak aplikatuko dira:

a) Ekarrirako ondasunen errenta egozkarrien pentzutan banatutako mozkinen kenkarirako esku-bidea ematen dute, 59.4 artikuluan aipatu den dibidenduen barne-ezarpen bikoitza eragozteko asmoz, bazkidearen partaidetzaren portzentaia edozein izanik ere.

b) Ekarrirako ondasunen errenta egozkarrien pentzutan banatutako mozkinen kenkarirako esku-bidea emango dute, dibidenduen nazioarteko ezarpen bikoitza dela eta, bazkidearen partaidetzaren portzentaia edozein izanik ere.

2. Entitate eskuratzailerak kontabilizatze erabilgarriak eragatik, posible izan ez balitz ezarpen bikoitza saihestu, aurreko zenbakian ezarritako arauak ezartzeagatik, entitate horrek, iraungipen-unean, 136., 137.2, eta 144. artikuluetan ezarritako balorazio erregelak aplikatzeagatik egingo zituen kontrako doikuntzak egingo ditu.

146. artikulua. Zerga-araubidearen aplikazioa.

1. Kapitulu bonetan ezarritako araubidea subjektu pasiboak hala erabakitzen duenetan ezarriko da. Hori aukeratzen bada, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari jakinarazi beharko zaio eragiketari dagokion eskritura inskribatu baino lehen.

2. 133. artikuluan aipatzen diren eragiketen administrazio-egiaztapenaren ondorioz, horiek, batez ere, helburutzat zergari iruzur edo ihes egitea zutela burutu zirela frogatzen bada, kapitulu honetan ezarritako araubiderako eskubidea galduko da, eta Administrazioak subjektu pasiboan zerga egoeraren erregularizaziori ekingo dio.

X. KAPITULUA

Egoiliar ez diren sozietateen fondo berezkoen ordezkagarri diren baloreak dituzten entitateen araubidea

147. artikulua. Kontzeptua.

1. Egoitza Espainiako lurraldean ez duten erakundeek berezko fondoaren ordezkagarri diren baloreen kudeaketa lehendabiziko helburu sozialtzat duten entitateek, 100eko 5eko edo gehiagoko partaidetza-portzentaia izanik, zuzena eta zeharkakoa, zehazten dutenak, eta aipatu helburu

sozial hori eratzen duten jarduerak eratorritako finantza-baliabideen kokapena, beharrezko giza-baliabide eta materialen antolaketaren bidez, kapitulu honetan ezarritako araubideari heldu ahal izango diote.

2. Entitatea sozietate gardentzat jotako zergaldietan ezin izango dute kapitulu honetan ezarritako araubidea eduki.

3. Kapitulu honetan ezarritako araubideari heldu dioten erakundeak ezin izango dira izan titulu honetako VIII. kapituluaren aipatzen diren sozietate-multzoetako partaide.

148. artikulua. Egoitza Espainian ez duten entitateen berezko fondoaren ordezkagarri diren balore edukizetik eratorritako errentak.

1. Egoitza Espainian ez duten entitateen mozkinen dibidenduak edo partaidetzak ez dira zerga-oinarrian sartuko, ondorengo baldintzok betetzen direnean:

a) Aurreko artikulua aipatzen den partaidetzaren portzentaia mozkinen dibidenduak edo partaidetzak eska daitezkeen egunetik lehenagoko urtean zehar etengabe edukitzea. Epe honen zenbaketarako, kontsolidatze-talde bereko beste entitate batek partaidetza etengabe izandako aida kontutan hartuko da Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan aipatzen denaren arabera.

b) Partaidetutako entitatea zerga honen izaera berdina edo antzekoa duen beste zerga bati lotua eta ez salbuetsita egotea, eta egoitza arau bidez paradisu fiskaltzat jotako lurralde edo lurralderen batean ez edukitzea.

c) Mozkinen partaidetzak edo dibidenduen jatorria izan diren errentak atzerrian egin diren enpresa-jardueren ondorioa izatea. Honetarako ondorengo arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Orokorrean, entitate partehartzaileak lortutako dirusarrerak, 100eko 90ean gutxienez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 35. artikulua ildotik doazen enpresa-jarduerak burutzetik etorri behar dira. Dirusarrera horien barruan egongo dira halaber, enpresa-jarduerak burutzeari lotutako ondare-elementuen eskualdaketatik datozenak, eta dibidendu eta mozkinetako partaidetzak, eta zenbaki honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten Espainiako lurraldean egoitza ez duten entitateen partaidetzaren eskualdaketak eratorritako errentak, egoitza Espainiako lurraldean duen entitateak, 100eko 5eko baino gehiagoko partaidetza duenean.

b') Handizkako salerosketak direnean, atzerrian burututako enpresa-jarduerak eratorritako dirusarreratzat joko dira, ondasunak eskuratzailen esku partaidetza ematen duen erakundeak egoitza duen herrialde edo lurraldean jarritako eragiketarako, edo bestela Espainia ez den beste lurralde edo lurralderen batean, horiek entitate partaidetuak dituen giza-baliabideen eta materialen antolaketaren bidez burutzen direnean.

c') Zerbitzuak direnean, atzerrian burututako enpresa-jarduerak eratorritako dirusarreratzat joko dira partaidetza ematen duen entitateak egoitza duen lurralde edo lurraldean erabiltzen diren zerbitzuak emateak eratorritakoak edo, bestela, Espainia ez den beste lurralde edo lurralderen batean, horiek partaidetza ematen duen entitateak dituen giza-baliabideen eta materialen antolamenduen bidez burutzen direnean.

d') Kreditu eta finantza-eragiketak direnean, atzerrian burututako enpresa-jarduerak eratorritako dirusarreratzat joko dira partaidetza ematen duen entitateak egoitza duen lurralde edo lurraldean egoitza duten pertsona edo entitateei emandako mailegu eta kredituak eratorritakoak edo, bestela, Espainia ez den beste lurralde edo lurralderen batean, horiek partaidetza duen entitateak dituen giza-baliabideen eta materialen antolaketaren bidez burutzen direnean.

e') Aseguru- eta berraseguru-eragiketak burutzea denean, atzerrian burututako enpresa-jarduerak eratorritako dirusarreratzat joko dira arrisku aseguruak entitate partaidetuak egoitza duen lurralde edo lurraldean daudenetan, edo bestela Espainia ez den beste lurralde edo lurralderen batean, horiek entitate partaidetuak dituen giza-baliabideen eta materialen antolamenduen bidez burutzen direnean.

2. Partaidetza eskualdatzeagatik lortzen diren errentak ez dira zerga-oinarrian sartuko, baldintza hauek betetzen badira:

a) Lehengoko zenbakian ezartzen diren baldintzak betetzea. Aurreko b) eta c) letretan e zarrirako baldintzak partaidetzaren jabetzaren ekitaldi guzti guztietan bete beharko dira.

b) Pertsona edo entitate eskuratzailak, egoitza Espainiako lurraldean badu, loturarik ez edukitzea entitate eskualdatzailearekin.

3. Mozkinak banatzearen ondorioz ematen den partaidetzaren prezio-beheratzea ez da zerga-oinarrian sartuko, 61.5 artikulua ezartzen duen moduan.

4. Partaidetza eskualdatzean lortu diren errenten eta mozkinen dibidenduak edo partaidetzek ez dute 60., 61. eta 62. artikuluek aurreikusten diren kenkarietarako eskubiderik, baldin eta zerga-oinarrian sartu ez badira.

5. Entitate partaidetuak 1. zenbakian ezartzen diren baldintzak betetzen dituenean, eta aldi berean 101. artikuluan aurreikusten diren errentak lortzen dituenean, 101. artikuluek errenta horiei buruz esaten duena aplikagarria izango da, entitate partaidetuak lortu dituen gainerako errentei buruz artikulua honek ezartzen duena aplikatuko delarik.

101. artikulua ezartzen dituen erreteetatik datozen mozkinen dibidenduak eta partaidetzak zerga-oinarrian sartuko dira, errenta hauek abenduaren 29ko hainbat zerga hein batean aldatu eta beste hainbat zerga-neurri ezartzen duen 25/1994 Foru Legeko 7. artikulua aurreikusten duena aplikatu baino lehenagoko ekitaldietan lortu direnean.

Arau bera aplikatuko da artikulua honetako 2. zenbakiak, 101. artikuluan ezarritako errentei buruz mintzatzen den zatiak, aipatzen dituen errentei buruz.

149. artikulua. Mozkinen banaketa.

Zerga-oinarrian sarturik ez dauden errenten ondorioz banatzen diren mozkinekin honela jokatuko da:

a) Hartzailea zerga honi loturik dagoen entitatea denean, jasotzen diren mozkinak ez dute dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubidea emango, baina entitate hartzaileak, jaso diren mozkin horiek sortzen lagundu duten errentei dagozkien atzerrian ordainduriko zergei buruz, 60., 61. eta 62. artikuluek aurreikusten duten nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria aplikatzen ahalko du.

b) Mozkinen hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko pertsona denean, banatzen den mozkinak ez du dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubidea emango.

Artikulu honetan aurreikusten denaren ondorioetarako, banatzen diren lehen mozkinak zerga-oinarrian sarturiko errentetatik datozela ulertuko da.

Mozkina banatzen duen entitateak aipatu beharko du Oroit-idazkian zerga-oinarrian sartu ez diren errenten zenbatekoa, eta berauei dagozkien eta atzerrian ordaindu diren zergak, baita bere bazkideei aurreko letretan aurreikusten dena bete ahal izateko nahikoa informazio eman ere.

150. artikulua. Araubide honen aplikazioa.

1. Kapitulu honetan aurreikusten den araubidez baliatu nahi diren subjektuek Ekonomi eta Ogasun Departamentuari eskatu beharko diote, erregelamenduz zehazten den moduan.

2. Kapitulu honetan aurreikusten den araubidez baliatu ahal izateko beharrezkoa izango da bertan ezartzen diren betebeharrak eta baldintza guztiak betetzea, eta horixe frogatu beharko du subjektu pasiboak Ekonomi eta Ogasun Departamentuak hala eskatuta.

3. Espainiako lurraldean egoitzarik ez duten entitateen berezko fondoek ordainkagarri diren balorren ekarpen ez diruzkoek 144.1 artikuluko ezartzen duen araubidez baliatuko dira, ekarpen horiek ematen duten partaidetza-portzentaia edozein delarik.

XI KAPITULUA

Aurrezki Kutxen onegintzako gizarte-lanaren araubidea

151. artikulua. Aurrezki Kutxen onegintzako gizarte-lana.

1. Aurrezki Kutxek bere emaitzetatik onegintzako gizarte-lanetarako bideratzen dituzten kopuruak kengarriak izango dira zerga ondorioetarako, berauek arautzen dituzten arauen arabera.

2. Aurrezki Kutxen onegintzako gizarte-lanetarako izendatzen diren kopuruak, izendapena egiten den ekitaldi berean aplikatu beharko dira, 100eko 50ean, gutxienik, edo eta ekitaldi horretan ez eta ondo-ondorengoan, edo eta inbertsio atxikiei aplikatu, edo eta erakundeen sostengu-gastuen zein erakundearen babeseko establezimenduen gastuen ordainketei aplikatu.

3. Honako hauek ez dira zerga-oinarria sartuko:

a) Onegintzako gizarte-lanaren mantenu-gastuak, egin diren izendapenen gaintetikoak izanik ere, etorkizuneko izandapenen aplikaziotzat joak izatearen kaltetan gabe.

b) Onegintzako gizarte-lanari atxikiriko inbertsioen eskualdatzearen ondoriozko errentak.

XII. KAPITULUA

Hein baten salbuetsitako entitateen araubidea

152. artikulua. Ezarpen eremua.

Araubide hau ondorengo erakundeei ezarriko zaie:

a) Irabazasmorik gabeko elkarteei, beti ere legezko ordezkari karguak doakoak badira eta, hala badagokio, dagokion organoari kontuak ematen bazaizkio, aipatu entitateek Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako zerga araubidea edukitzeko beharkizunak betetzen ez dituztenean.

b) Kooperatiba-batasun, federazio eta konfederazioei.

c) Lanbide elkargo, enpresari edo lanbide elkarte, ganbara ofizial, langileen sindikatu eta alderdi politikoei.

d) Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1982 Legeko 22. artikuluko babesean eraturako lan sustapenerako fondoak.

e) Gizarte Segurantzako lan istripuetako eta lan eritasunetako taramei, euren erregulaziotze-arauek ezarritako beharkizunak betetzen dituztenean.

153. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Aurreko artikuluan aipatutako erakundeei lortutako ondorengo errentak salbuetsita egongo dira:

a) Sozietatearen xedea edo helburu zehatza osatzen duten jarduerak burutzetik datozenak eta ekonomi ustiapenetatik ateratzen direnak, beti ere Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeko 18. artikuluko 2. zenbakiak ezarritako baldintzak betetzen badira.

b) Irabazizko eskuraketa eta eskualdaketetatik eratorriak, batzuk zein besteak sozietatearen xedea edo helburu zehatza betetzeko lortuak edo burutuak direnean.

Bi letrotan aurreikusitako salbuspenak hartzen dituen errentatzat joko dira, besteak beste:

a') Elkartekideek ordaindutako kuotak.

b') Administrazio Publikotik eta beste erakunde edo ente publikoetatik eskuratutako dirulaguntzak, beti ere entitatearen xedeak gauzatzen erabiltzen badira eta a) letrak aurreikusten dituen ekonomi ustiapenez bestelakoak finantziazteko erabiltzen ez badira.

c) Sozietatearen xedea edo helburu zehatza betetzeko lotutako ibilgetu material edo inmaterialaren ondare elementuen kostubidezko eskualdaketan agerian jarritakoak, eskualdaketan zenbatekoa sozietatearen xede edo helburu zehatz horrekin lotutako aipatu ondare elementuetan

berrito inbertitzeko erabiltzen denean. Inbertsio berriok, ondare elementua eman edo eskura jarritako dataren aurreko urtea eta ondorengo hiru urteak bitarteko epean burutu beharko dira eta hamar urtez jarraituko dute entitatearen ondare izaten, zurututako galerak salbu, edo baliagarri izaten dirauten bitarten, hamar urte baino gutxiago bada.

Letra honek esaten duen edozertarako 36. artikulua dioena ezarriko da.

154. artikulua. Zerga oinarria.

Zuzeneko zenbatespenaren araubidean, 152. artikulua aipatzen dituen entitateen zerga oinarria ekonomi ustiapen baten jardunean lortutako etekin positibo edo negatiboen, ondare elementuak hirugarrenei lagatzetik eratorritako etekinen eta ondarearen gehikuntza eta urripenaren batuketa algebraikoaren bidez zehaztuko da.

Errentaren zenbatekoa Foru Lege honen IV: Tituluan ezarritako arauak aplikatuz zehaztuko da. Kontuan izan, gainera, hurrengoak ez direla zergatik ken litezkeen gastutzat joko:

a) Errenta salbuetsiei zuzen edo zeharka egotz dakizkiekeenak.

b) Jarduera salbuetsiei atxikitako ondare elementuak amortizatzeke kopuruak.

Zati bateko atxikipena gertatuz gero, aipatu jarduerari atxikitako ondare elementuaren zatia amortizatzeke kopuruak ez dira kengarriak izango.

c) Emaizten aplikazioa osatzen duten kopuruak eta, bereziki, ekonomi eragiketetatik eratorritako, jarduera salbuetsiei eusteko erabiltzen diren soberakinak.

d) Lanetik jasotako prestazioei eratzitako gehiegizko balioa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenatarako aitortutako zenbatekoaren gainekoa.

155. artikulua. Ekonomi ustiapen, ondare-gehikuntza edota urripena eta ondare elementuen lagapenaren kontzeptua.

Foru Lege honen ondoretarako joko dira:

a) Ekonomi ustiapen edo jarduera baten etekintzat, norbere lanetik eta kapitaletik batera eratorriz, edo horietako faktore batetik bakarrik, subjektu pasiboak bere kabuz ekoizpen-bideak eta giza baliabideak, edo horietako bakar bat, antolatzea dakartzaten guztiak ondasun edota zerbitzuen ekoizpen eta banaketan eskuartzeko helburuarekin.

b) Ondare-gehikuntza edota urripentzat, subjektu pasiboaren ondarearen balioaren aldakuntzak, haren osaketaren edozein aldakuntza dela eta agerian jartzen direnak.

c) Ondare elementuen lagapenaren etekintzat, subjektu pasiboa titular duten ondare elementuetatik, ondasun zein eskubide, zuzen edo zeharka datozen edozein motako kontraprestazioak, izena edo izaera edozein dutela ere, ondare elementuok ekonomi ustiapen bati atxikitzen ez bazaie.

Ekonomi ustiapenari atxikitako ondare elementutzat joko dira:

a') Subjektu pasiboa non jardun, hango higiezinak.

b') Jardunaren zerbitzuko langileen ekonomi, gizarte eta kultura zerbitzuetarako direnak.

c') Errenta ateratzeko beharrezko den beste edozein, ondare edukia baldin bada.

Halaberean, atxikitat joko dira hirugarrenei errentan eman edo lagatzen zaizkienak, aipatu jarduerak burutzea baldin bada subjektu pasiboaren ekonomi ustiapenaren ohiko xede arrunta.

Ondare elementuak hein batean baino ez badira erabiltzen jardueraren xederako, dagokion jardueran zer zati erabiltzen den, hori baino ez da atxikitat joko. Ondare elementu zatiezina ezin izango dira hein batean atxiki, inolaz ere.

XIII. KAPITULUA **Zuzendaritza, koordinazio eta** **finantza zentroak**

156. artikulua. Zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroen definizioa

Kapitulu honetan erabakitakoaren ondorioetarako zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentrotzat joko dira hurrengo beharkizun hauek beteko dituztenak:

1. Zerga bonen menpeko subjektu pasiboak pertsona juridikoak izatea.

2. Osatuko duten nazioarteko enpresa-taldearen transakzioen zein zerbitzuen administrazio, zuzendaritza, ikuskatzailatza eta zentralizazioa, esangurarik zabalenean, izatea burutuko duten jardueraren mamia.

Enpresa-talde horrek 1.250 milioi pezetatik gorako norbere fondo erantsiak izan beharko ditu eta hauetatik, gutxienez, 100eko 25 lurralde espainiarrean egoitza ez duten erakundeek osatu beharko dute; taldearen urteko eragiketen bolumenak 8.000 milioi pezetatik gorakoa izan beharko du eta honetatik, gutxienez, 100eko 25 atzerri-

ko bi estatuetan egindako eragiketei egokitu beharko zaie.

Erregelamendu bidez definituko dira nazioarteko enpresa-taldearen kontzeptuak, norbere fondoen kopuru erantsia eta urteko eragiketen bolumena eta moneta ezberdinak pezeta bihurtzeko kalkulatzeko modua.

3. Hurrengo baldintza hauek betetzea:

a) Aurreko 2. zenbakian aipatutako jarduera burutzeko beharrezko prestakuntza izango duten 8 pertsona lansaio osorako enplegatzea gutxienez.

b) Hurrengo bi baldintzetako bat betetzea gutxienez:

a') Sozietatearen kapitala edo norbere fondoak 250 edo 600 milioitik beherakoak ez izatea, hurrenez hurren.

b') Urteko eragiketa aktiboen zein pasiboen zenbatekoa 1.000 milioitik gorakoa izatea. Era-kundeok zuzendaritza eta koordinazio jarduerak baino ez badituzte garatzen urteko eragiketen zenbatekoak 150 miloi pezetatik gorakoa izan beharko du.

157. artikulua. Ezarpenaren zehaztapena.

1. Aurreko artikuluan definitutako zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroek beren zerga oinarria zehazteko hurrengo metodoetakoren bat aukeratu ahal izango dute:

a) Foru Lege honetako 13. artikuluan ezarritako arauen arabera.

b) Zentroek zergaldi bakoitzean izandako gastuei, finantza gastuei izan ezik, 100eko 25eko portzentaia ezarritakoa.

2. Zerga oinarria aurreko lerroaldearen b) letran xedatutakoa aplikatuz ateratzea aukeratzuz gero, ez dira zerga oinarri negatiboen konpentsaziorako aukeraz baliatuko, ez eta zerga oinarriaren txikipenarako ez inolako hobarirako aukeraz ere.

3. Beti ere, foru arau honetako 29. artikuluko 1. idazatik lehenengo lerroaldean ezarritako karga tasa orokorra ezarriko zaie beren beregi.

4. Zerga gardentasuneko araubidea ez da inola ere ezarriko.

5. Kapitulu honetan araututako araubidea ezarriko da, baldin eta Nafarroako Gobernuak, erakundeak berak eskatu ondoren, beren beregi ematen badio honi zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroa izateko izaera bost urteko gehie-

neko eperako, eta hau berriztagarria izango da subjektu pasiboak hala eskatzen duenean.

Erregelamenduz ezarriko da emakida horri ezarriko zaion prozedura.

Xedapen Gehigarriak

Lehenengoa. Dibidenduen ezarpen bikoitzaren ziozko kenkariaren murrizketa.

1. Ondorengo hauek ez dute izango Foru Lege honetako 59. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubiderik:

a) Azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legeko 19. artikuluan; Funtzio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Langabezi Babesaren Eraldaketarako Zerga Neurriak onetsi zituen abenduaren 29ko 22/1993 Legeko 2. artikuluan; eta uztailaren 6ko 19/1994 Legeko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera hobaritutako etekinei dagozkien mozkinen Orobat ondorengo foru arauetan ezarritako salbuespena aplikatu dakiekeen sozietateei dagozkienek: Bizkaikoa, ekainaren 24ko 5/1993; Gipuzkoakoa ekainaren 26ko 11/1993; eta Arabakoa, uztailaren 5eko 18/1993.

b) Petrolio sektorea Europako Elkartearen Eremura arian-arian moldatzeko Premiazko Neurriek buruzko ekainaren 5eko 15/1992 Legeko 3. artikuluko 1. idazatik aipatu diren ondare gehikuntzei dagozkien mozkinen.

2. Erreserben banaketa egonez gero, erreserba horiei abonatutako lehenengo kopuruak joko dira ezarritzat.

Bigarrena. Finantza-aktiboei eta beste balore higikor batzuei dagozkien atxikipen, eskualdaketa eta betebeharrak formalei buruzko arauak.

1. Kapital higikorrean inplizitu dauden etekin gainean atxikipena egiteko betebeharraren ondorioetarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren kontura, atxikipen hau ondorengo pertsona edo erakundeek egingo dute:

a) Arau bidez atxikitzeko betebeharrak ezarritakoa duten finantza-aktiboen eskualdaketa edo berreskuraketan lortutako etekinetan, atxikitzaileak finantza-erakundea edo eragiketaren erantzule diren erakunde jaulkitzaileak izango dira.

b) Tituluetan dokumentatu gabeko eragiketei dagozkien eskualdaketatik lortutako etekinetan, eta finantza-erakunde bati eskatutako eskualdaketatik ere, atxikitzailea eskualdatzailearen kontura jotzen duen banketxe, kutxa edo erakundea izango da.

c) Aurreko letretan bildu ez diren kasuetan, atxikipena egingo duen fedemaile publikoaren eskuhartzea derrigorrezkoa izango da.

2. Atxikigai diren etekin inplizitudun titulu edo aktiboen besterenganaketari edo errenboltsoari ekiteko, horien aurretiazko eskuraketa egiaztatu beharko da fedemaileen edo aurreko idazatian aipatutako finantza-erakundearen eskuhartzearen bidez, eta zein salneurritan burutu zen eragiketa ere.

Aurreko lerroaldearen arabera, tituluaren edo aktiboaren edukitzaileari errenboltsatu egin behar ez dioten eragiketen jaulkitzaileak edo finantza-erakunde erantzuleak kopuru horren arabera gordailua eratuko dute, epai-agintaritzaren esku geratuko dena.

3. Efektu publiko, balore eta bestelako titulu eta finantza-aktiboen jaulkipen, harpidetza, eskualdaketa, truke, bihurketa, kitapen eta berreskuraketan, eta horien gaineko eskubide errealei buruzko eragiketetan ere esku hartzen duten fedemaile publikoek, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko dizkiote eragiketa horiek, parte hartzen duten subjektuen izenen zerrenda aurkeztuz, horien helbidea eta identifikazio fiskalaren zenbakia zehaztuz eta efektu publikoen, baloreen, tituluaren edo aktiboen kopurua eta eragiketaren salneurria eta data ere, erregelamenduz zehazten den ereduaren arabera.

Betebehar berbera izango dute kreditu-erakunde eta finantza-establezimenduek, balore-sozietateek eta agentziek, beste finantza bitartekariak eta beste edozein pertsona fisiko edo juridikoa, ohiki efektu publikoen, baloreen edo bestelako titulu eta finantza-aktiboen, indizeen eta futuroen, edota horien gaineko aukeren bitartekotzari eta jartzeari ekiten diotenean; are kontuko idazpenen bidezko dokumentuenei, zuzen edo zeharka, edozein balore edo efektu-motaren bidez, baliabideak hartu eta ezartzea dakartzaten eragiketei gagozkiolarik.

Era berean, jakinarazpen-betebehar honi lotuta egongo dira talde-inbertsioetarako erakundearen sozietate kudeatzaileak ere, erakunde horietan dituzten akzio eta partaidetzei dagokienean.

Zenbaki honetan ezartzen diren jakinarazpen-betebeharrak, bertan aipatzen diren atxikipenaren pean jarritako eragiketei dagokienez, betetzat joko dira hartzaileen zerrenda aurkezten denean. atxikipenen urteko laburpenaren eredu ofizialari lotuta.

4. Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote metal eta objektu preziatuen, filateliarako

balioa duten tinbreen, numismatikarako balioa duten piezen eskuraketa erakusten duten ziurtagirien, gordeagirien edo agirien jaulkipena, ohiki horrelako baloreetan inbertitzea sustatzeari ekiten dioten pertsona fisiko eta juridikoek.

Hirugarrena. Bategite, zatitze, aktiboen ekartze, balore-trukatze eta matrize-filial sozietateen harremanen zerga-araubideari buruzko ekainaren 3ko 8/1992 Foru Legearen gaineko aipamenak. Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren araubidea.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga arautzen duten xedapenek ekainaren 3ko 8/1992 Foru Legeko definizio eta eragiketarako aipatzen dituztenean, Foru Lege honetako X. Tituluko IX. Kapitulukoak aipatzen dituztela ulertuko da.

2. Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga edo Gainbalioarena ez da sortuko Foru Lege honetako X. Tituluko IX: Kapitulukoak erregulatzen duen araubide berezia ezar dakizkiekeen eragiketen ondoriozko hiri izaerako lursailen eskualdaketak direla eta, 144. artikuluko aurreikusitako diruz besteko ekarpenak salbu.

Aipatu lursailen ondorengo eskualdaketatik, ulertuko da balio gehikuntza azaldu den urte kopurua eten ez dela X. Tituluko IX: Kapitulukoak aurreikusitako eragiketen ondoriozko eskualdaketa dela eta.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 57.2 artikuluko xedatua ez da aplikatuko.

Laugarrena. Zerga oinarrian sartzan ez diren laguntzak.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarritik kanpo geratuko dira hurrengo ondorioz agerian geratzen diren errenta positiboak:

a) Europako Batasuneko nekazaritza politikaren laguntzok jasotzearen ondorioz:

1goa. Mahastizaintzari behin betiko uzteagatikoa.

2garrena. Landaturiko sagarrondo, mertxikondu eta nektarinondoak errotik ateratzegatikoa.

3garrena. Esne ekoizpenari behin betikoz uzteagatikoa

4garrena. Erregelamenduz ezartzen direnak.

b) Enpresari jardueretara atxikitako ondare elementuak sutean, uholdean edo hondoratzean

galtzea ordaintzeko xede duten laguntza publikoak jasotzearen ondorioz.

2. Zerga oinarrian sartuko ez den errenta kalkulatzeko, kontuan izango dira jasotako laguntzak eta jasandako ondare galerak, halakorik gertatu baldin bazaie, behintzat, jardueri atxikitako elementuei. Laguntzen kopurua aipatu elementuek jasandako galerena baino txikiagoa bada, alde negatiboa zerga oinarrian sartu ahalko da. Gale- rariak ez baldin bada, laguntzen kopurua baino ez da geratuko zergatik at.

Bosgarrena. Zerga paradisutzat jotako herrialdeak.

Zerga honen ondorioetarako zerga paradisutzat joko dira Estatuko arautegiko erregelamen- duek halakotzat hartzen dituenak.

Seigarrena. 1988ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeko zenbait artikuluren idazketa aldatzea.

Ondoren aipatzen diren 3/1988 Foru Legeko artikuluek hurrengo edukia izango dute:

Bat. 73.b) artikulua

“b) Pentsio plan bateko partaideak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oina- rriko zati arrunta gutxitu ahalko du, Pertsona Fisi- koen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatza- ren 14ko 6/1992 Foru Legeak ezarritakoarekin bat.”

Bi. 73.c) artikulua

“c) Partaide bakoitzak egotzi edo zuzen gauza- tutako gehiegizko ekarpenak, aurreko letrak dioe- naren arabera ez baldin bada kengarritzat jo oina- rri likidagarria zehazteko, ez du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeak ezarritako kuota-kenka- riak izateko eskubiderik sortuko.”

Hiru. 74.3 artikulua

“3. Zerga oinarria murrizteko mugak gaintitzen dituzten gehiegizko ekarpenei dagozkien kopu- ruak inolaz ere ez zaizkio kenduko jasotako erren- tei, Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatza- ren 14ko 6/1992 Foru Legeak ezarritakoarekin bat.”

Lau. 77. artikulua

“1. Era berean, kengarri izango dira, Sozietate- en gaineko Zergari buruzko Foru Legeak ezarrita- koarekin bat, ekainaren 8ko 8/1987 Legeak arau- tzen dituen pentsio planek hartzen dituzten kontingentzien antzekoei aurre egiteko enpresari

ekarpenak, gauzatutako pentsioak barne, beti ere aipatu Legeak dioenaren arabera erabiltzen badi- ra.

2. Lotzen zaizkien pertsonen egotz dakizkieke- en kontribuzioek, eta pentsio planez bestelako gizarte prebisorako sistemon onuradunek jaso- tzen dituzten prestazioek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak pentsio planetarako duen zerga tratamendu bera izango dute, presta- zioek Ondoretza eta Dohaintzei buruzko Zergak hartzen dituenean salbu.

Hala ere, enpresek, bereganatu dituzten pen- tsioengatik konpromezuak betetzeko, prima bakarreko asegura kontratatzen dutenean, egoz- pena jasotzen duten subjektu pasiboek aipatu bestelako sistemaren ondoriozko prestazioak jaso ahala sartuko dituzte euren zerga oinarrietan. Berandutze hori gertatzen denean, subjektu pasi- boek ez dute eskubiderik izango egotzitako kopu- ruak zerga oinarriari kentzeko.

Zazpigarrena. Estatuko arauak ezartzea.

Arautegi berekirik ezean, lurralde arruntean indarrean den arautegia ezarriko da Nafarroan, hurrengo gaiei buruzkoan:

a) Meataritzaren eta hidrokarburoen bilaketa eta ustiaketa zerga araubidea.

b) Maiatzaren 25eko 12/1988 Legeak, ekaina- ren 29ko 5/1990 Legeak eta abenduaren 27ko 30/1990 Legeak aurreikusitako tributu araubidea.

c) Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko 27/1984 Legeak ezarritako zerga onurak.

d) Espainiako lurraldean bizi ez direnei eta nazioarteko erakundeei buruzko xedapenak.

e) Sistema Elektriko Nazionalaren Antolamen- duari buruzko 40/1994 Legea.

Zortzigarrena. “Sociedad de Desarrollo de Navarra” delakoa sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legeko 13.5 artikulua idazke- taren aldaketa.

1. urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legeko 13.5 artikulua idazketa aldatu egin da. Horra edu- kia:

“5. Entitatea partaide den sozietateetako fondo berekietan parte hartzea adierazten duten balore- ak besterenganatetik ateratako errentei dagokien kuota osoaren zatiari, 100eko 99ko onura ezarriko zaio baldin eta ateratako kopurua berriro inberti- tzen bada baloretan, besterenganatzea gertatu eta bost urteko epearen barruan.

Aurreko lerroaldean xedatua gorabehera, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak hauxe egin ahal izango du, entitateak hala eskatzen badu: berrinbertsioa gauzatzeko epea handitu, horretarako bide ematen duten inguruabar bereziak baldin badira.”

2. Aurreko 1 zenbakian finkatutako epea ezarriko zaie 1995eko ekitalditik aitzina egindako baloreen besterenganatzei.

Bederatzigarrena. Martxoaren 4ko 1/1985 Foru Legeko 3. artikuluko b) eta d) letren idazketa berria.

“b) Ibilgetu materialaren elementuak amortizatzeke askatasuna.”

“d) Saneamendu eta birrabiatze plana onartu eta gero ateratako oinarri likidagarri negatiboak hurrengoek kendu ahalko zaizkie: zerga oinarri positibodun lehen zergaldiaren hasieraren ondorengo eta hurrengo zazpi urteetan bukatzen diren zergaldiei dagozkien zerga oinarriek.

Saneamendu eta birrabiatze planak indarra hartzean kentzeke zeuden oinarri likidagarri negatiboak kentzeko epearen zenbaketa eten egingo da zerga oinarri positibodun lehen zergaldira arte.

Halaber, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ... Foru Legeko VI. Tituluko IV. Kapituluak aurreikusitako kenkariak ezartzeko epeen zenbaketa atzeratu edo eten egingo da zerga oinarri positibodun lehen zergaldira arte.”

Hamargarrena. Kooperatiben zerga araubidea.

1. Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeak Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Birbildua aipatzen duenean, gai derogatuz ari denean, Foru Lege honetako dagozkion arauak aipatzen direla ulertuko da.

2. Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeko hurrengo artikulua honela geratuko dira idatzita:

Bat. 21. artikulua.

“21. artikulua. Galeren konpentsazioa.

1. Aurreko artikulua aipatzen duen batuketa algebraiko hori negatiboa bada, kooperatibak kopuru hori konpentsa dezake hurrengo eta bata bestearen ondorengo zazpi urtetan bukatzen diren zergaldietako kuota oso positiboekin.

2. Kooperatiba sortu berrietan, aurreko zenbakiak aipatzen duen konpentsazio epearen hasiera

atzeratu ahal izango da kuota positiboak dituen lehen zergaldiaren hasieraraino.”

Bi. 37. artikulua.

“37. artikulua. Karga-tasak.

Aurreko artikulua aipatzen dituen kreditu kooperatiba babestuei, Sozietateen gaineko Zergari dagokionean, ondoko karga-tasak aplikagarri izanen zaizkie:

1goa. Kooperatibaren emaitzei dagokien zerga-oinarriari 100eko 25eko tasa aplikatuko zaie. Horren ondorioetarako, kooperatibaren emaitzat hartuko dira, Foru Lege honetako II. Tituluaren I. Kapituluako 3. sailean ezarritakoez gain, 36. artikulua 2. zenbakiko b) letren bigarren lerroaldean adierazi eragiketen ondoriozkoak.

2garrena. Kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokien zerga-oinarriari, Zergaren tasa orokorra aplikatuko zaio; emaitza horiek bereizita kontabilitatu beharko dira.”

Xedapen Iragankorrak

Lehen. Pentsioen ondoriozko konpromezuen egokitzapenerako aldebaterako zerga araubidea.

Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Gainbegiratzeari buruzko 30/1995 legeko Hamalagarren eta Hamabosgarren Xedapen Iragankorrek ezarritakoa betetzeak eragindako pentsioen ondoriozko konpromezuen egokitzapenak, hurrengo zerga araubidearen menpe izango dira:

1. Konpromezuak pentsio plan batekin bideratu baldin badira, aipatu xedapen iragankorrek ezarritakoa betetzeko sustatzaileek egin dituzten ekarpenak kengarri izango dira sustatzailearen zerga pertsonaletik ekarpena benetan gauzatzen den ekitaldi ekonomikoan. Salbuespena: aurretik eraturako ondare fondoek kontura egindako ekarpenak, zergen arabera kengarriak izan badira.

Aurreko lerroaldeak aipatzen dituen pentsio planetarako ekarpenak ez dira partaideari dago-kion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian sartuko, onuradunek jasoko dituzten prestazioen geroko eta Zergaren arauet lotutako tributazioaren kaltetan gabe.

2. Egokitzapena bizitza aseguruaren kontratu bihurtzen bada, enpresariak ordaintzen dituzten sariak kengarri izango dira beraien zerga pertsonaletik, sariak ordaindu diren ekitaldi ekonomikoan, beti ere Foru Lege honetako 23. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen badira. Salbuespena: pentsioen ondoriozko konpromezuetarako fondoek kargura ordaindutako sariak, fondo

horien dotazioa zergen aldetik kengarri izan baldin bazen bere garaian.

Sarien zerga inputazioa jasotzen duten subjektu pasiboek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarrian sartuko dituzte sariok, inputatutako kopuruaren kenketa egin den zergaldian.

2. zenbaki honek aipatzen dituen aseguru kontratuen prestazioek tributatu egingo dute pentsio planen ordezkotzat gizarte prebisioren sistemendako indarrean dagoen arautegiak xedatuaren arabera.

Zenbaki honek xedatua abenduaren 27ko 43/1995 Legeko Hamabosgarren Xedapen Iragankorreko 5. zenbakiak dioenaren kaltetan gabe ulertuko da.

3. Langileen prebisioren konpromezuei atxikitako ondare elementuak pentsio plan batera sartu edo ekartzearen ondorioz agerian geratzen diren errentek ez dute zergarik ordainduko. Halaberean, salbuetsita geratuko dira langileen prebisioren konpromezuei atxikitako ondare elementuak besterentzearen ondorioz agerian geratzen diren errentak, besterentzearen kopurua pentsio plan batean sartzen denean; zati batean baino ez bada sartzen, sartutako errentaren zatiari ezarriko zaio salbuespena.

4. Maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeko 79.1 artikulua ezarritako zerga araubidea aplikatu egingo zaie oraindik aipatu artikulua ezarritako beharkizunak betetzen dituzten enpresari-dotazioei, 30/1995 Legeko Hamalagarren Xedapen Iragankorreko egokitze-epaia igaro arte edota, aipatu Xedapen Iragankorrek ezarritakoarekin bat, beti ere, pentsioengatik konpromezuak lehenago gauzatu arte.

Bigarrena. Kontabilitatez kanpoko doikuntzak.

Foru lege hau indarrean sartu orduko zergaldiei dagozkien Sozietateen gaineko Zergako zerga oinarriak zehazteko egindako kontabilitatezko doikuntzak, positiboak eta negatiboak, kontutan hartuko dira arau hori ezarri behar duten zergaldiei dagozkien zerga oinarriak zehazteko asmoz, horiek araupetu zituzten arauetan ezarritakoaren arabera.

Inoiz ez da onargarria izango errenta bera kontutan hartua ez izatea edota birritan kontutan hartua izatea, Sozietateen gaineko Zergako zerga onarria zehazteko.

Hirugarrena. Berrinbertsioaren ziozko salbuespena.

Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Birbilduak araupetutako eta arau horretako

11.8. artikuluan ezarritako berrinbertsioaren ziozko salbuespenari lotutako zergaldietan egotzitako ondare-gehikuntzak artikulua horretan ezarritakoaren arabera araupetuko dira, nahiz eta berrinbertsioa Foru Lege hau indarrean sartu ondoren egin.

Laugarrena. Enpresak sustatzeko sozietateak.

Abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeko Xedapen Iragankorrek aipatzen dituen kapitalean parte hartuz enpresak sustatu edo bultzatzea xede duten Nafarroako sozietateek euren estatutuak arrisku-kapital sozietateetakoekin uztartzen badituzte edota horrelako sozietate bihurtzen badira, Foru Lege honek horiendako ezartzen duen araubideaz gozatu dute.

Egokitzapena edo eraldaketa urte beteko epean egin behar da, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik kontaktzen hasita. Hori gertatu arte, abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeko Xedapen Iragankorrek aurreikusten duen araubideaz gozatu jarraituko dute. Aipatu epea igaro bada egokitzapen edo eraldaketarik gertatu gabe, araubide orokorraren arabera tributatu dute.

Xedapen honek aipatzen dituen egokitzapen eta eraldaketa eragiketak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsiak egongo dira.

Bosgarrena. Finantza-errentamenduak

Foru Lege hau indarrean sartu orduko burututako, eta era berean arau hau indarrean sartu orduko erabizaitzari emandako ondasunei buruzkoak diren edota indarrean sartu eta ondorengo bi urteko epean ematen diren ondasun higiezinak buruzkoak diren finantza errentamenduen kontratuetan, maiatzaren 2ko 3/1989 Foru Legeko 57. artikulua ezarritako arauak aginduzko izango dira, erabat bete arte.

Seigarrena. Foru Lege hau indarrean sartu baino lehen eskuratutako merkataritzako fondoak, markak, eskualdaketa-eskubideak eta ibilgetu ezmaterialaren beste elementu batzuk.

1. Foru Lege honetako 15. artikulua aipatzen dituen ibilgetu ezmaterialaren elementuak, foru arau hau indarrean sartu baino lehen eskuratuak, zerga oinarria zehazteko kenduak izan ez direnean, amortizatu ahal izango dira, aipatu artikuluan ezarritako baldintza eta betebeharrekin, kontabilitateari dagokionez amortizatuta egon arren.

2. Foru Lege honetako 139.3. artikulua ezarritakoa ekainaren 3ko 8/1992 Foru Legeko 10. artikuluan itzalpean burututako eragiketei ere ezarri

ahal izango zaie, kontabilitateari dagokionez amortizazioa eginda egon arren.

3. Enpresen Bategiteen gaineko Zergaren Araubideari buruzko 1982ko otsailaren 8ko Arauaren itzalpean burututako eragiketetan sortutako merkataritzako fondoan amortizazioa ez da sekula gastu kengarritzat joko, merkataritzako fondo horien zenbatekoa zerga oinarrian sartzen ez bada, eta horiei dagokien kuota hobaritzen ez bada.

Zazpigarrena. Enpresen Bategiteen gaineko Zergaren Araubideari buruzko 1982ko otsailaren 8ko Arauaren itzalpeko bategiteak.

Enpresen Bategiteen gaineko Zergaren Araubideari buruzko 1982ko otsailaren 8ko Arauaren itzalpean suertatu ziren eragiketako baten bat burutu ondoren, eta bost urte igaro baino lehen, ondasun higiezinak direnean, eta hiru urte, ondasun higikorak direnean, ondare elementuak eskualdatuko balira horiek direla eta birbaloragai izanik, ez litzateke zenbatuko eskuraketaren balioan aipatu birbaloraketaren zenbatekoa, eskualdaketa lortutako benetako balioa berrinbertitzen ez bada Foru Lege honetako 36. artikuluan ezarritakoaren arabera, hortxe bertan ezarritako araubidea izango delako ezartzekoa erabat.

Zortzigarrena. Foru Lege hau indarrean sartzean aplikatzeko zeuden inbertsioen eta enpleguaren ziozko kenkariak.

1. Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Birbilduko 22. artikulua xedatuaren arabera aplikatu gabe zeuden kenkariak, Foru Lege hau indarrean sartu ondorengo zergaldiei dagozkien aitorten-likidazioetan aplikatuko dira, aipatu araubideak erregulatzen dituzten xedapenek ezarritako baldintza eta betebeharrekin.

2. Enpresari inbertsioaren zerga araubidearen erregelamenduzko arauak onartu zituen 1980eko maiatzaren 28ko Erabakiak, Foru Diputazioarenak, bere 48. artikuluan ezarritakoaren arabera, Subjektu pasiboak aukeratu duenean aktibo material finkoetako inbertsioen ziozko kenkaria ordainketak egiten diren zergaldietan ezartzea, kenkaria Foru Lege hau indarrean sartu ondoren hasten diren eta ordainketak egiten diren zergaldietan ezarriko da, aipatutako Erabakian ezarritako baldintza eta betekizunekin.

Bederatzigarrena. Foru Lege hau indarrean sartu baino arinagoko zerga oinarri negatiboak.

Foru Lege hau ezarriko den lehen zergaldiaren aurrekoan, Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Birbilduak xedatuaren arabera konpentsatu gabe dauden zerga oinarri negatiboak,

ondorengo zazpi urteetan bukatuko diren zergaldiei dagozkien zerga oinarri positiboak murrizteko erabil daitezke. Zazpi urteok zenbatuko dira aipatu zerga oinarri negatiboak finkatu ziren zergaldien ondorengoaren hasieratik aitzina.

Hamargarrena. Urriaren 15eko 2631/1982 Errege Dekretuko 82 artikulua babeseko kaudimengabeziatarako saldoak.

Foru Lege hau indarrean sartzean kaudimengabeziatarako fondo bat guztizko dotazioaren bidez eratuta duten subjektu pasiboak, data horretan dauzkaten zalantzazko kobrantzako kredituei aurre egiteko erabiliko dute saldoa, eta soberakina, egotekotan, gero sortuz doazenei, amaitu arte. Bien bitartean aipatu kredituei aurre egiteko zuzkidurak ez dira kengarriak izango.

Hamaikagarrena. Aitorpen bateratuaren araubidea.

1. Foru Lege hau indarrean sartzean aitorten bateratuaren araubidea duten sozietate-multzoek, Foru Lege honek araubide hori aplikatzeko ezarri dituen baldintza eta beharrezkoak betetzen badituzte, hori edukitzen jarraituko dute eta Foru Lege honetako X. Tituluko VIII.. kapituluak dauden arauak ezarri ahal izango zaizkie.

2. Foru Diputazioak 1978ko azaroaren 16an harturiko Erabakiarekin bat, Foru Lege honek indarra hartu ondoren hasten den lehen zergaldien barruan aitorten bateratuaren araubidearen luzapena eskatu ahal izan duten multzoak hiru zergaldi gehiagotan atxiki ahal izango zaizkio aipatu araubideari, X. Tituluko VIII.. kapituluak arauak ezarritako baldintza eta betekizunekin. 120. artikulua dakartzan betebeharrak aipatu lehen zergaldia bukatzen den egunera arte bete ahal dira.

3. Sozietate multzoek nahi baldin badute Foru Lege honek ezarritako araubide berezia hartu Foru Legeak indarra hartu ondoren hasten den lehen zergaldian, 120. artikulua ezarritakoak bete beharko dituzte aipatu aldian.

Hamabigarrena. Finantza-eragiketen gaineko mozkinen araubide iragankorra.

1979ko urtarrilaren 1ean zerga honetan mozkinak aintzatetsita dituzten bidesaridun estraten emakidadun sozietateek berorien legeriaren eta Foru Diputazioak 1978ko abenduaren 28an harturiko Erabakiko hirugarren xedapen iragankorreko 2. zatian ezarritakoaren eta berorien garapen arauen arabera finantzaketa- eta birfinantzaketa-eragiketatarako, eskuratutako eskubide hori izaten jarraituko dute oraingo baldintzetan.

Hamahirugarrena. Inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzen zerga-balioa.

Foru Lege honetako 114. artikulua aipatzen duen likidazio balioaren soberakina kalkulatzeko, eskuraketa-baliotzat joko da Foru Lege hau ezarri behar duten lehen zergaldiaren lehenengo eguneko likidazio-balioa, subjektu pasiboak egun hlorretan dituen partaidetza eta akzioei dagokienez. Balio horren eta eskuraketaren benetako balioaren arteko diferentzia ez da eskuraketa-baliotzat joko akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo berreskuraketaren ondoriozko errentak zehaztean.

Talde-inbertsioko erakundeek banatutako dibidendu eta mozkin-zatiak, Foru Lege honek indarra hartu aurretik ateratako mozkinetik baldin badatoz, bazkide edo partaideen zerga oinarrian sartuko dira. Ondorio horietarako ulertuko da banatutako lehen erreserba irabazitako lehen mozkinen hornitu direla.

Hamalaugarrena. Eguneratze kontuak.

1. Foru Lege hau indarrean sartzen denetik, "1981erako Aurrekontuak betetzeko Arauaren eguneratzea" eta "Urriaren 26ko 35/1983 Foru Legeko eguneratzea" kontuen saldoak legezko erreserbara eskualdatuko dira, eta gerakina, egonez gero, erabilpen askeko erreserbetara.

2. Eguneratutako elementuen amortizazioari dagozkion arauak aplikagarri izaten jarraituko dute horien iraupen baliagarria iraungi arte.

Hamabosgarrena. Nazioarteko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkaria.

Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Birbilduko 20. artikuluko 4 eta 5. zenbakiek finkatutako nazioarteko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkariari dagozkion zenbateko kendugabeak, Foru Lege hau indarrean sartu ondoren hasten diren zergaldiei dagozkien likidazioetan ezarriko dira, aipatu artikuluan ezarritako baldintza eta betekizunekin.

Hamaseigarrena. Erakunde gardenen zerga-ordainketa.

1. Sozietate gardenetan ezarriko den karga tasa, Foru Lege hau ezarriko den lehenengo bi zergaldietako bakoitzean, ehuneko 10 eta 20 izango da, hurrenez hurren, egotzi gabeko zerga oinarriari dagokion zatian izan ezik, tasa orokorren arabera ordainduko baititu zergak.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen zergaldietan, sozietate gardenek ez dute zatikako ordainketarik egin beharrik izango, egotzitako zerga oinarriari dagokionean.

Hamazazpigarrena. Partaidetza kontuetako dibidenduen ezarpen bikoitzaren ziozko kenkaria.

Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Birbilduko 10. b) artikuluan edota Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, partaide kudeatzaileen zerga oinarrian sartu diren partaide ez-kudeatzaileari dagozkion partaidetzako kontuen emaitzek, dibidenduen ezarpen bikoitzaren ziozko kenkarirako eskubidea sortuko dute.

Hamazortzigarrena. Bategiteak eta zatiketak.

1. Ekainaren 3ko 8/1992 Foru Legeak, bategite, zatitze, aktiboen ekartze, balore-trukatze eta matrize-filial sozietateen harremanen zerga-arau-bideari buruzkoak aipatzen dituen eragiketak, Foru Lege honek indarra hartzean gauzatzen ari direnak, aipatu 8/1992 Foru Legea izango dute arau.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, interesatuak Foru Lege honetako X. Tituluko IX. Kapituluak aurreikusitako araubideaz baliatu ahal izango dira, Foru Lege hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean jakinarazten badiote Ekonomi eta Ogasun Departamentuari.

Hemeretzigarrena. Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak.

Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateei dagozkien errenta negatibo eta kenketak, Foru Lege honek indarra hartu baino lehenagoko zergaldiei buruzkoak, zer bazkideri esleitu, hark aplikatuko ditu.

Hogeigarrena. Indarreko xedapenak aplikatzea.

Kontuko atxikipenak eta dirusarrerak egin beharri eta amortizazio eta berrinbertsio plan bereziei buruzko erregelamenduzko arauak onetsi bitartean, Foru Lege honek indarra hartzean indarrean zeuden xedapenak aplikatzeari jarraituko zaio.

Hogeita batgarrena. Erreserba Berezia.

1. Subjektu pasiboek Foru Lege honetako IV. Tituluko XI. Kapituluako 2. sailak aipatzen duen erreserba berezia hornitu ahalko dute 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina hasitakoaren aurreko ekitaldian eskuratutako kontabilitate mozkinen.

2. 12/1993 Foru Legeak eta Foru Lege honetako IV. Tituluko XI. Kapituluako 2. sailak aipatzen duten erreserba berezia zuzkitzen duten subjektu pasiboek guztizko muga bat izango dute zerga oinarria murrizteko: zerga oinarriaren 100eko 40a.

Hogeita bigarrena. Aktibo finko materialei eta enplegua sortzeari dagozkien inbertsioak pizteko kenkaria.

1. Foru Lege honetako VI. Tituluko IV. Kapituluko 1. sailak eta 71. 2 artikulua diotena 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina hasitakoaren aurreko ekitaldian aplikatuko da.

2. Aurreko zenbakiko inbertsioengatik kenkaria aplikatzeko aukera egiten duten subjektu pasiboek ezingo dute Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Birbilduko 22. artikuluko A) letra. 1. Lehen.a)n ezarritakoa aplikatu.

Xedapen Derogatzaila

1. Foru Lege hau indarrean sartutakoan, bertan esandakoaren kontra doazen lerrun bereko edota beheragoko xedapen guztiak derogaturik geratuko dira, hurrengoak bereziki:

Foru Diputazioak 1978ko azaroaren 16an harturiko Erabakia, zeinaren bitartez sozietate eta enpresa-multzoen arteko inbertsioen zerga araubidea arautzen den.

Foru Parlamentuak 1982ko otsailaren 8an harturiko Erabakia, errendimendu jakin batzuk direla eta Zergaren kuotaren hobaria arautzen duena.

Finantza-aktibo batzuen zerga araubideari buruzko ekainaren 14ko 15/1985 Foru Legeko hurrengoak: 1, 2, 3, 7, 8, 9 eta 10. artikulua, Lehen Xedapen Gehigarriaren 1, 2 eta 4 zenbakiak eta Laugarren Xedapen Gehigarria.

Ekainaren 13ko 153/1986 Foru Dekretu Legegilea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Birbildua onesten duena.

1987ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 19/1986 Foru Legeko Hamazazpigarren Xedapen Gehigarriko 1. zenbakiko azken lerroaldea eta 2. zenbakia.

1988ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeko zazpigarren kapitulua, Sozietateen gaineko Zergari doakionean.

1989ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 2ko 3/1989 Foru Legeko 57. artikulua.

1990eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 1/1990 Foru Legeko 58. artikulua.

Ekainaren 3ko 8/1992 Foru Legea, bategite, zatitze, aktiboen ekartze, balore-trukatze eta matrize-filial sozietateen harremanen zerga-araubideari buruzkoa.

Tributu arloko aldaketei buruzko urriaren 20ko 12/1992 Foru Legeko 5. artikulua. Lehen.a. Hiru eta lau; 6. artikulua. Bat, hiru, lau, bost eta sei. Orobat Foru Lege bereko 5. artikulua. Lehen.a. Bat eta Bigarrena, Sozietateen gaineko Zergari dagokionean.

Inbertsioa eta jarduera ekonomikoa laguntzeko eta beste zerga neurri batzuei buruzko azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legeko III. Titulua., Sozietateen gaineko Zergari dagokionean.

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeko 8 eta 11.1.a) artikulua. Orobat Foru Lege bereko 7 eta 9. artikulua, Sozietateen gaineko Zergari dagokionean.

Derogaturiko arautegiak ezarritako zerga-betebeharrak eska ditzake Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, beraz, zenbaki honek xedatua horren kaltetan gabe ulertuko da. Derogaturiko arauen edukia aplikatuko zaie aipatu betebeharrari.

2. Aurreko zenbakiak xedatua gorabehera, hurrengo xedapenek indarrean iraungo dute:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Birbildua onesten duen ekainaren 13ko 153/1986 Foru Dekretu Legegileko 22. artikuluko B) letra eta bederatzigarren Kapitulua, 35. artikulua bigarren lerroaldea salbu.

1987ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 19/1986 Foru Legeko Hamazortzigarren Xedapen Gehigarria.

1988ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeko seigarren kapitulua.

1989ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 2ko 3/1989 Foru Legeko 62. artikulua.

1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legeko Hamargarren Xedapen Gehigarria.

Tributu arloko aldaketei buruzko urriaren 20ko 12/1992 Foru Legeko 7. artikulua.

1993ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legeko Seigarren Xedapen Gehigarria. Foru Lege honetako 66. artikuluari doakiola ulertuko da.

Inbertsioa eta jarduera ekonomikoa laguntzeko eta beste zerga neurri batzuei buruzko azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legeko I. Tituluko II. Kapitulua, 11 eta 12. artikulua eta IV. Kapituluak, Foru

Lege horrek aurreikusitako denbora iraupenarekin.

Amortizazioen koefizienteak eta gehieneko epeak ezarri eta amortizazio plan berezien arautzea partzialki aldatzen duen azaroaren 30eko 368/1993 Foru Dekretuko 1. artikulua.

9/1994 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duena.

Zenbait zerga aldatzen dituen abenduaren 29ko 14/1995 Foru Legea, zenbait zerga aldatzen dituena.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legea.

Azken Xedapenak

Lehena. Arautzeko gaikuntza.

Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar beste xedapen emango du Nafarroako Gobernuak.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek 1997ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta egun horretatik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 160 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--